



EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA. GIPUZKOAKO ATALA

GRADU AMAIERAKO LANA

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUAN

**LANDA TURISMOAREN EGOERA NAFARROAKO MENDIALDEKO
HERRI TXIKI BATEAN: URDAZUBIKO KASUA**

Jaione Perurena Azcárraga

2019ko Ekainaren 7an

ZUZENDARIA

Ainhoa Garayar Erro

LABURPENA

Ondoren aurkituko duzun lan honen helburua Urdazubiko turismoaren egoera aztertzea izango da. Turismoak gero eta garrantzi handiago hartzen ari du mundu osoan zehar eta honek ekonomiari onura asko ekartzen dizkio, bai lortzen diren irabaziengatik eta baita sortzen dituen lanpostuengatik ere. Honenbestez, Urdazubiko turismoak bide berdinetik jarraitzen ote duen aztertu nahi dut, zenbat lanpostu sortzen dituen, zenbat bidaiari jasotzen dituzten, turisten iritziak etab.

Honez gain, egoera ekonomikoa ikusteko Nafarroako bizi maila aztertuko dut, BPG per capita, langabezia tasa eta antzeko informazioak baliatuz. Hau azterturik Urdazubiko landa turismoak zer eragin ekonomiko duen ondorioztatzeko aukera izango dugu.

HITZ GAKOAK: Turismoa, landa turismoa, Urdazubi, elkarrizketak, landa etxea, hazkundera.

EDUKIEN AURKIBIDEA

Aurkibidea

LABURPENA.....	2
EDUKIEN AURKIBIDEA	3
IRUDIEN AURKIBIDEA	6
1. SARRERA.....	9
2. ZER DA TURISMOA?.....	10
2.1. Definizioak.....	10
2.2. Garraioa eta turismoaren arteko harremana.....	11
2.3. Turismo motak	13
3. TURISMOAREN EGOERA MUNDU MAILAN	14
3.1. Iritsierak eta diru sarrerak.....	15
3.2. Garraibideak eta bidaiatzeko arrazoiak	16
3.3. Munduko herrialdeen iritsieren eta diru sarreren ranking-a.....	17
3.4. Turismoa eskualde desberdinetan	18
3.5. Turismo igorlea	23
4. TURISMOAREN EGOERA EUOPAR BATASUNEAN.....	25
4.1. Iritsierak eta ostatuak	25
4.2. Gaualdiak.....	27
4.3. Europako kosta turismoa	34
5. TURISMOAREN EGOERA ESPAINIAN	35
5.1. Turismoaren egoera espainian gaur egun.....	35
5.2. Turisten asebetetzea eta iritzia	36
5.3. Informazio iturriak.....	46
5.4. Nazioarteko turisten fideltasuna.....	48
5.5. Helmuga alternatiboa.....	50
5.6. Zehazteko faktoreak.....	51
5.7. Espainiara itzultzeko intentzioa	52
5.8. Turismoaren eragina ekonomian	53
5.9. Lanpostuak: Afiliazioa Gizarte Segurantzian	54
6. LANDA TURISMOA.....	56
6.1. Zer da landa turismoa?.....	56
6.2. Landa turismoaren garapena	57
6.3. Landa turismoaren prezioak.....	58

6.4. Espainiako autonomia erkidegoen garrantzia landa turismoan	60
7. TURISMOAREN EGOERA NAFARROAN	63
7.1. Nafarroako eskualdeak	63
7.2. Nafarroako landa turismoaren garapena.....	64
7.3. Landa turismoa Nafarroako zonalde ezberdinetan.....	66
7.4. Ipar-mendebaldearen garrantzia Nafarroa osoarekin konparatuta	67
7.5. Landa turismoko bidaiarien jatorriaren arabeko eboluzioa	67
7.6. Nafarroako ipar-mendebaldeko landa turismoaren datu batzuk	68
7.7. Landa turismoaren bilakaera kuantitatiboa eta krisiaren eragina	69
7.8. Nafarroako ekonomia beste ekonomiekin alderatuta	72
7.8.1. Nafarroako Barne Produktu Gordina per capita	72
7.8.2. Nafarroako Biztanleria Aktiboaren Inkesta	73
7.8.3. Urdazubiko versus Nafarroako eta Espainiar estatuko langabezia tasa	73
8. IKERKETA ENPIRIKOA.....	74
8.1. Sorlekua eta turismoarekiko iritzia	75
8.2. Urdazubi herri turistikoa	76
8.3. Landa etxea	77
8.3.1. Okupazioa.....	77
8.3.2. Gualdiak.....	77
8.3.3. Turisten jatorria eta turista mota.....	78
8.3.4. Landa etxearen eboluzioa	78
8.3.5. Erreserbatzeko modua	78
8.3.6. Turisten iritzia.....	79
8.4. Leku turistikoak	79
8.4.1. Leizeen berezitasuna	79
8.4.2. Iritsierak.....	79
8.4.3. Turisten erreakzioa.....	79
8.4.4. Jatorria.....	80
8.4.5. Turista mota	80
8.4.6. Enplegua.....	80
8.5. Herriko tabernako turismoa.....	80
8.5.1. Herriaren berezitasuna	80
8.5.2. Turista mota	81
8.5.3. Eboluzioa	81
8.5.4. Iritziak.....	81
8.6. Urdazubiko turismoa orokorrean.....	82

8.6.1. Jatorria.....	82
8.6.2. Jatorria eta turista mota.....	82
8.6.3. Dantxarineako turistak.....	82
8.6.4. Turistak erakartzeko ekitaldiak	82
8.6.5. Turismoa eta ekonomiaren arteko lotura	83
9. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.....	83
10. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA.....	87
11. KONTSULTATURIKO BIBLIOGRAFIA	89

IRUDIEN AURKIBIDEA

Grafikoak:

1. Grafikoa: Nazioarteko turismoaren iritsiera kuotak 2017.urtean	15
2. Grafikoa: Nazioarteko turismoaren diru sarrera kuotak 2017.urtean	15
3. Grafikoa: Garraiobideen erabilera (%)	16
4. Grafikoa: Bisitaren arrazoia (%)	17
5. Grafikoa: Nazioarteko turistak iritsierak herrialde ezberdinetan 2017. urtea (milioiak)	17
6. Grafikoa: Nazioarteko turismoaren diru sarrerak herrialde ezberdinetan 2017. urtean (mila milioi \$).....	18
7. Grafikoa: Turismo igorlea, jatorriaren arabera kuota (%).....	24
8. Grafikoa: Gastuaren arabera merkatu igorle garrantzitsuenak 2017.urtean (mila milioi \$).....	24
9. Grafikoa: Turista kopurua Europako herrialde ezberdinetan (milioitan).....	25
10. Grafikoa: Ostatu turistikoetako gaudiek izandako joerak EBn (2005-2017, 2005.urtea oinarritzat hartuz)	27
11. Grafikoa: Helmuga turistikoak: ostatu turistikoetako emandako gaudiak, 2017 (egoiliarrek ez diren gaudiak herrialdean bertan, milioitan)	28
12. Grafikoa: Jatorrizko herrialdeetatik kanpo bidaiatzen duten bidaiarien gaudien portzentaia ostatu turistikoetan EBn.....	29
13. Grafikoa: Turismo intentsitatea (egoiliarrek eta ez egoiliarren gaudiak ostatu turistikoetan biztanleko)	30
14. Grafikoa: Jarduera turistikoetan parte hartzen duen biztanleriaren ehunekoak (15 urtetik aurreragoak)	31
15. Grafikoa: Atzerrira egindako bidaietan emandako gaudien portzentaia, turista egoiliarren herriarekiko	32
16. Grafikoa: Jatorrizko herrialdeak atzerriko bidaiari turistikoei dagokionez (gaudien batez bestekoa atzerrian 15 urtetik aurrerago biztanleriarekiko).....	33
17. Grafikoa: Kostako industriaren balio erantsi gordina EBn 2011.urtean	34
18. Grafikoa: Lanpostuak kostako industriaren EBn 2011.urtean.....	34
19. Grafikoa: 2017.urteko Espainiako ostatu mota ezberdinetara joandako bidaiari kopurua (%).....	35
20. Grafikoa: 2017.urtean turismoak sortutako lanpostuak arlo ezberdinetan	36
21. Grafikoa: Asebetetze globalaren arabera nazioarteko turistak portzentaia	38
22. Grafikoa: Sexu ezberdinen asebetetzearen arabera nazioarteko turistak portzentaia	38
23. Grafikoa: Urtez urteko Espainiako turismoaren adierazle sintetikoaren (ISTE) aldaketa 2005-2017 urteetan	53
24. Grafikoa: Espainiar estatuko landa turismoaren garapena 2005-2017 urteetan. Bidaiari kopurua (2005eko datuak oinarritzat harturik)	57
25. Grafikoa: Landa turismoko ostatuaren prezio indizeen eboluzioa (IPTR), versus hostalen prezio indizea (IPH), 2010-2016 urteak.....	58
26. Grafikoa: Landa turismoa Espainiako autonomia erkidegoetan 2005-2017. Bidaiari kopurua	61
27. Grafikoa: Nafarroako ostatu turistikoetako bidaiarien ehunekoak	64
28. Grafikoa: Nafarroako ostatu turistikoetako gaudien ehunekoak	65
29. Grafikoa: Turista mota ezberdinen eboluzioa Nafarroan 2005-2017 urteetan	65

30. Grafikoa: 2011-2017an Nafarroako landa turismoaren bilakaera zonaldeka (2011ko datuak oinarritzat harturik).....	66
31. Grafikoa: 2017ko Nafarroa osoko eta Ipar-mendebaldeko bi turismo moten aldea (%)	67
32. Grafikoa: Ipar-mendebaldeko landa turismoaren bidaiariak jatorriaren arabera 2005-2017an (%).....	68
33. Grafikoa: 2005-2017 urteetako landa turismoaren eboluzioa Espainia, Nafarroa eta Ipar-mendebaldean.....	70
34. Grafikoa: 2013-2017 urteetako landa turismoaren bilakaera estatu mailan eta zonalde ezberdinetan	71
35. 2007-2017 urteetako langabezia tasaren (EPA) datuak (%) Espainian, Nafarroan eta Urdazubín	74

IRUDIAK:

1. Irudia: Iritsierak eta diru-sarrerak	16
2. Irudia: Europa: Iritsierak eta diru sarrerak	19
3. Irudia: Asia eta Pazifikoa: Iritsierak eta diru sarrerak	20
4. Irudia: Amerika: Iritsierak eta diru sarrerak	21
5. Irudia: Afrika: Iritsierak eta diru sarrerak	22
6. Irudia: Ekialde Ertaina: Iritsierak eta diru sarrerak	23
7. Irudia. Adinaren arabera nazioarteko turisten asebetetze globala ehunekotan (2016.urtea, 10kiko balorazioa)	39
8. Irudia: Bidaiaren arabera nazioarteko turisten asebetetze globala ehunekotan (2016.urtea, 10kiko balorazioa)	39
9. Irudia: Produktuaren arabera nazioarteko turisten asebetetze globala (2010-2011-2016 urteak, 10kiko balorazioa).....	40
10. Irudia: Efektu marjinalaren asebetetzea produktuaren arabera, asebetetze globala kontutan hartuta (2016.urtea).....	40
11. Irudia: Inguru turistikoaren arabera asebetetzea (2016 urtea, 10kiko balorazioa) ...	41
12. Irudia: Ostatuaren arabera asebetetzea (2016.urtea, 10kiko balorazioa).....	42
13. Irudia: Gastronomiaren arabera asebetetzea (2016.urtea, 10kiko balorazioa).....	42
14. Irudia: Aisiaren arabera asebetetzea (2016.urtea, 10kiko balorazioa).....	43
15. Irudia: Nazioarteko turisten merkatuen arabera asebetetzea (2016.urtea, 10kiko balorazioa).....	44
16. Irudia: Nazioarteko turistaren asebetetzea helmuga den autonomia erkidegoaren arabera (2016 urtea, 10kiko balorazioa).....	45
17. Irudia: Informazio iturriaren eta bizilekuaren arabera nazioarteko turisten ehunekoak (2016.urtea).....	46
18. Irudia: Erabiliko informazio iturriaren eta bisitaren arrazoiaren arabera nazioarteko turisten ehunekoak (2016.urtea)	47
19. Irudia: Fideltasunaren arabera nazioarteko turisten ehunekoak merkatuka (2016.urtea).....	48
20. Irudia: Bisitaren arrazoi eta errepikakortasunaren arabera nazioarteko turisten ehunekoak (2016.urtea).....	49
21. Irudia: Espainiarekiko loturaren arabera nazioarteko turisten ehunekoak	49
22. Irudia: Nazioarteko turistentzako helmuga alternatiboak (2016.urtea).....	50
23. Irudia: Helmuga turistiko gisa Espainia aukeratzeko faktore garrantzitsuenak (2016.urtea).....	51

24. Irudia: Helmuga turistiko gisa Espainia aukeratzeko faktore eraginkorrenak (2016.urtea).....	51
25. Irudia: Helmuga turistiko gisa Espainia aukeratzeko faktore eraginkorrenak autonomia erkidegoen arabera (2016.urtea).....	52
26. Irudia: Turismoaren sektorean afiliaturikoak (2008-2018 urteak, urteko batez besteko balioak).....	54
27. Irudia: Turismoaren sektorean afiliaturikoak jarduera ezberdinen arabera (ehunekoen banaketa eta urte urteko aldaketak balio absolututan, 2018 urtea).....	55
28. Irudia: Ostalaritzan eta bidaia agentzietan afiliaturikoak autonomia erkidegoen arabera (urtez urteko aldaketak balio absolututan, 2018 urtea).....	55
29. Irudia: Landa turismoko egonaldietan gastaturikoa	59
30. Irudia: BPG per capita 2017 urterako Espainiako autonomia erkidego ezberdinetan... 72	

TAULAK:

1. Taula: Garraio elementuak.....	12
2. Taula: Ostatu turistikoaren establezimenduak	26
3. Taula: Asebetetze maila globala eta nazioarteko turistaren itzultzeko intentzioa (2016 urtea).....	52
4. Taula: Espainiako autonomia erkidego ezberdinetako bidaiarien datuak 2005-2017 urteetan.....	62
5. Taula: Landa turismoaren 2005-2017ko Ipar-mendebaldeko datuak	69

MAPAK:

1. Mapa: Batez besteko landa turistaren gastua autonomia erkidegoen arabera	59
2. Mapa: Zenbateko maiztasunarekin bidaiatzen duten turistek	60
3. Mapa: Espainiako 2017ko 4.hiruhileko BAren langabezia tasa.....	73

1. SARRERA

“Landa turismoaren egoera Nafarroako mendialdeko herri txiki batean: Urdazubiko kasua” titulutzat duen lan honek, autorea ni neu, Jaione Perurena Azcárraga izanik, nire herriko turismoaren ikerketa lan bat egingo dut eskuartean duzuen txosten honetan. Proiektu hau aurrera eraman ahal izateko Ainhoa Garayar Erro tutorearen laguntzaz baliatu naiz zenbait argibide bilatzerako eta zalantza argitzerako orduan.

Urdazubiko herriaren inguruko turismoa aztertzeke eta batez ere bertan zer eragin den ikusi ahal izateke, kontuan hartu behar dugu landa-turismoa, turismo mota garrantzitsuena dela. Lan honen bitartez, Urdazubiko ekonomian landa-turismoak zer eragin ote duen aztertzea izango da helburua, izan ere, Urdazubi eta inguruko eskualdeek Nafarroako landa-turismoan garrantzi izugarria baitute. Honen bitartez zenbait ondorio ateratzeko aukera izango dugu, landa etxeen okupazioa, turistaren asebetetzeak edo iritziak, turismoaren arloan lan egiten duten langileen kopurua, turismoaz bakarrik bizi ote gaitzekin, Espainiar estatuko krisi ekonomikoak eraginik izan ote duen turismoaren arloan, nola eboluzionatzen ari den etab.

Erran beharra dago, Nafarroa eta Espainiar estatuko landa-turismoa aztertzen duten dituzten lanak oso urriak direla, eta noski, are gutxiago Urdazubiko landa-turismoaren inguruan aztertu direnak. Herri honetako turismoa aztertzen duen lehenengo lana dela esan didate udaletxean edo behintzat beraiek ezagutzen duten lehenengo lana. Honez gain, landa turismoa Espainiaz aparte beste zenbait herrialdeetan aurkitu dezakegun turismo mota bat da eta honen inguruan azterketa bat baino gehiago egin izan dira. Honen adibide da, Andaluziako landa etxeen garapenaren inguruko lan bat (*Oferta en francés de casas rurales en Andalucía con descripción del entorno, 2013*) edo Gaztela eta Lehoiko landa turismoari eginiko tesia (*Turismo rural en Castilla y León: delimitación comarcal y análisis espacial, 2013*) eta mundu maila hartuz gero kontutan, Mexikoko Toluca eskualdean aztertutako landa turismoaren garapenaren inguruko lana ere edukiko genuke (*Economía social, comunidad: orientación teórica para el turismo rural, como alternativa de desarrollo, 2014*).

Ikerketa honen metodologiari dagokionez, hiru zati ezberdinetan banatuko da. Alde batetik, zati teoriko bat izango du, honen ondorekin ikerketa enpirikoa bat, non hau garatzeko herriko turismoan adituak diren lau pertsoneri elkarrizketa ireki batzuk egin zaizkien eta azkenik, ateratako informazio guztiarekin zenbait ondorio atera dira.

Lan hau aurrera eraman ahal izateko egitura bat jarraitu da. Lehenik eta behin turismoa mundu mailan aztertzeke ekin diot eta hau aztertzeke turismoa orokorrean aztertua izan da, kontinenteen arteko aldeak ikusiz eta elkarren arteko konparazioak eginez (turisten iritsierak, diru-sarrerak etab.). Ondoren, munduko turismoarekin egin den bezala Europa aztertzeke ekin diot. Hemen, herrialdeen arteko konparazioak egin dira eta ranking bat iritsieren arabera, turismoa orokorrean aztertuz alegia. Behin, turismoaren bi ikuspegi hauek aztertuta, Espainia eta Nafarroako turismoa aztertzeke pasa naiz. Lan honen xede den Urdazubiko turismoa aztertzeke, edo zehatzago esanda, landa turismoaren garapena ikusteko, Espainiako, Nafarroako eta Nafarroako ipar-mendebaldeko¹ zonaldeko datuak harturik konparazioak egin ditut. Nafarroako landa turismoaren informazio kuantitatiboa gordetzeke orduan, Urdazubi ez da landa turismoko eremu geografiko bezala agertzen, beste zonalde batzuekin batera agertzen baitira herri honetako datuak, Nafarroako ipar-mendebaldeko datuen barruan alegia. Hortaz,

¹ Nafarroako ipar-mendebaldeko zonaldea hurrengo eskualdeek osatzen dute: Baztan, Bortziriak, Malda-errekak, Ultzamaldea, Sakana eta Aralarko Iparalde.

Ipar-mendebaldeko datuei buruz hitz egiten arituko naiz gehienbat, nahiz eta Urdazubiko turismoaren egoeraren oso antzekoa izan.

Erabili diren datu gehienak, denok eskuratu ditzazkegun Nafarroako Estatistikaren Institutuko (NEI) eta Instituto Nacional de Estadística-ko (INE) web-orritik harturikoak dira. Datu hauen bitartez, jada landa-turismoan zentratzeko aukera emango digute eta zenbait azterketa egin ahal izango ditugu, taula eta grafiko desberdinak erabiliz.

Hala ere, iturri hauez gain beste zenbait albiste eta web-orri erabili dira ahalik eta datu gehien lortzeko, bukaeran bibliografian agertuko direlarik. Datu estatistiko eta ekonomikoak lortzerako orduan, Expansión egunkariaren barruan dagoen “datosmacro.com”² orrialdea erabili da.

Urdazubiko datuei dagokionez, herriko udaletxean eskatu behar izan ditut. Azken urteetan gutxi gora behera pasatako turisten datu batzuk eman dizkirate, baina ez dut lortu datu ekonomikorik. Honetaz aparte, lehen esan bezala, herriko turismoan nolabait infiltraturik dauden 4 pertsoneri elkarrizketa bat egin diet, herri honek turismoarekin nola jokatzeko duen ezagutua ahal izateko. Lorturiko datu eta informazio hauen bidez Urdazubiko landa-turismoaren inguruko ondorio batzuk ateratzeko aukera izan dut.

2. ZER DA TURISMOA?

Ondorengo atal honetan turismoaren inguruan murgiltzeko zenbait azalpen emango dira, turismoaren munduan pixka bat sartu ahal izateko. Horretarako, turismoa zer den ikusiko da, ze elementu bereizten diren, garraioarekin zer nolako harremana duen eta ze turismo mota aurki ditzakegun gure artean.

2.1. Definizioak

Turismoa definitzeko orduan hainbat definizio aurkituko ditugu eta oraindik ez dago definizio orokor edo bakar bat. OMTren arabera, turismoak, bidaietan eta ohiko bizilekutik kanpoko egonaldietan pertsonak egiten dituzten jarduerak biltzen ditu. Urte bat baino gutxiagoko egonaldiak izaten dira eta aisialdirako, negozioetarako eta beste zenbait jardueretarako izan daitezke (OMT³, 1994).

Bi gerra mundialen arteko urteetan (1919-1938), turismoa ikertzeko interesa piztu zen eta urte horietan zenbait ekonomialari europarrek lan ezberdinak publikatu zituzten.

1942an, Bernako Unibertsitateko bi irakasleek honela definitu zuten turismoa: bidaiak eta egoiliarak ez diren egonaldiak sortutako fenomeno eta harremanen batura, beti ere ez badira egoitza iraunkor bati lotuta, ezta ordainduriko jarduerari bati ere (Hunziker eta Krapf, 1942).

Kontuan izan behar da definizio hau bigarren gerra mundiala zegoenean jaulki zela, oso definizio zabala da eta ez du ongi zehazten zein den kontzeptua. Beranduago, honela definitu zen turismoa: egoitza kanpo egiten diren desplazamendu motz eta tenporalak eta egonaldi horretan egindako jarduerak helmuga herrian (Burkart eta Medlik, 1981).

Baina Mathienson eta Wall-ek aurrekoaren antzeko definizio bat erabili zuten zenbait aldaketa sartuz: turismoa jendearen mugimendu tenporala da, urte bat baino laburragoa, egoitza eta

² Datosmacro, Expansión egunkariarentzat datuak antolatzen dituen departamentua da. Bertako datuak, INE,

Espainiako Bankua, EPA, INEM eta beste hainbat entitate garrantzitsuetatik lortutakoak dira.

³ OMT, turismoa sustatzea helburu duen nazioarteko erakundea da.

lanpostutik kanpoko egoitzetara egiten da eta egonaldian zehar egindako jarduerak eta turisten beharrak asetzeko sortu diren instalazioek osatzen dute (Mathienson eta Wall, 1982).

Definizio guzti hauen artean, badira zenbait aspektu amankomunak direnak denetan:

- Turisten mugimendu fisiko bat existitzen da, definizioz, egoitza kanpo mugitzen direnak dira.
- Egonaldiak epe zehatz baterako izan behar du, ez iraunkorra.
- Turismoak helmuga herrira egindako bidaia eta bertan egindako jarduerak hartzen ditu kontutan.
- Edozein dela ere bidaiatzeko motibazioa, turismoak bidaiarien beharrak asetzeko produktu eta zerbitzuak eskaintzen ditu (OMT, 1994).

Bestetik, lau elementu bereiziko ditugu jarduera turistikoaren kontzeptuan:

1. Eskaria: kontsumitzaile, ondasun eta zerbitzu turistikoek osatzen dute.
2. Eskaintza: turismoan parte hartzen duten erakunde, produktu eta zerbitzu sorta.
3. Eremu geografikoa: eskaria eta eskaintzaren eta hauen arteko bateratzea ematen den eremu fisikoa da. Bertan, biztanleria egoiliarra kokatzen da, berez ez da elementu turistiko bat. Kohesio eta disgregazio faktore garrantzitsu bat bezala kontsideratzen da, jarduera turistikoa planifikatzeko orduan kontuan hartu den edo ez den, hauen araberakoa izango da.
4. Merkatuko operadoreak: eskaria eta eskaintzaren arteko harremanak errazten dituzten enpresa eta erakundeak dira. Hemen sartuko genituzke turismo agentziak, garraio erregularreko enpresak eta lan profesionalaren bitartez, turismoaren promozioaz edo/eta koordinazioaz arduratzen diren erakunde publiko eta pribatuak (OMT, 1994).

2.2. Garraioa eta turismoaren arteko harremana

Hiistorikoki, turismoa, garraioaren garapenarekin lotuta egon izan da, izan ere, definizioz, turismoak ohizko egoitza kanpo egiten den desplazamendua suposatzen baitu. Burkart eta Medlik-k horrela definitzen dute garraioa: helmuga turistikora iristeko bitartekaria eta baita ere norberaren egoitzan edo helmugan mugitzeko bitartekaria (Burkart eta Medlik, 1981).

Beraz, jatorrizko herritik, helmuga herrira mugitzeko laguntzen du garraioak. Herrialde bat ezingo da garatu modu turistikoan garraio elementurik ez baldin badu. Trenbideen edo autobien diseinuak, aireko edo ureko establezimenduen diseinuak eragina izango du helmuga turistikoetan.

Burkart eta Medlik-en arabera, garraio sistemak hiru zati izango lituzke:

1. Bitartekaria: kontrolaturiko aire bideak, ureko bideak, kanalak, karreterak, trenbideak eta autobideak.
2. Ibilgailua: hegazkinak, itsasontziak, trenak, autobusak eta ibilgailu pribatuak.
3. Terminalak: aireportuak, itsas geltokiak edo portuak, tren estazioak, autobus estazioak, garajeak eta aparkalekuak (OMT, 1994).

Ondoko garraioak bereizi ditzakegu:

1. TAULA: GARRAIO ELEMENTUAK

A) Aire garraioa	<ul style="list-style-type: none"> • Distantzia luzeko aire linea erregularrak izan daitezke eta bidaiariak mugitzen dituen sareak erabiltzen ditu • Bestetik, distantzia ertain eta motzeko aire linea erregularrak izan daitezke ere. Gehienbat negozio eta bestelako aisialdirako bidaietarako erabiltzen dira. • Azkenik, bidaia motz eta luzeetako <i>chárter</i> lineak ditugu. Mota guztietako bidaia turistikoak dira eta batzuetan linea erregularretako konpainia subsidiarioak izaten dira. Oporrak izanik arrazoi nagusia, bidaia laburreko Europako aire trafikoa menperatzen dute.
B) Itsas garraioa	<p><i>Ferriek</i> itsas bideetako sare erregular eta motzetan jarduten dute. Autoak, autobusak eta kamioiak garraiatzeko daude diseinatuta batez ere.</p> <p><i>Chárter</i> kruzeroak <i>resorts</i> bezala erabiltzen dira, EEUU-tan merkatu oso garrantzitsua dira.</p>
C) Trena	<p>Honen erabilera turistikoa batik bat mota guztietako hiriarteko bidaien zerbitzu erregularra eskaintzea da.</p>
D) Autobusa	<p>Hiriarteko zerbitzuetara lotua dago batik bat eta bidai ez profesionaletarako erabili ohi da. Autobus <i>chárter</i> edo alokaturiko autobusak autokarren <i>tourrak</i> ditugu baita ere eta bidaia luzeak egiten ditu <i>resorts</i>-etara iristeko. Txangoak egiteko ere asko erabiltzen dira.</p>
E) Ibilgailu pribatua	<p>Nazio mailako turismoaren menperatzaileak dira, egun bateko bisitak edo txangoak eta Europa kontinentalean bidaia internazionalak egiteko. Alokaturiko autoek, ordeko ibilgailu pribatuaren papera hartzen dute.</p>
F) Autokarrak	<p>Bira orokorrak egiteko hiri turistikoetan erabiltzen dira.</p>

Iturria: OMT, 2005 informaziotik abiatuta autoreak eginiko taula.

Garraio mota bat aukeratzeko orduan zenbait faktorek eragingo dute: bidaiatzeko denbora posiblea, zenbateko distantzia egiteko prest gauden, erosotasunari eta segurtasunari ematen zaion garrantzia, aukeratu daitezkeen zerbitzu ezberdinen prezioak, etab. Erabakia bidaiari bakoitzaren ezaugarrien arabera aldatuko da.

Honez gain, garraio mota bakoitzak distantzia jakin batzuk egiten ditu beraien eraginkortasuna eta lehiakortasuna maximo egiten dituelarik:

- Autoak eta autobusak: 1.000 km
- Trenak: 200 eta 500 km artean
- Itsasontziak: 300 km
- Hegazkinak: 1.000 km baino gehiago.

Garraio bakoitza barrutik aztertzen badugu:

- Errepideko garraioa:
 - Autoa: abantaila garrantzitsuak eskaintzen ditu eta hortaz, garraio garrantzitsuenen artean kokatzen da. Malgutasun handia ematen du (irteera eta iritsiera orduak aukeratzea, nahi denean gelditzeko aukera, maleta asko eramateko aukera...), ekonomikoa da (beste garraio batzuekin konparatuz merkea da) eta berrikuntzak lortzen dira segurtasunean, kontsumoan eta errepideen azpiegituretan.
 - Autobusa: distantzia luzeko desplazamenduak egiteko garraio garrantzitsuak bihurtu dira. Hauen kostea autoen kostea baino baxuagoa da, bidaiari asko sartzen baitira.
- Trenak: garai batean oso erabilgarria izan zen baina autoa eta batez ere hegazkinaren agerpenekin behera egin zuen honen erabilerak. Hala ere, Europan, bere populazio handiagatik eta hirien arteko distantzia hurbilagatik oraindik nahiko erabilia izaten jarraitzen du. Gainera arlo honetan egindako aurrerapen teknologikoei esker, abiadura handia hartzen eta bidaiaren iraupena mozten lagundu dute, garraio honen erabilera sustatuz.
Hala ere, autoak eta hegazkinak bidaiariak aukeraturiko garraio elementu garrantzitsuenak direla esan beharra dago.
- Itsas garraioa: garai batean Amerika eta Europa kontinenteak elkartzeko garraio garrantzitsuena izan zen. Baina trenarekin bezalaxe, hegazkina agertu zenean honen merkatuak behera egin zuen nabarmenki. Gaur egun, garraio mota hau distantzia motzeko bidaiak egiteko erabiltzen da gehienbat, batez ere irlen arteko bidaietarako *ferrien* bitartez.
Bestetik, itsas garraioa, bidaia helmuga izan daiteke eta ez soilik bidaiatu ahal izateko garraibide bat. Honako hau kruzeroen kasua izango litzateke, bidaia mota honen aukera handitzen ari delarik nabarmenki.
- Aire garraioa: aurretik aipatu bezala, hegazkina, autoarekin batera garraibide garrantzitsuena eta gehien erabiltzen dena da. OMTren arabera, turismoaren gastu totalaren $\frac{1}{4}$ hegazkineko desplazamenduak sortutako gastuak hartzen du (OMT, 2005).

2.3. Turismo motak

Gaur egun zenbait turismo motekin aurkitu gaitezke gure artean, baina horien artean badira batzuk besteak baino ezagunagoak direnak, hau da, turista gehiago erakartzen dituzten turismo motak.

Turismo mota nagusia kostako turismoa da, turismo mota hau eguzkiari eta hondartzari loturiko jarduerak osatzen dute, eta baita uretako kirolek ere. Eguzkiak eta itsasoak ematen dituen baliabideak ustiatzen ditu. Orokorrean turista gehienak kostaren aitzakia izaten dute bidaiatzeko helmuga bat aukeratzeko orduan, deskantsatzeko eta deskonektatzeko asmoarekin.

Bigarren postuan mendiko turismoa edukiko genuke eta turismo mota honetan bi turismo bereizi daitezke. Alde batetik turismo tradizionala bezala kalifikatu daitekeena, ibilbideak eginez mendian barrena, mendiko eremu ekologiko eta paisaiak ustiatzen dituelarik. Eta bestetik, neguko edo eskiatzeko turismoa edukiko genuke, elurrarekin loturiko turismoa alegia. Turismo mota honek gero eta bisitari gehiago ari ditu jasotzen, turismo mota guztien artean bigarren postuan kokatzen duelarik.

Gainerako turismoak sailkatzerako orduan zaila da esatea zeinek duen garrantzi handiagoa eta zeinek gutxiago. Hortaz inolako ordenarik jarraitu gabe sailkatuak izango dira.

Turismo kulturala dugu beste turismo mota ezagun bat, turistak eskuarki hiri handietako alde zaharretako monumentuak dauden gunetan eta dendak dauden lekuetan ibiltzen dira. Kulturaren inguruko enpresen garapenak eta hazkunde ekonomikoak turismo forma berriak bultzatu ditu.

Negoio turismoari dagokionez, hiriburuetan eta metropoli handietan ematen da turismo mota da hau, izan ere azpiegitura eta komunikazio onak behar baitira. Biltzarrak, bilkurak, jaialdiak eta azokak egiten dira eta bisitari asko biltzen dituzte.

Ondotik, gerora sakonago aztertuko dugun landa turismoa ere beste turismo mota ospetsu bat dugu. Normalean bisitariak hiri handiko tentsiotik eta ohiko egoeratik lasaitzeko leku lasaietara mugitzen dira, landa eremuetara alegia.

Garrantzi txikiago batekin, badago beste turismo bat ere, osasuna zaintzeko turismo bezala ezagutuko duguna, turismo arlo hau XIX. mendean garatu zen eta gaur egun, lasaitzeko beharrak eta adinekoentzako oporren sustapenak indartu egin du. Bainuetxe eta etxe termalak dira ezagunenak.

Hasierako turismo motek duten arrakasta ez bezala, osasuna zaintzeko turismoaren antzera, erlijio turismoa izango genuke, zenbait turista arrazoi erlijiosoengatik mugitzen dira munduan zehar, turista mota hauen helmuga nagusienak Meka, Erroma edo Jerusalem izan ohi dira.


Azkenik, badira beste turismo mota batzuk garrantzi txikia izanik, horien artean; abentura turismoa, termalismoa etab. (Geografia eta Historia, 2019).

3. TURISMOAREN EGOERA MUNDU MAILAN

Turismoa bere konplexutasunagatik nabarmentzen da, ez bakarrik dituen elementu guztiengatik, baizik eta honen garapenean parte hartzen duten sektore guztiengatik alegia. Munduko turismoak zer nolako eragina duen ikusiko dugu ondoren, modu orokor batean turismoak zer eragin izaten ari duen ikusi ahal izateko, zeintzuk diren kontinente bisitatuenak, zenbateko diru-sarrerak ematen diren etab.

3.1. Iritsierak eta diru sarrerak


1.GRAFIKOA: NAZIOARTEKO TURISMOAREN IRITSIERA KUOTAK 2017. URTEAN



Iturria: OMT, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Grafiko honetan ikusi dezakegu Europa dela nagusi iritsiera kuotari dagokionez, erdia baino gehiago hartzen duelarik (%51). Ondotik, %24arekin Asia eta Pazifikoa bigarren lekuan egongo lirateke, %16arekin Amerika eta azkenik balio txikiarekin Afrika eta Ekialde Ertaina. Turisten iritsiera guztira 1326 milioikoa izan zen 2017.urtean.

2.GRAFIKOA: NAZIOARTEKO TURISMOAREN DIRU SARRERA KUOTAK (%) 2017. URTEAN




Iturria: OMT, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Diru sarrerei dagokionez, kasu honetan ere aurreko ordena berdina jarraitzen dute. Europak jasoko luke diru sarrera handiena %39 batekin eta ondotik Asia eta Pazifikoa %29arekin. Ehuneko antzekoarekin, %24arekin alegia, Amerika egongo litzateke eta azkenik Ekialde Ertaina eta Afrika balio txikiekin.

Esan dezakegu mundu mailan Europa nagusi dela diferentzia esanguratsu batekin beste herrialdeekiko. Iritsiera handiena izanik diru-sarrera handienak lortzen ditu, elementu bat bestearekin loturik baitago. Diru sarrerak guztira 1,31 bilioi \$koak izan ziren 2017.urtean.

1.IRUDIA: IRITSIERAK ETA DIRU-SARRERAK




Iturria: OMT, 2017

Aurreko bi grafikoetan azertu duguna argiago ikusteko, irudi honetan argi eta garbi ikusi dezakegu Europa nagusi dela bai turisten iritsieratan eta bai diru-sarreretan. Aurretik esan bezala Asia eta Pazifikoa daude bigarren postuan, Amerika hirugarrenean eta Afrika eta Ekialde Ertainak jarraitzen diote. Esan daiteke turisten herrialde gustukoena bidaiatzerako orduan edo helmuga bat aukeratzeko orduan Europa dela.

3.2. Garraiobideak eta bidaiatzeko arrazoiak

3.GRAFIKOA: GARRAIOBIDEEN ERABILERA (%)



Iturria: OMT, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Garraiobideetan hegazkinak duela erabilpen handiena ondoriozta dezakegu, %57 batekin, ibilgailuek jarraitzen dute %37arekn eta azkenik garrantzi nahiko txikiarekin itsas garraioak eta

trenak, %4 eta %2rekin hurrenez hurren. Aurretik garraioak aztertu ditugunean hegazkinek abantaila asko dituztela ohartu gara: abiadura, distantzia luzeetara iristeko aukera etab. Ibilgailuak ordea nagusi dira nazioarteko bidaietan, hortaz hauen ehunekoa ere ez da txikia eta bukatzeko, gainerako garraio bideek erabilera txikiagoa daukate motelagoak eta deserosoagoak izan daitezkeelako.

4.GRAFIKOA: BISITAREN ARRAZOIA (%)




Iturria: OMT, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Bidaiatzeko arrazoi nagusia aisia dela erran daiteke izan ere arrazoi guztien %54a hartzen baitu, erdia baino gehiago. Ondotik egongo liraketen arrazoi nagusienak lagunei edo senideei eginiko bisitak, osasuna eta erlijioagatik izango ziren %27 batekin. Garrantzi txikiagoarekin negozioengatik egiten diren bidaiak edukiko genituzke %13arekin eta gelditzen den ehunekoa, %6 alegia beste arrazoiengatik izango zen.

3.3. Munduko herrialdeen iritsieren eta diru sarrereren ranking-a


5.GRAFIKOA: NAZIOARTEKO TURISTEN IRITSIERA HERRIALDE EZBERDINETAN 2017. URTEAN (milioiak)



Iturria: OMT, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Munduko turismoarekin jarraiki, 2017.urtean munduko herrialde bisitatuenak zeintzuk izan diren erreparatu dezakegu. Aurretik esan bezala Europa da nagusi bidaiarien iritsieratan eta goiko grafikoan esandakoa baieztatu dezakegu, Frantzia eta Espainia direlarik herrialde bisitatuenak. Diferentzia gutxirekin Estatu Batuak dauzkagu hirugarren postuan eta honen ondotik Txina, azken bi hauek potentzia handiko herrialdeak izanik. Grafiko honetan dauzkagun hamar herrialde hauetatik sei Europakoak dira, ondorioz aurretik ikusitakoak zentzua duela esan genezake.

6.GRAFIKOA: NAZIOARTEKO TURISMOAREN DIRU SARRERAK HERRIALDE EZBERDINETAN 2017. URTEAN (mila milioi &)



Iturria: OMT, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.


Diru-sarreraren grafiko honi dagokionez, ez da iritsierekin gertatzen den berdina pasatzen, izan ere diferentzia oso esanguratsu batekin Estatu Batuak daudelako lehenengo postuan, herrialde honek turismotik jasotzen dituen diru-sarrerak oso handiak dira beraz. Gainontzeko herrialdeen artean ez dago hainbesteko diferentziarik, eta ranking honetan dauden hamar herrialde hauek 5.grafikoan daudenen berdintsuak dira, horien artean; Espainia, Frantzia, Erresuma Batua, Italia eta Alemania. Kasu honetan ere ranking-eko lehenengo hamar herrialdeetatik bost Europakoak dira (arrekoan baino bat gutxiago bakarrik).

3.4.Turismoa eskualde desberdinetan⁴

Munduko turismo aztertzeke, kontinente ezberdinetan zer nolako iritsierak eta diru sarrerak izan diren ikusiko dugu ondorengo irudi hauetan. Honez gain, kontinente bakoitzaren barruan eskualde ezberdinek ere zer nolako egoera duten ikusi ahal izango da.

⁴ Munduko eskualde ezberdinak aztertzeke OMTk aztertu dituen eskualdeak aztertu dira. Europa, Asia eta Pazifikoa, Amerika, Afrika eta Ekialde Ertaina.

2.IRUDIA: EUROPA: IRITSIERAK ETA DIRU SARRERAK



Iturria: OMT, 2017

Hegoaldeko Mediterraneoari esker hazkunde izugarria izaten ari du turismoak. 2017. urtean ere hazkunda izan du eta zortzi urtez jarraian hazkunde iraunkorra izaten ari du Europak, munduko eskualde bisitatuena izanik. Iritsierak %8 igo ziren urte horretan, 2016an baino 52 milioi gehiago alegia eta iritsieren hazkundeagatik diru sarrerek %8an egin zuten gora baita ere.

Europako merkatu jaulkitzaile ia guztietan bidaien eskaera handiagoa izan zen, eskualde barruan zein kanpoan eta ondorioz, turismo hartzailearen hazkunda eragin du Europa osoan. Zehazki, erusiar merkatu igortzailearen errekupeazioak mesede egin dio eskualde osoari.


Azpieskualdeei dagokionez, Hegoaldeko Europak eta Mediterraneoak, iritsiera eta diru sarreretan emaitza hoberenak eman zituen, Turkiaren susperraldiak eta beste helmuga tradizional batzuk bultzatuta. Italiak eta Espainiak 6 milioiko hazkunda erregistratu zuten helmugetan.

Mendebaldeko Europan, Frantzia da helmuga nagusia, aurreko urteetan izandako segurtasun gertakarietatik errekupeatu ondoren.

Erdialdeko eta Ekialdeko Europako helmugek ere hazkunde garrantzitsua izan zuten, salbuespen gutxirekin, bidaien eskaera handitzeagatik Errusian.

Ipar Europako helmuga guztiek hazkunde nabarmena eduki zuten, Erresuma Batuak barne, hau izanik azpieskualde honetako helmuga garrantzitsua, Londreseko eta Manchesterreko eraso terroristak egon izan arren. Libra esterlinaren balio-galerak emaitza honetan eragin zuen, eskuragarriagoa den helmuga bat bihurtuz (OMT, 2017).

3.IRUDIA: ASIA ETA PAZIFIKOA: IRITSIERAK ETA DIRU SARRERAK



Iturria: OMT, 2017

Asia eta Pazifikoko hazkundeak (+%6) eskualde barruko eskari sendoa islatzen du, bereziki Txinatik, Koreako Errepublikatik eta Australiatik.

Ekonomia berriko merkatuen eresketa indarraren gorakadak, aireko konexio hobeak, bidaia eskuragarriagoak eta bisak errazago egiteko tramitazioak turismoa sustatzen dute eskualdearen barrualdean zein kanpoaldean.


Asiako ipar-ekialdeko emaitzak (Asiako azpieskualde handiena), positiboak izan ziren eta helmuga askotan hazkunde sendoak erregistratu ziren, batez ere Japonian, seigarren urtez jarraian. Koreako errepublikak aldiz beheraka izan zuen, Txinatik zeuden etorrerak behera egin baitzuten.

Asiako hego-ekialdeari dagokionez, azpieskualde guztietatik emaitza hoberenak eduki zituen, bederatzi milioi turista gehiago lortuz 2017an. Hazkunde hau ipar-ekialdeko merkatuen eskari handiagatik eman zen. Vietnam izan zen etorrera gehien izan zituen helmuga eta Tailandiak hiru milioi bisitari gehiago lortu zituen, azpieskualdeko helmuga turistikoena izanik. Emaitza positibo honen arrazoiak batez ere bisak egiteko erraztasunak eta aire garraioen harreman onak izan ziren.

Asia Hegoaldeko emaitza onak Indiari esker izan ziren, azpieskualdeko helmuga turistikoena izanik. Hazkunde hau, mendebaldeko merkatu igortzaileen eskariaren eta bisak egiteko erraztasunaren bidez eman zen.

Azkenik, Ozeaniaren kasuan, hazkunde nabarmena islatzen da Australian eta Zelanda Berrian. Hazkunde hau, Asiako ipar-ekialdeko, Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko merkatu igortzaileen eskariak sostengatu dute (OMT, 2017).

4.IRUDIA: AMERIKA: IRITSIERAK ETA DIRU SARRERAK



Iturria: OMT, 2017


Amerikako iritsierak %5an handitu direla kalkulatu da eta diru sarrerek berriz hazkunde txikiagoa izan dute. Hego Amerikan, 2017an hazkundearen bultzadak jarraitu zuen. Turismo sendo batek Argentinan eta Brasileko gorakadarekin batera, hazkundea bultzatu zuten inguruko helmugetan. Txile, Kolonia, Ekuador, Paraguay eta Uruguayk bi zifrako hazkundeak erregistratu zituen iritsieretan.

Erdialdeko Amerikari dagokionez, ia helmuga guztietan emaitza positiboak lortu zituzten, Nikaragua liderra izanik, eskualdeko merkatuen eskariari esker.

Bestetik, Ipar Amerikan, iritsiera internazionalen eta eskualdeko diru sarreren bi heren hartzen dituelarik, 2017. urtean, hazkunde positiboak eduki zituzten iritsierek, baina diru sarrerek hazkunde motelagoa eduki zuten.

Azkenik, Karibean, emaitza anitzak eman ziren, hazkunde sendo bat izanik helmuga batzuetan, esaterako Dominikar Errepublikan eta Jamaikan. Baina bestetik, beste helmuga batzuetan, abuztu erdialdetik iraila arte, irla batzuetan izandako urakanen ondorioz beherakadak eman ziren (OMT, 2017).

5. IRUDIA: AFRIKA: IRITSIERAK ETA DIRU SARRERAK




Iturria: OMT, 2017

Turista internazionalen iritsierak Afrikara %9an hazi zirela estimatzen da, diru sarrera erritmo berdinean hazi zirelarik (%8).

Emaitza hauek adoretuak ikusi ziren Afrika iparraldeko susperraldiagatik eta datuak eman zituzten helmuga gehienetan emandako hazkunde sendoagatik. Tunezek hazkunde handia esperimentatzen jarraitu zuen 2017an, %23ko hazkundea lorturik iritsieratan eta Marokok ere emaitza hobeak eduki zituen urtebete pasaturik eskari txikiagoarekin. Europar merkatuaren eskari handiagoak eta ingurune egonkorak emaitza hauek lortzen lagundu zuen azpieskualde honetan.

Saharaz hegoaldeko Afrikan, Kenia, Cote d'Ivoire, Maurizio eta Zimbaue bezalako helmuga handietan portaera positiboa mantendu zuten. Aldiz, azpieskualdeko helmuga garrantzitsuenak, Hegoafrikak alegia, hazkunde baxuagoa izan zuen iritsieratan, hala ere, diru sarreretan hazkunde esanguratsua eduki zuen. Irltako helmugek, esaterako, Seychelles, Cabo Verde eta Reunioneek, bi zifra hazkunde izan zuten iritsieratan aire komunikabide hobeei esker (OMT, 2017).

6.IRUDIA: EKIALDE ERTAINA: IRITSIERAK ETA DIRU SARRERAK



Iturria: OMT, 2017

Eskualde honek, berreskurapen seinale batzuk erakutsi zituen 2017an, diru sarreren %13ko hazkunde batekin nazioarteko turismoagatik.

Emaitzak nahiko sakabanatuak izan ziren helmuga ezberdinetan, errebote garrantzitsuak emanik leku batzuetan, hazkunde iraunkorra beste leku batzuetan eta leku gutxi batzuetan beherakadak egonik.

Egipto gailendu zen iritsieratan emandako hazkundeetan, termino absolututan zein errealetan, errebote esanguratsua emanik aurreko urteekiko. Mendebaldeko Europako merkatu tradizionalen bisitari kopuruak gora egin zuen, eta baita Europa Erdialdeko eta Ekialdeko, Ekialde Ertaineko eta Asiako sorten ari diren merkatuetatik (OMT, 2017).


3.5.Turismo igorlea

Nazioarteko bidaien ehuneko handiena, bidaiarien eskualdearen barruan bertan ematen dira (eskualde arteko turismoa).

Tradizionalki, Ekialdeko eta Erdialdeko Europako, Asiako eta Pazifikoko ekonomia aurreratuek, munduko nazioarteko merkatuko turismo igorlerik nagusienak izan dira.

Hala ere, Asiako, Ekialdeko eta Europa Erdialdeko, Ekialde Ertaineko, Afrikako eta Latinoamerikako garapenean dauden ekonomiek, hazkunde handiago bat erregistratu dute azken urteetan, errenta erabilgarriaren hazkunderari esker.

7.GRAFIKOA: TURISMO IGORLEA, JATORRIAREN ARABERAKO KUOTA (%)




Iturria: OMT, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Europako eskualdeak turismo igortzaile nagusiena izaten jarraitzen du mundu osoan, nazioarteko iritsieren ia erdiaren iturri da mundu mailan.

Bitartean, Asia eta Pazifikoko kuotak hazi egin dira oso azkar eta gaur egun, bidaien laurdenak helmuga hauetan dute jatorria.

8.GRAFIKOA: GASTUAREN ARABERAKO MERKATU IGORLE GARRANTZITSUENAK 2017. URTEAN (mila milioi \$)



Iturria: OMT, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Grafiko honen bidez gastuaren arabera zein diren merkatu igorle garrantzitsuenak ikusi dezakegu. Lehengo postuan Txina daukagu, diferentzia handia dauka besteekiko 260 mila milioi

Şeko gastua egiten duenak. Ondotik ia erdiarekin Estatu Batuak egongo lirakeke 140 mila milioi Şekin. Bi herrialde hauek dira merkatu igorle garrantzitsuenak mundu mailan, honen arrazoa hainbat faktorek eragin dezakete: herrialdeen garapena ekonomikoa, garapen teknologikoa, populazioa, azalera etab. Bi herrialde hauen atzetik Europako zenbait ditugu: Alemania, Erresuma Batua eta Frantzia; hauek ere herrialde garatuak direlako ditugu lista honen barruan postu altu batean.


4. TURISMOAREN EGOERA EUROPAR BATASUNEAN

Turismoak paper oso garrantzitsua jokatzen du Europar Batasunean, izan ere, potentzia ekonomiko oso garrantzitsua da eta lanpostu asko sortzen ditu. Mundu mailako turismoa aztertu dugunean ikusi dugu Europa nagusi dela kontinente guztien artean eta bertako herrialdeak oso bisitatuak direla, izan ere, lehenengo hamar herrialde bisitatuenean sei Europakoak izan baitira 2017.urtean, bost Europar Batasunekoak izanik.

Europako turismoa sakondu ahal izateko datu estadisitiko esanguratsuenak aipatuko dira 2017ko datuak oinarritzat hartuz:

4.1. Iritsierak eta ostatuak

9.GRAFIKOA: TURISTA KOPURUA EUROPAN HERRIALDE EZBERDINETAN (milioitan)



Iturria: Wikipedia, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Grafiko honetan Europako herrialdeek jasotzen dituzten bidaiari kopuruak ikusi dezakegu, gehienetik gutxienera ordenatuz. Frantzia da nagusi baina oso hurbiletik Espainiak jarraitzen dio. Hirugarren postuan Italia egongo litzateke eta hortik aurrera marjina handiagoa izanik Europako gainerako herrialdeak edukiko genituzke. Azalera handiko herrialdeak ditugu nagusi eta azalera txikikoak berriz atzeragoko postuetan daude kokaturik. Azalaren kontu honek zer ikusia izan dezake bidaiari kopuruari dagokionez, izan ere, hain handiak izanta leku turistiko asko dituztelako bertan. Honez gain, zenbait herrialdetan badira monumentu edo hiri batzuk oso

aspalditik ezagunak izan direnak (Paris, Venezia, Londres, Berlin etab.), hortaz, hauek betidanik bidaiari finkoak eduki dituzte. Beraz, Espainia bigarren postu horretan egoteak ez bakarrik Europa mailan, baizik eta mundu mailan ere, oso arto egoteko arrazoi bat izango litzateke.

2.TAULA: OSTATU TURISTIKOEN ESTABLEZIMENDUAK

	ESTABLEZIMENDU KOPURUA (UNITATEAK)	PLAZA KOPURUA (MILAKOTAN)	EGOILIARRAK EZ DIRENEK PASATAKO GAU KOPURUA (MILIOI)
EB	608.400	31.319	2.873,0
Belgika	8.210	368	36,9
Bulgaria	3.331	328	25,2
Txekiar Errepublika	9.168	717	49,7
Dinamarka	1.136	418	31,9
Alemania	50.152	3.336	388,9
Estonia	1.454	59	6,2
Irlanda	3.145	200	31,1
Grezia	34.665	1.241	101,9
Espainia	48.701	3.516	455
Frantzia	30.047	3.134	404,8
Kroazia	83.233	987	77,8
Italia	178.449	4.943	402,9
Txipre	785	84	15,3
Letonia	759	47	4,4
Lituania	2.686	77	7
Luxenburgo	432	64	3
Hungria	4.436	446	29,3
Malta	184	43	9
Holanda	8.950	1.370	106,2
Austria	20.619	1.001	118
Polonia	10.509	749	79,4
Portugal	4.171	568	66
Rumania	7.028	326	25,3
Esloboania	3.260	113	11,1
Eslobakia	2.755	184	13,9
Finlandia	1.368	253	20,3
Suezia	4.187	802	57,2
Erresuma Batua	84.580	3.944	295,6

Iturria: Eurostat⁵, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko taula.


Azpiko taulan erreparatuz gero, EBko plaza gehienak Italian oinarritzen direla ohartu gaitezke. 2017. urtean, 608.400 establezimentu bete ziren ostatu turistikoetan EBn eta totalen 31 milioi plaza eskaini ziren. Plaza guztien portzentai handi bat bi estatutan oinarritu da gehienbat, Italian (4,9 milioi) eta Erresuma batuan (3,9 milioi), Espainiak, Frantziak eta Alemaiak jarraiturik. Establezimentu kopuruari dagokionez, Italia dugu nagusi baita ere, Erresuma Batuak eta Kroaziak jarraitzen diotelarik. Esan daiteke establezimentu kopurua ez datorrela plaza kopuruekin bat zenbait herrialdetan. Kroazia esaterako establezimentuei dagokionez, bigarren postuan kokatu dugu baina plaza kopuruari dakionez ordea, azkenetariko postuetan egongo

⁵ Eurostat Europar Batasuneko erakundeei informazio estatistikoak emateaz arduratzen da.

litzateke. Bestetik, egoiliarra izan gabe herrialde hauetan pasatako gau kopurua aztertuz gero, Espainia dugu buru, Frantzia eta Italiak jarraitzen diotelerik, hauek biak kopuru oso antzekoarekin (Eurostat, 2017).

4.2. Gaualdiak⁶

10.GRAFIKOA: OSTATU TURISTIKOETAKO GAUALDIEK IZANDAKO JOERAK EBn (2005-2017, 2005.urtea oinarritzat hartuz)



IGAROTAKO GAUALDIAK TOTALEAN

EGOILIARRAK EZ DIRENEN GAUALDIAK

EGOILIARREN GAUALDIAK


Iturria: Eurostat, 2017.

Azken urte hauetan, establezimentu mota honek hazkundeak izateko ohitura hartu du. Hala ere, 2008 eta 2009. urteeetan, beherakada egon zela aipatu beharra dago, krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioz.

Ostatuen joera 2010.urtetik aurrera hazkorra izaten ari da Europa mailan eta nabari da 2008ko krisiak gogor jo zuela baina hortik aurrera igotzen doala. EBko gaualdien kopuruak %0.6 egin zuen behera 2008an eta %2a 2009an. Egoiliarrak ez direnen gaualdiak izaten ari du hazkunde handiena gaualdi totalarekiko eta egoiliarrak direnekin konparatuz, baina krisi garaian eragin handiena honek jasan zuela ere esan beharra dago. Egoiliarrak direnen gaualdiek ere hazkundeak izaten ari dute baina motelago ordea.

⁶ Gaualdiak, turistek ostatueta pasatzen dituzten gau kopuruak dira.

11.GRAFIKOA: HELMUGA TURISTIKOAK: OSTATU TURISTIKOETAN EMANDAKO GAUALDIAK, 2017 (HERRIALDE BAKOITZEAN EMANDAKO EGOILIARRAK EZ DIRENEN GAUALDIAK MILIOITAN)




Iturria: Eurostat, 2017

Aurretik esan bezala, egoiliarak ez direnen gaudietan erdia baino gehiagok (%55,7) Espainian, Italian, Frantzia eta Erresuma Batuan izan zuten helmuga.

2017. urtean, Espainia izan zen helmuga turistiko handiena EBn egoiliarak ez direnentzat (beste herrialdeetatik datozenak). 295 milioi gaudi lortu zituen alojamentu turistikoetan %22,2 EBko gutzikotik. 295 milioi hauetako gaudien hamarretik zazpi Espainiako hiru autonomia erkidegotan oinarritu ziren: Kanariak, Balearrak eta Katalunia.

EBko eskalan, egoiliarak ez direnentzat helmuga garrantzitsuenak, Espainia, Italia (199 milioi pernoktazio), Frantzia (124 milioi pernoktazio) eta Erresuma Batua (119 milioi pernoktazio) izan ziren. Elkarrekin EBko egoiliarak ez direnenen turisten artean erdia baino gehiago (%55,7) hartzen dute. Ohikotasun gutxiagoko helmugak Luxenburgo eta Letonia izan ziren; helmuga hauek turista gutxiago izan dituztela esaterakoan kontuan izan behar da herrialde hauen tamaina ez dela aurrekoena bezain handia (Eurostat, 2017).


12. GRAFIKOA: JATORRIZKO HERRIALDETIK KANPO BIDAIARIEN GAUALDIEN PORTZENTAIA OSTATU TURISTIKOETAN EBn



Iturria: Eurostat, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko taula.

Grafiko honen bidez egoiliarrak ez direnek pasatzen dituzten gaualdien portzentaiak ikusi ahal ditugu. Aurreko grafikoan ikusi bezala, Espainia da nagusi %22arekin, Italiak jarraitzen diolarik %15 batekin. Lehengo lau herrialdeak batzen baditugu (Espainia, Italia, Frantzia eta Erresuma Batua) gaualdien erdia baino gehiago hauetan ematen dela ondorioztatuko dugu.


13.GRAFIKOA: TURISMO INTENTSITATEA (EGOILIARREN ETA EZ EGOILIARREN GAUALDIAK OSTATU TURISTIKOETAN BIZTANLEKO)



Iturria: Eurostat, 2017

Gaualdi kopuruen ikuspegi orokorra lortu dateke (egoiliarrena eta ez egoiliarrena), herrialdearen tamaina populazioaren arabera alderatuz, intentsitate turistikoaren adierazle bat eskainiz. Neurri adierazle honen bidez, 2017an, mediterraneoko Malta, Txipre eta Kroazia izan ziren helmuga garrantzitsuenak. Bestetik, Austria, Islandia eta Montenegro ere oso helmuga garrantzitsuak izan ziren intentsitate turistikoa hartzen badugu kontutan (Eurostat, 2017).

14.GRAFIKOA: JARDUERA TURISTIKOETAN PARTE HARTZEN DUEN BIZTANLERIAREN EHUNEKOA (15 URTETIK AURRERAGOKOAK)



Iturria: Eurostat, 2017


Bestalde, EBko biztaleen %62ak turismo jardueratan parte hartu zuen, 1200 milioi bidaietan. 15 urte edo gehiago duten populazioaren %62,10ak, arrazoi pertsonalengatik jarduera turistiko batean parte hartu zutela kalkulatu da 2017.urtean, hau da, urtean zehar gutxienez bidaia bat egin zuten arrazoi pertsonalak direla eta. Diferentzia handiak daude EBko herrialdeen artean, izan ere, partaidetza tasa hau %23,7 izan zen Errumanian eta %88,9 Finlandian.

2017.urtean, EBko egoiliarrek 1200 milioi bidaia egin zituztela kalkulatu da, arrazoi pertsonalengatik edo negozio arrazoiengatik izanik. Bidaia motzek, gualdi batetik hirura artean, bidaia guztien artean gehiangoa hartu zuten (%58). Bidaia motz hauen hiru laurdena (%74,8), barnealdean egindako bidaiak izan ziren eta gainerakoa atzerrira.

EBko zenbait herrialdeetan, bidaia turistikoaren erdia baino gehiago atzerrira izan ziren; Luxenburgoko, Belgikako, Malta eta Esloveniaren kasuan. Aldiz, Errumanian eta Espainian, bidaiarien %10a baino gutxiagok bidaiatu zuten atzerrira. Zifra hauek herrialdearen tamainagatik eta beraien kokapen geografikoagatik ematen dira (herrialde txikietan bizi diren egoiliarrek eta iparraldean kokaturikoek atzerrira bidaiatzeko ohitura handiagoa daukate).

EBko herritarrek udan bidaiatzea lehenesten dutela aitortu zuten, uztaila eta abuztuan batez ere (Eurostat, 2017).


15.GRAFIKOA: ATZERRIRA EGINDAKO BIDAIETAN EMANDAKO GAUALDIEN PORTZENTAIA, TURISTA EGOILIARRAREN HERRIAREKIKO



Iturria: Eurostat, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko taula.

Alemania eta Erresuma Batuko egoiliarrek atzerrian egindako gaualdien erdia baino gehiago irudikatu zuten EBko egoiliar guztiak kontutan harturik. 2017.urtean, EBko egoiliarrek atzerrian 2600 milioi gaualdi egin zituztela kalkulatu da. Alemaniako egoiliarrek 771 milioi gaualdi pasa zituzten beren herrialdetik kanpo eta Erresuma Batuan 564 milioi egoiliarrek (2013ko datua). Bi herrialde hauetako partaideek, atzerrian egindako gaualdien erdia baino gehiago hartzen dute (%51,3) egoiliar bakoitzeko.

16.GRAFIKOA: JATORRIZKO HERRIALDEAK ATZERRIKO BIDAIA TURISTIKOEI DAGOKIONEZ
(GAUALDIEN BATEZ BESTEKOA ATZERRIAN 15 URTETIK AURRERAGOKO BIZTANLERIAREKIKO)



Iturria: Eurostat, 2017

Biztaleriaren arabera herrialdearen tamaina hartzen bada kontutan, Luxenburgoko egoiliarrek izan ziren atzerrian gaualdi gehien pasatu zutenak biztaleriarekiko EBn (22,3ko batez bestekoa 2017.urtean), Txiprek jarraitzen diolarik (18,7 gaualdi). Beste muturrean, Errumania, Bulgaria eta Greziako egoiliarrek, batez bestez, gau bat baino gutxiago pasatu zuten atzerrian (Eurostat, 2017).

Eurostateko datuetan begiratu, Alemanak izan ziren nazioarteko bidaia turistikoaren kontsumitzaile handienak. Nazioarteko turismoaren garrantzi ekonomikoa neurtzeko, nazioarteko turismoaren diru sarreraren eta BPGaren bidez neurtu dezakegu; datu hauek ordainketen balantzean lortutako estatistiketatik datoz eta hauek negozio bidaiak eta aisialdirako bidaiak hartzen dituzte barnean. 2017. urtean, turismoaren eragindako diru sarreraren eta BPGaren koefiziente handiena EBko estatuen artean Kroaziarena izan zen (%18,6), ondotik Txiprerena (%13,7) eta hirugarren Maltarena (%13,2). Termino absolutuetan, nazioarteko turismoaren eragindako diru sarreraren handienak Espainiak izan zituen (54.700 milioi euro), Frantzia (38.300 milioi euro) eta Erresuma Batuak (37.400 milioi euro), Italiak (36.400 milioi euro) eta Alemaniak jarraiturik (33.800 milioi euro).


Alemania izan zen nazioarteko turismoaren gastu gehien erregistratu zuen herrialdea, 72.100 milioi euro. Erresuma Batuak (58.400 milioi euro) eta Frantziak (36.500 milioi euro) jarraitzen diote.

Azkenik, Espainia izan da diru sarrera neto gehien izan duen herrialdea (37.200 milioi euro) eta aldiz Alemaniak defizit handiena erregistratu zuen (-38.300 milioi euro) (Eurostat, 2017).

4.3. Europako kosta turismoa⁷


Europako kosta turismoaren arloan, turistentzat oso helmuga interesgarria izan ohi da bai Europarrentzat eta baita atzerritarrentzat. Kostaldeko estazioen erronka nagusia modu iraunkor batean turismo mota hau sustatzea da eta modu honetan eskualdebiztalerientzat lanpostuak sortzea. Kostako turismoa, turismo mota oso garrantzitsua da lanpostu arloan batez ere gazteentzat.

17.GRAFIKOA: KOSTAKO INDUSTRIAREN BALIO ERANTSI GORDINA EBn 2011. URTEA



Iturria: Comisión Europea, 2011ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoak.

18.GRAFIKOA: LANPOSTUAK KOSTAKO INDUSTRIAN EBn 2011. URTEA



Iturria: Comisión Europea, 2011ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoak.

Europako kostaldeko turismoak 3,2 milioi pertsoneri lanpostua ematen diote eta 183.000 milioi euroko balio erantsi gordina sortzen du, itsas ekonomiaren herena baino gehiago irudikatzen du eta Europako ostaluen %51 itsasoa duten eskualdeetan kontzentratzen da.

⁷ Europako kosta turismoa aztertu ahal izateko aurkitu diren azken datuak 2011.urtekoak izan dira.


5. TURISMOAREN EGOERA ESPAINIAN

Behin munduko eta Europako turismoak aztertu ditugula, gutxinaka nire zonaldera hurbiltzen joateko, Espainiako turismoa aztertzeari ekingo zaio zati honetan, zer nolako eragina jasotzen ari duen zenbait aspektutan urte hauetan.

5.1. Turismoaren egoera espainian gaur egun

XX. mendearen bukaerako Espainiar estatuko turismo eskaintza mota handiena “hondartza eta eguzki” deituriko izan da. Hitz honek dioten moduan, multzo horretan, Mediterraneoko kostarekin lotzen ditugun opor motak sartuko lirateke gehien bat. Hala ere, beste zenbait opor mota ezagutzen dira mundu guztian zehar.

19.GRAFIKOA: 2017ko ESPAINIAKO OSTATU MOTA EZBERDINETARA JOANDAKO BIDAIARI KOPURUA (%)




Iturria: INE⁸, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Espainian betidanik nagusi izan den ostatu mota hotelak izan dira, eta dirudenez, gaur egun ere berdintsu jarraitzen du egoera honek. 2017eko bidaiari kopurua kontutan hartuta argi dago hotelak direla ostatu hartzeko lehenengo aukera nagusia, apartamentuek jarraituz, %80 eta %9 hurrenez hurren. Urte zehatz honetako datuak ikusirik, badirudi beste ostatuek ez dutela garrantzi handirik Espainiako turismoaren barruan.

⁸INEko aterpetxeetako bidaiari kopurua 2014 urtean hasi dira kontutan hartzen, aurrerago ez dira ageri.

20.GRAFIKOA: 2017.URTEAN TURISMOAK SORTUTAKO LANPOSTUAK ARLO EZBERDINETAN



Iturria: INE, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Turismoak sortzen dituen lanpostuak aztertuz gero, ostalaritza eta bidaia agentziak direla nagusi ondoriozta dezakegu, hauetan sortzen baitu lanpostu gehien. Elikadura eta edarien zerbitzua daukagu ondotik garrantzi handiarekin baita ere eta azkenik ostatuko zerbitzuak eta operadore turistikoak jarraitzen dute gutxiago nabarmentzen direlarik.

5.2. Turisten asebetetzea eta iritzia

Espainiako turismoarekin jarraituz, HABITUR⁹ izeneko galdeketa baten bidez Espainiako egoiliarak ez direnen artean izan den asebetetzea ezagutu dezakegu. Operazio honekin, turistaren iritzia jakin dezakegu Espainia ezagutu ondoren; bidaiaren egindako egun kopurua, alojamentu mota, bidaia egiteko arrazoia etab. (Habitur, 2016).

Bertzalde, azterketa bat egin da ondoko egoerak aztertuz: nazioarteko turistaren asebetetze globala Espainia bisitatu ondoren, asebetetzea eta zeukaten itxaropena betezea produktu ezberdinetan (alojamentua, gastronomia, aisia, inguru turistikoa eta garraioaren erabilera); Espainia aukeratu izana bidaiatzeko helmuga gisa, bidaia organizatzeko erabiliko informazio iturriak, turistaren fideltasuna Espainiarekin, aurretik Espainia bisitatu izan duen edo ez, bisita errepikatzeko asmoa izatea ondoko 12 hilabeteetan eta azkenik, bidaiariaren eta Espainiaren artean loturarik dagoen edo ez.

Ondoko puntuetan 2016.urtean lorturiko zenbait datu orokor aipatuko dira 2010 eta 2011. urteak alderatuz eta aurreragoko grafikoaren bidez aztertuak izan dira.


- 2016. urtean Espainian bilduriko datuen arabera asebetetze globalari dagokionez, 10tik 8,76 puntuazioa lortu zuen. Emaitza honek hobera egin du 2010 eta 2011. urteetan lortu ziren puntuazioak konparatuz, izan ere, bi urte hauetan 8,46 eta 8,55ekoa izan baitzen.
- Espainiarako bisita errepikatu duten bidaiariaren portzentaiak %80a gainditzen jarraitzen du eta urtetik urtera portzentai hori handitzen doa.
- Bidaiaren egindako esperientzia globalaren puntuazioaren hazkundeak adin guztietan eragin zuen, 65 urte eta handiagokoetan izan ezik, 2011ko portzentai antzekoa mantendu baitzuen.

⁹ Habitur-eko azkeneko datuak 2016.urtekoak dira, beraz urte hau hartuko da konparazioak egiteko.

- Hazkundera eman da produktu ezberdinengatik izandako asebetetzean baita ere (alojamentuak, inguru turistikoa, aisia, garraioak, etab). 2010. urtean 8 puntuko batez besteko nota lortu zen bitartean, 2016. urteak puntuazio hori handitzea lortu zuen.
- Ongi zainduriko inguruneak (garbitasuna, segurtasuna, paisaien edertasuna, inguru berdeak, hizkuntzen erabilera, lasaitasuna, etab.) bidaiarien emaitzak bikainak izateko oso elementu garrantzitsuak da.
- Logelen erosotasuna elementu garrantzitsuena da alojamentuaren asebetetze globalean, establezimentuan jasotako tratu formalak jarraiturik.
- Gastronomía eta jatetxeen arloan, sukaldaritzak, tratuak eta jasotako arretak establezimenduko langileengandik eragin handia dauka esperientzia mota honetan. Hirugarren lekuan kokatzen dira establezimenduko erosotasuna eta eskaintako prezio/kalitate erlazioak.
- Hego Amerika, Estatu Batuak eta Rusia izan ziren 2016. urtean asebetetze globalean puntuazio handiena eman zuten herrialdeak, 9 baino puntuazio handiago bat emanaz Oti 10rako eskalan. Europari dagokionez, Erresuma Batua eta Irlanda izan ziren Espainiari puntuazio hoberena eman ziotenak, 8,96 puntu emanaz.
- 2010 eta 2011. urteetan turistak %83,5ak Espainia aurretik bisitatu zutela esaten bazuten, 2016. urtean, %83,7ra igo da portzentai hau. Belgikako turistak %93ak errepikatu dute Espainiarako bidaia eta Irlanda eta Portugalak jarraitzen diote %92arekin. Ondotik, Erresuma Batua (%91), Holanda (%90), iparraldeko herriak, Suiza eta Frantzia (%89), Alemania (%88) eta Italia (%81).
- Erresuma Batua, Suitza, Portugal eta Belgika merkatu oso fidelak izan dira, izan ere, bisitarien erdiak aurretik Espainia hamar aldiz edo gehiagotan bisitatu zutela aitortu baitzuten.
- Nazioarteko turistak %61ak Internet informazio iturri nagusia bezala identifikatu zuten Espainiarako bidaia antolatzeke. Beste turista batzuk agentzien bidez antolatuta zuten beraien bidaia, %16ak alegia eta badira beste batzuk lagun eta familiaren bidez informatu zirenak, %13ak. Bidaia gehien prestatu zuten turistek Interneten kontsultatzeaz gain, lagun/ezagunen iritzia hartu zuten kontutan, artikuluak begiratu edo/eta agentzietan informatu ziren.
- Nazioarteko turistak %79ak argi zuten Espainia bisitatu nahi zutela eta ez zuten beste helmuga alternatibo batean pentsatu. Baina badira herrialde batzuk bai pentsatu zutenak herrialde alternatibo batean, ondoko hauek alegia; Italia, Grezia, Frantzia, Portugal eta Estatu Batuak.
- Espainia bisitatzeko arrazoi nagusienak, klima (%22), lagunak/ezagunak/familia (%11,2) izatea eta bere kultura (%24,3) izan ziren. Prezio/kalitate erlazioak bederatzigarren posizioa hartu zuen %2,8ko ehunekoarekin.
- Asebetetze globala handitzen doan heinean, itzultzeko intentzioa handitzen dela baieztatzen dute datuek (Habitur, 2016).

Asebetetze globala definitu ahal izateko definizio asko aurkituko ditugu, hala ere, Philip Kotlerren arabera honela definituko genuke: “produktuaren edo zerbitzuaren hautemate-errendimendua, euren itxaropenak konparatzearen ondorioz sortutako pertsona baten animo maila” (Kotler, 2000).


21.GRAFIKOA: ASEBETETZE GLOBALAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN PORTZENTAIA



Iturria: Habitur, 2016ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Grafikoan ikusi daitezkeen emaitzak oso positiboak direla esan daiteke, izan ere %59,9ak 9 eta 10 arteko puntuazioa jarri du, erdiak baino gehiago alegia. 7 eta 8 arteko puntuazioa beste 38,3ak jarri du eta hortaz gelditzen diren notek oso ehuneko baxua daukate. Beraz, nazioarteko turistek jartzen dituzten notak asebetetze globala hartuz gero kontutan oso onak dira.


22.GRAFIKOA: SEXU EZBERDINEN ASEBETETZEAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN PORTZENTAIA



Iturria: Habitur, 2016ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Sexuaren arabera asebetetze maila aztertuz gero, emakumeen %64ak 9 eta 10 puntuko asebetetze maila erakutsi zuten eta gizonzkoetan berriz %56a. 2011ko datuak konparatuz portzentai hauek gora egin dute, izan ere, Espainia bisitatu zuten emakumezkoen %57ak eta gizonezkoen %49ak 9 eta 10 puntuko asebetetze maila erakutsi baitzuten.


7. IRUDIA: ADINAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN ASEBETETZE GLOBALA EHUNEKOTAN (2016 URTEA, 10kiko BALORAZIOA)



Iturria: Habitur, 2016

Adinaren arabera asebetetze mailan zentratuz gero, 19 urterainoko turista nerabeak izan ziren asebetetze mailan portzentai handiena erakutsi zutenak, %64ak 9 eta 10 puntu arteko esperientzia izan zutela deklaratu zuten. 24 urterainoko taldeak jarraitzen die %61arekin eta portzentai berdinarekin 60-64 urteko bidaiariak. 7 eta 8 puntu eman zuten bidaiariak 65 urte edo gehiagoak izan ziren, %42a izanik segmentu honetan.

8. IRUDIA: BIDAIAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN ASEBETETZE GLOBALA EHUNEKOTAN (2016. URTEA, 10kiko BALORAZIOA)



Iturria: Habitur, 2016.

Arrazoi guztietan turista guztiek 8 puntu baino handiagoko puntuazio eman zuten, eta horren barruan gehienbat ikasketak edo erlijioa izan ziren arrazoi nagusienak 8,94 eta 8,85 puntu lortuz batez bestez. Honen ondotik, landa turismoa eta hondartza izan ziren erakargarri turistentzat eta baita familia/lagunei bisitak 8,82 eta 8,80 punturekin oro har.. Turismo kulturala 8,74 punturekin kokatzen da.

Aipatu beharra dago kongresuetara egindako asistentziengatik asebetetze totalaren batez besteko nota puntu erdi bat handitu egin dela, 2011n 8,04 izatetik 8,56 izatera 2016an. (HABITUR, 2016)

9. IRUDIA: PRODUKTUAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN ASEBETETZE GLOBALA (2010-2011-2016 URTEAK, 10kiko BALORAZIOA)

Productos	2010	2011	2016
Alojamiento	7,78	7,92	8,14
Gastronomía	7,97	8,01	8,23
Ocio (oferta cultural, deportiva, nocturna)	7,63	7,58	8,44
Entorno turístico (belleza, tranquilidad, seguridad, limpieza, etc.)	7,90	8,00	8,31
Uso de transportes en destino (tren, bus, taxi, etc.)	8,03	8,24	8,39
Infraestructuras (carreteras, telecomunicaciones, aeropuertos, etc.)	7,96	8,10	8,33
Grado de Satisfacción General	8,46	8,55	8,76

Iturria: Habitur, 2016.

Produktuaren arabera turismoari dagokionez, nazioarteko turistek egin zuten balorazioak batez bestez 8 puntu baino gehiago lortu zuten.

2010tik gaur egun arte izandako eboluzioa nabaria da, izan ere, urte horretan batez bestez 8 puntuko balorazioa edukirik, batek ere ez zuten gaintitu, erabiliko garraiobideak izan ezik. 2016an, asebetetze maila produktu mota guztietan handitu egin da, 8 puntu gaintuz 10engain. Ondorioz, bidaiaren balorazio globalak 0,29ko hazkundera eman du.

10. IRUDIA: EFEKTU MARGINALAREN ASEBETETZEA PRODUKTUAREN ARABERA, ASEBETETZE GLOBALA KONTUTAN HARTUTA (2016.URTEA)

variable	efecto marginal	Error estandar	Valor Z	Pr > Z
Alojamiento	.0809277	.00722	11.21	0.000
Gastronomía	.0582226	.00879	6.63	0.000
Ocio	.0908315	.00855	10.63	0.000
Entorno turístico	.1201191	.01051	11.43	0.000
Infraestructuras	.0866026	.00899	9.64	0.000
Uso de transportes en destino	.0624979	.00773	8.09	0.000

Iturria: Habitur, 2016.

Produktu bakoitzeko turistak hauteman duen asebetetze maila asebetetze totala kontuan izanik aztertzeke, produktu bakoitzeko asebetetze indibidualak nola jokatzen duen ikusiko da 9 eta 10 puntuko balorazio orokor bat eginik. Horretarako, Logit modelo estatistikoa planteatu da goiko grafikoa ikus daitekeen bezala (1 balioa hartuko du asebetetze orokorra bikaina baldin bada eta 0 beste kasuetan). Azterturiko laginak hoteletan edo antzekoetan gualdiak pasa dituzten turistak jasotzen ditu, ostalaritza eta aisialdiko jarduerak egin dituztenak eta helmuga herrian garraio publikoa erabili dutenak.


Emaitzak argiak dira, 2011n gertatzen zen bezalaxe, inguru turistikoaren arabera asebetetzea (garbitasuna, segurtasuna, edertasuna, paisaiak, eremu berdeak, kutsadura eza, hizkuntzen erabilera, lasaitasuna) arrazoi nagusienetarikoa da asebetetzeko orokorra bikaina izateko.

Aisiak, azpiegiturek (errepideak, telekomunikazioak, aireportuak etab.), ostatuak(erosotasuna, tratu profesionala...), garraio publikoak eta gastronomiak jarraitzen diote. (Habitur, 2016)

Helmuga turistikoen arteko lehiakortasunaren hazkundera, kalitatea, produktu eta zerbitzuen asebetetzea handitzeko helburu iraunkor batean bihurtu da. Turismoaren arloan kalitatea eta asebetetzea kontzeptuak loturik daude eta esan daiteke a priori turistak produktu edo zerbitzuaren kalitatea hautematen duela eta ondoren, lorturiko asebetetze maila kuantifikatzen duela.

Kalitatea osagai garrantzitsua da negozio turistikoa lehiatu ahal izateko. Prezio jakin batekin turismoaren itzaropenei erantzuteko gaitasuna bezala ulertu behar da.

11.IRUDIA: INGURU TURISTIKOAREN ARABERAKO ASEBETEZEA (2016 URTEA, 10kiko BALORAZIOA)




Iturria: Habitur, 2016.

Asebetetze globala puntuazio bikainera igotzen duen elementu ohikoena inguru turistikoa pertzepzio atsegina eta eroso da.

Aukeraturiko elementuetako kalitatearen ebaluazioaren inguru turistikoa konbinatzeko, paisaiaren edertasuna, segurtasuna eta garbitasuna izan ziren nota hobereena lortu zutenak, 8,49, 8,46 eta 8,06 puntu lortuz alegia. Aldiz ingurumeneko kutsadura ezak nota txarrean eduki zuten, 7,80 punturekin. Esan beharra dago hizkuntzen ezagupena gehien hobetu den itema dela, 7,36 puntu izatek 2011an, 7,86 puntu lortzeraino 2016an.

Orokorrean beraz inguru turistikoa asebetetzean gehien eragiten duten itemak ondoko hauek dira: paisaiaren edertasuna, ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna edo turistaren hizkuntzan egin ahal izateko ahalmena eta segurtasuna eta garbitasuna, ordena horretan (Habitur, 2016).

12.IRUDIA: OSTATUAREN ARABERAKO ASEBETETZEA (2016.URTEA, 10kiko BALORAZIOA)




Iturria: Habitur, 2016

Ostatuen arloan, hoteletan edo antzekoetan gualdi bat pasa zuten pertsonak ebaluatu zuten (hotelak, apartahotelak, hostalak, landa etxeak, albergueak etab). Ostatuen asebetetzea ebaluatzeke itemen artean, jasoriko tratuak, atentzioak eta pertsonalaren profesionaltasunak lortu zuten puntuazio hoberena, 8,44 punturekin, geletako zerbitzuak jarraitzen duelarik 8,39 punturekin. 2011ri dagokionez, bi item hauek izan dira gehien hazi direnak hautemandako asebetetzean.

Asebetetze globalean ostatuari dagokionean gehien eragiten dutenak berriz logelen erosotasuna, pertsonalaren tratu profesionala eta prezio/kalitate erlazioa dira (Habitur, 2016).

13.IRUDIA: GASTRONOMIAREN ARABERAKO ASEBETEZEA (2016.URTEA, 10kiko BALORAZIOA)




Iturria: Habitur, 2016.

Arlo honetan ebaluatoriko osagaietan, establezimenduetako kea eza nabarmentzen da batez ere asebetetze mailan, 8,45 puntuko batez bestekoarekin. 2010.urtean item honen balorazioa 7 puntukoa izan zen batez bestez baina, urte horretan jatetxeetan, kafetegietan, etabarretan erretzea debekatzen zuen legea jarri zen martxan eta beraz, lege honen erabilera atzerritarren artean oso ongi ikusia izan zenez puntuazioa hobetzea lortu zen.

Ostalaritzarekin zerikusia duten gainerako item guztiek 8 puntu baino handiagoko puntuazio eskuratu zuten, prezio/kalitate erlazioa eta sukaldaritza eskaintza izanik gehien hazi direnak batez bestez 2011tik honat, 0,38 eta 0,21 hurrenez hurren.

Asebetetze orokorra gehien maximizatzen duten itemak aztertzerako orduan inguru gastronomikoan eta ostalaritzan, sukaldaritza eskaintza eta jasotako tratu/atentzio pertsonala izan ziren. Hirugarren posizioan establezimenduen erosotasuna eta prezio/kalitate erlazioa kokatzen dira. (Habitur, 2016)

14.IRUDIA: AISIAREN ARABERAKO ASEBETEZEA (2016. URTEA, 10kiko BALORAZIOA)



Iturria: Habitur, 2016.

Kultura eskaintzak zein parke tematikoak, gauetako aisiak, kirol instalaziok eta hondartzak 8 puntuko nota gainditzen dute.

15. IRUDIA: NAZIOARTEKO TURISTA MERKATUEN ARABERAKO ASEBETETZEA (2016. URTEA, 10kiko BALORAZIOA)

Mercados	Productos					Grado de Satisfacción General
	Alojamiento colectivo	Gastronomía	Ocio	Entorno turístico	Infraestructuras	
Alemania	8,13	8,22	8,35	8,31	8,19	8,80
América Latina	8,48	8,62	9,10	8,92	9,09	9,16
Austria	8,42	8,33	8,41	8,34	8,35	8,72
Bélgica	7,89	8,06	8,23	8,07	8,25	8,55
Canadá	8,18	8,12	8,61	8,14	8,42	8,74
China	7,74	8,23	8,73	8,12	8,37	8,43
Corea del Sur	7,85	7,98	8,68	7,92	8,08	8,51
EEUU	8,51	8,53	8,92	8,70	8,59	9,02
Francia	7,95	8,07	8,24	8,10	8,13	8,40
India	8,23	8,37	8,77	8,32	8,67	8,72
Irlanda	8,23	8,42	8,56	8,29	8,49	8,96
Israel	8,34	8,31	8,69	8,49	8,59	8,83
Italia	8,06	8,16	8,60	8,37	8,36	8,75
Japón	7,78	7,97	8,60	7,80	8,09	8,56
Países Bajos	7,93	7,94	8,08	7,93	7,84	8,41
Países Nórdicos	8,03	7,96	8,26	8,09	8,18	8,78
Polonia	8,01	8,07	8,30	8,25	8,49	8,87
Portugal	8,04	7,77	8,30	8,14	8,46	8,51
Reino Unido	8,33	8,45	8,52	8,22	8,48	8,96
Resto países	7,98	8,16	8,61	8,75	8,46	8,70
Rusia	8,33	8,58	8,98	8,17	8,95	9,23
Suiza	7,86	8,13	8,22	8,18	8,24	8,66
Turquía	7,82	8,04	8,56	8,32	8,32	8,63

Iturria: Habitur, 2016.

Jatorrizko merkatuen arabera, turisten asebetetzearekin jarraituz, hogeita hiru herrietako asebetetze orokorra aztertu da eta Hego Amerikako, Estatu Batuetako eta Errusiako turistak asebetetze orokor handiena eduki zutelako esan daiteke, nota bikain batekin (9 baino handiagoa 0 eta 10 arteko eskalan). Europa hartuz gero kontutan, Erresuma Batuko eta Irlandako merkatuak izan ziren nota hoberenak jarri zituzten herrialdeak, 8,96 punturekin hurrenez hurren.

Produktuen arabera, Espainiako gastronomiaz gehien gozatu zutenak Hego Amerikako, Errusiako eta Estatu Batuetako turistak izan ziren, 8,50eko puntuazio gaituz.

Estatu Batuetako, Hego Amerikako eta Austriako turistek puntuazio hobereana eman zuten ostatuari dagokionez (hotelak eta antzekoak), 8,51/8,48/8,42ko puntuazioarekin.

Europako herrialde jaulkitzaile garrantzitsuenen artean, britaniarrak izan ziren gastronomia eta ostatuak hobekien baloratu zutenak, 8,45 eta 8,33 punturekin.

Aisialdia asebetetze orokor esanguratsu batekin baloratua izan zen inkestatuak izan ziren herrialde guztien artean, izan ere, guztiek 8 puntu baino handiagoko puntuazioa jarri zutelako. Baina Hego Amerikako, Errusiako, Estatu Batuetako, Indiako eta Txinako turistak izan ziren aisialdiko jardueratan gehien gozatu zutenak, 8,73 eta 9,10 arteko puntuazioak emanaz.

Azpiegiturak oso altu ebalatu ziren, 8 puntutako puntuazio gaituz analizaturiko ia herrialde guztietan, Holandak jarritako puntuazioa salbuespena izanik (7,87 puntu) (Habitur, 2016).

16.IRUDIA: NAZIOARTEKO TURISTAREN ASEBETETZEA HELMUGA DEN AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA (2016.URTEA, 10kiko BALORAZIOA)

CCAA	Satisfaccion global media	% de turistas con satisfaccion global de sobresaliente
La Rioja	9,13	75%
Canarias	8,97	69%
C. Valenciana	8,87	64%
Baleares	8,83	64%
Extremadura	8,67	62%
Aragón	8,72	61%
R. de Murcia	8,85	60%
C. de Madrid	8,74	60%
Castilla - La Mancha	8,79	58%
Galicia	8,68	56%
P. de Asturias	8,72	56%
Andalucía	8,65	55%
Cantabria	8,63	53%
Castilla y León	8,44	52%
Cataluña	8,59	52%
País Vasco	8,65	51%
C.F. de Navarra	8,34	40%

Iturria: Habitur, 2016.

Autonomia erkidego guztietan turistek beraien bidaiari hautemandako asebetetze orokorra 8 puntu baino handiagoa izan zen, 2011n egindako inkestetan lortu ziren puntuazioak baino handiagoak. Nabarmenezkoa da turisten ehunekoaren hazkundera 9-10 puntuko pertzepzioarekin autonomia erkidego guztietan, Nafarroako Foru Erkidegoa salbuespena izan delarik.

Puntuazio bikainak izan zituzten herrialdeak Errioxa eta Kanariak izan ziren, non autonomia erkidego hauetara iritsitako turisten %75 eta %69ak esperientzia bikaina eduki zuten aitortu baitzuten. Balentziako komunitateak eta Balearrek jarraitzen diote, non turisten %64ak esperientzia bikaina izan zuten adierazi baitzuten.

Produktuei dagokionez, Balentziako Komunitateak, Murtziak eta Errioxak, ostatuaren balorazioa ebaluatzerakoan batez besteko puntuazio handiena emateagatik nabarmendu ziren, 8,35, 8,42 eta 8,47ko puntuazioak emanaz.

Gaztela Mantxak aldiz puntuazio xumeena eman zuen ostalaritza puntuatzerako orduan, 7,74 punturekin hurrenez hurren. Asebetetzearen ebaluazio altuenak Errioxak, Asturiasek eta Galiziak izan zituzten, 8,57, 8,53 y 8,44 punturekin.

Aisialdiaren asebetetze orokorrean zentratuz gero, Madrilgo komunitateak eta Asturiasek puntuazio handiena eskuratu zuten 8,79 eta 8,96 punturekin.

Inguru turistikoaren arloan Asturias izan da asebetetzearen ebaluazio handiena lortu duen komunitatea, ingurugiroa, kondizioak eta hautatutako helmugaren inguruko egoerak (lasaitasuna, edertasuna, eremu berdeak, segurtasuna, garbitasuna...) ebaluatu direlarik horretarako. Galiziak, Kantabriak, Errioxak, Kanariak, Aragoik eta Balearrek jarraitzen diote, ordena horretan. (Habitur, 2016)

5.3. Informazio iturriak


Espainia helmuga bezala aukeratzeko orduan, 2016. urtean, nazioarteko turisten %61ak Interneta aukeratu zutela aitortu behar da informazio iturri nagusi bezala beraien bidaia antolatzeko orduan. Bestetik, marjina handiagora bidaia agentziak aukeratu zituztenak egon ziren %16a izanik eta hauetaz gain, lagunei edo familiari informazioa eskatu ziotenak %13arekin.

2010eko eta 2011ko datuak hartzen baditugu kontutan, bidaia agentzien eta lagun/ezagunen informazio iturriek beherakada handia izan zutela ondorioztatu daiteke, izan ere Internetak indar handia hartu baitu. Garai horietan, Espainia bisitatu zuten turisten %21 eta %24ak bidaia agentzietara jo zuten informazio bila bidaia antolatzeko orduan baina 2016an ordea, %16ak aukeratu zuen bide hori.

Egoera hau errepikatu egiten da lagun edo ezagunen bidezko informazio bilatzerako orduan, izan ere 2016. urtean %13ak egin zuten eta aldiz 2010 eta 2011. urteetan %22 eta %19ak.

Aldiz, Internetekin kontrakoa pasatu da, %44 izatetik 2010. urtean, %61 izatera pasa zen 2016. urtean.

17.IRUDIA: INFORMAZIO ITURRIAREN ETA BIZILEKUAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN EHUNEKOAK (2016.URTEA)




Iturria: Habitur, 2016.

Merkatu eskaintzaile guztientzat, Interneta izan zen informazio iturrietan liderra Espainiarako bidaia antolatzerako orduan, nahiz eta erabilera honen intentsitatea desberdina den herrialde batean edo bestean.

Horrela, Erresuma Batuko, Iparraldeko herrialdeetako eta Irlandako turistek %70ak baino gehiagok tresna hau erabili zutela nabarmendu daiteke. Lagun eta ezagunekin hitz egitea Hego Amerikako, Estatu Batuetako eta Frantziako turistetan nabaritu zen. Aldiz, Indiako, Japoniako, Alemaniako eta Portugaleko turistek bidaia agentzietara joateko ohitura handiagoa erakutsi zuten. (Habitur, 2016)

18.IRUDIA: ERABILIKO INFORMAZIO ITURRIAREN ETA BISITAREN ARRAZOIAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN EHUNEKOAK (2016.URTEA)



Iturria: Habitur, 2016.

Bisitaren arrazoiari dagokionez, informazio iturriak aztertzen baditugu bisitaren arrazoia dela eta, Internet izan dela errekurtsu nagusiena ikusi dezakegu hemen ere, arrazoi guztietan turistek erdiak baino gehiago hau erabili baitzuten.

Honez gain, aipatu beharra dago bidaia agentzietara jo zuten turista gehienak lanegatik jo zutela iturri honetara (%67), itsasoa eta mendiegatik etorri zirenek jarraitzen diotelarik.

Honekin batera, mendia eta itsasoa bilatzen duten bidaiariak (%66), kultura (%63) edo ikasketak (%61), informazio iturri bezala interneta aukeratu zuten bidaiari nagusienak izan ziren.

Turista bakoitzak jarririko notaren arabera, nota bikaina jarri ziotenak Espainiari, %62ak Interneta aukeratu zuten informazio iturri nagusi bezala eta %13ak lagunengana edo ezagunengana jo zuten informazio bila.

Aldiz 7 puntu baino gutxiagoko nota jarri zioten turistek gutxiago erabili zuten Interneta, %60ak alegia, baina soilik %6ak eskatu zuten informazio lagun edo ezagunei.

Orokorrean, beraien bidaia hoberen prestatu zutenek, ez soilik Internet bidez, baizik eta lagun/ezagunei kontsultak eskatuz, artikulua irakurriz eta bidaia agentzietara joanez asebetetze maila oso altua erakutsi zuten. (Habitur, 2016)

5.4. Nazioarteko turisten fideltasuna

Espainia errepikatu duten bisitarien kopurua oso altua izan da urtero, 2016an turisten %83,7ak Espainiara egindako bidaia errepikatu zutela aitortu zuten eta %43,3ak hamar aldiz edo gehiagotan errepikatu izan du. Gainera %83,7 horren barruan, %51,7a hamar aldiz edo gehiagoz egon da Espainian.

19.IRUDIA: FIDELTASUNAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN EHUNEKOAK, MERKATUKA (2016.URTEA)

	Primera vez	Repite visita	10 o más visitas
Alemania	12%	88%	38%
América Latina	44%	56%	18%
Austria	27%	73%	22%
Bélgica	7%	93%	56%
Canadá	51%	49%	7%
China	63%	37%	14%
Corea del Sur	75%	25%	7%
EEUU	53%	47%	11%
Francia	11%	89%	58%
India	61%	39%	7%
Irlanda	8%	92%	48%
Israel	35%	65%	11%
Italia	19%	81%	28%
Japón	54%	46%	13%
Países Bajos	10%	90%	46%
Países Nórdicos	11%	89%	42%
Polonia	33%	67%	15%
Portugal	8%	92%	63%
Reino Unido	9%	91%	55%
Rusia	31%	69%	19%
Suiza	11%	89%	53%
Turquía	52%	48%	13%

Iturria: Habitur, 2016.


Espainiak dituen merkatu jaulkitzaile nagusienak fidelitate kuota handiena erakusten dute. Horrela, 2016an Espainia bisitatu zuten turisten artean, gehienak aurretik egonak ziren. Belgikatik etorri ziren turisten %93a aurretik egona zen adibidez. Irlandak eta Portugalek jarraitzen diote %92rekin eta ondotik hauek datoz: Erresuma Batua (%91), Holanda (90), Iparraldeko herrialdeak, Suitza eta Frantzia (%89), Alemania (%88) eta Italia (%81).

Gainera, Espainiak merkatu jaulkitzaile talde fidel batekin kontaktzen du, aurretik gutxienez hamar aldiz Espainia bisitatu zuten turistekin; turista hauek Erresuma Batua, Suitza, Portugal, Frantzia eta Belgikatik datoz.

Aldiz lehen aldiz bisitatu zuten Espainia ondoko herrialde hauek: India, Txina eta Hego Korea. Distantzia handiko beste merkatu batzuk eta haien fideltasuna handitzen ari diren herrialdeak hauek dira: Estatu Batuak, Japonia eta Kanada. (HABITUR, 2016)

2011ko datuetan bezala, lagun/familia bisitatzeko fideltasunak lehenengo posizioa izaten jarraitzen du, aisia bigarren posiziora igotzen da eta lanak behera egiten du, %90,7tik %81,7ra jaisten baita (Habitur, 2016).


20.IRUDIA: BISITAREN ARRAZOI ETA ERREPIKAKORTASUNAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN EHUNEKOAK (2016.URTEA)



Iturria: Habitur, 2016.

Bidaia egiteko arrazoiaren arabera, nazioarteko turistak zergatik aukeratzen duen Espainia helmuga bezala aztertzen badugu eta horretarako hauen fideltasuna bidaiaren errepikapena bezala hartzen badugu, familiari, lagunei eta aisialdirako bidaiak izan ziren proportzio handia erakutsi zutenak aurretik noizbait Espainian egonak izanik, %87,9 eta %83,7rekin.

21.IRUDIA: ESPAINIAREKIKO LOTURAREN ARABERAKO NAZIOARTEKO TURISTEN EHUNEKOAK (2016.URTEA)



Iturria: Habitur, 2016.

Nazioarteko turisten %66ak ez zuen izan inolako loturarik Espainiarekin.

Merkatuen araberako lotura hau aztertzerako orduan, ordura arte merkatu tradizionaletik izandako lotura eza nabaritu zen; esaterako turista alemanen %73,1k Espainiarekin inolako lotura berezik ez zutela izan aitortu zuten. Bestetik Frantzia daukagu, non ehunekoak %59,8koa izan zen.

Jatorrizko merkatuen erlazio mota ezberdinen artean, Frantzia eta Italia familia eta lagunekin erlazio afektibo bat izateagatik nabarmendu ziren, %31,9 eta %29,3.

Espainian etxea edukitzeagatik turisten ehuneko handiena Iparraldeko herrialde eta Erresuma batuko merkatuak izan ziren, &7,7 eta %5,5 (Habitur, 2016).

5.5. Helmuga alternatiboa

Turistaren fideltasuna neurtzeko modu bat ondokoa galdetzea da: ea bere bidaiaren helmuga erabakitzerakoan beste herrialde alternatibo bat pentsatua zuen edo ez, edo bere lehenago erabakia izan zen. Galdera honen aurrean, nazioarteko turisten %79ak, ez zutela beste helmuga alternatibo batean pentsatua aitortu zuten, %21ak aldiz, bertze helmuga alternatibo bat pentsatua zuela aitortu zuten.

Espainian lehenago aldiz bisitatu zutenen artean, laurdenak, beste helmuga bat izan zuten burutan. Bisita errepikatzen zutenen artean, %21ak soilik pentsatu zuten beste helmuga alternatibo batean.

Merkatu jaulkitzaile garrantzitsuenen artean, alemanak izan ziren gehien pentsatu zutenak beste helmuga batean Espainiaz gain, %24ak alegia. Holandak eta Italiak jarraitzen diote %21ekin eta Erresuma Batuak eta Frantziak ondotik %20arekin.

22.IRUDIA: NAZIOARTEKO TURISTENDAKO HELMUGA ALTERNATIBOAK: (2016.URTEA)

Destinos alternativos	Países de residencia						Total
	Reino Unido	Alemania	Países nórdicos	Italia	Países Bajos	Francia	
1	Grecia	Italia	Grecia	Grecia	Italia	Portugal	Italia
2	Italia	Grecia	Italia	Portugal	Portugal	Italia	Grecia
3	Portugal	Portugal	Francia	Francia	Grecia	Grecia	Portugal
4	Francia	Turquia	-	-	-	-	Francia
5	EEUU	Francia	-	-	-	-	EEUU

Iturria: Habitur, 2016.


Totalean, Espainiako alternatiba gisa gehien izendatu ziren herrialdeak, Italia, Grezia, Frantzia, Portugal eta Estatu Batuak izan ziren. 2011 urtean bostgarren lekua Turkiak hartzen zuten, 2016an Estatu Batuak honen lekua hartuz.

Helmuga turistiko bezala herrialde alternatibo bat aukeratzeko orduan, Autonomia Erkidego lehiakorrenak Galizia, Madrilgo Komunitatea eta Valentziako komunitatea izan ziren, izan ere, turisten %86 - %88ak herrialde hauek aukeratzekoan ez zuten beste herrialde alternatiborik planteatu. Distantzia handiagora Katalunia kokatu zen (%83).

Bestalde, Andaluzia eta Gaztela Lehoi aukeratu zutenen artean, %29 inguruk beste herrialde alternatibo batean pentsatu zuten, non helmuga hauek aukeratzeko orduan duda gehien sortu zituzten turisten artean. Balearrek, Murtziak eta Euskadik jarraitzen diote. (Habitur, 2016)

5.6. Zehazteko faktoreak


23.IRUDIA: HELMUGA TURISTIKO GISA ESPAINIA AUKERATZEKO FAKTORE GARRANTZITSUENAK (2016.URTEA)



Iturria: Habitur, 2016.

Helmuga turistikoen artean erkidego asko eta anitzak daude Espainian, eta bidaiari batek zein izan den arrazoi pisutsuena herrialde hau aukeratzeko eta ez beste bat pentsatzen duenean, lehenengo posizioan klima kokatzen da eta lagunak/ezagunak/familia eta kultura ondotik (32%, 14% y 12%). Prezio/kalitate erlazioa zortzigarren postuan kokatzen da (%4), atzetik hondartza (%7), dibertsioa (%5) eta lana (%5).

24.IRUDIA: HELMUGA TURISTIKO GISA ESPAINIA AUKERATZEKO FAKTORE ERAGINKORRENAK (2016.URTEA)




Iturria: Habitur, 2016.

Espainiaz aparte beste helmugaren bat aukeratu ez zutenen artean segmentatzen badugu, eta gainera bidaiariaren lehenengo bisita izanik, aukeraketa egiteko faktore nagusienak kultura, klima eta lagunak izan ziren.

Bestetik, beste helmugaren bat aukeratu ez zutenen artean baina jadanik ez izanik lehenengo bisita, faktore esanguratsuenak klima eta kultura izan ziren.

Beste helmuga bat planteatu zutenen artean, lehenengo bisita ez izanik, faktore esanguratsuenak klima eta kultura izan ziren. (Habitur, 2016)

25.IRUDIA: HEMUGA TURISTIKO GISA ESPAINIA AUKERATZEKO FAKTORE ERAGINKORRENAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (2016.URTEA)



Iturria: Habitur, 2016.

Autonomia Erkidego bakoitzera zuzendu ziren turisten artean, faktore erakargarrienak hauek izan ziren: Katalunia eta Madrilgo komunitatearentzat, kultura, lagunak, lana; artxipelagoentzat klima; Murtzia eta Valentziako komunitatearentzat klima eta kultura; barnealdeko Autonomia Erkidegoentzat lagunak/ezagunak/familia izatea nagusitu zen.

5.7. Espainiara itzultzeko intentzioa

3.TAULA:

ASEBETETZE MAILA GLOBALA ETA NAZIOARTEKO TURISTEN ITZULTZEKO INTENTZIOA (2016)				
ITZULTZEKO INTENTZIOA	ASEBETETZE MAILA			
		OSO ONG	BIKAIN	ONGI
	BAI	%63	%70	%56
	EZ	%19	%14	%26
EZ DAKI	%19	%16	%18	

Iturria: Habitur, 2016ko datuetatik abiatuta autoreak egindako taula.

Nazioarteko turistaren fidelitate gradua etorkizunean neurtu ahal izateko, bidaia egin ondoren ea hurrengo urtean zehar Espainiara itzultzeko intentzioa duten edo ez galdetu zitzaien. %66,8ak baietz erantzun zuen; %17,3ak dudekin erantzun zuen eta %15,9ak ezetz. 2011ko inkestarekin konparatuz, baiezko erantzuna hazi egin da, izan ere urte horretan itzultzeko intentzioa %61,8ak erakutsi zuen.


Asebetetze eta fideltasunaren arteko erlazioa nabaria egiten da bidaiari izandako esperientziaren arabera, itzultzeko intentzioa duten edo ez galdetuz. Asebetetze globala handiagoa den heinean, itzultzeko intentzioa ere handitu egiten da.

Bidaiari esperientzia bikaina izan duten turistekin artean, %70ak itzultzeko intentzioa duela erakutsi zuen. Aldiz, 7 eta 8 arteko nota asebetetzea izan zuten turistekin artean, soilik %63ak aitortu zuen itzultzeko intentzioa zuela. Honela, ehuneko hau %56koa izan zen 5 eta 6 arteko nota jarri zuten turistekin artean (Habitur, 2016).

5.8. Turismoaren eragina ekonomian

Turismoak ekonomian duen eragina aztertzeko Exceltur-eko¹⁰ Espainiako Turismoaren Adierazle Sintetikoa (ISTE) indizearekin aztertuko dut. Adierazle honek turismoaren eskaria (nazionala eta internazionala), BPGaren garapena, turismoaren irabaziak, etab. kontutan hartuz kalkulatu da. Espainiako turismoaren BPGaren bilakaera eta bertako ekonomiari egiten dizkion ekarpenak neurtzea dira ISTEren helburu nagusiak.

23. GRAFIKOA: URTEZ URTEKO ESPAINIAKO TURISMOAREN ADIERAZLA SINTETIKOAREN (ISTE) ALDAKETA 2005-2017 URTEETAN



Iturria: Exceltur, 2017ko datuez baliatuz autoreak eginiko grafikoa.

Goiko grafikoa ikusten den bezala, krisi ekonomikoaren punturik gogorrena turismoaren ekarpenaren aldetik 2008 eta 2009. urteen artean eman zen. Urte horretan turismoak BPGari egindako ekarpena aurreko urtekoa baino dezente txikiagoa izan baitzen.


2013tik aurrera berriz, ISTEko datuak positiboak dira eta gero eta altuagoak. Honek esan nahi du turismoak laguntza positiboa ematen diola Espainiako BPGari. Urte horretatik aurrera gora beherak nabaritu dira baina hala ere balio positiboetan mantentzen ari da.

¹⁰ Exceltur, Hosteltur-entzako datuak lortu eta aztertzen dituen entitatea da, Espainiako zenbait turismo enpresek osatua (bidaiari agentziak, garraiobide ezberdinen enpresak, ostatu mota ezberdinak, ...)

5.9. Lanpostuak: Afiliazioa Gizarte Segurantzaz

2018. urtean, turismo jardueratan izandako lanpostua %4an hazi zen, 2.389.766 langile izateraino iritsiz Gizarte Segurantzako altan (espainiar ekonomiako alta guztietan afiliaturikoen %12,8a). Eboluzioa positiboa izan zen hilabete guztietan, uztailen datu minimoena (+%2,9) eta datu maximoa martxoan izanik (+%6,4). Batez besteko lanpostuen bolumen handiena 2018. Urtean izan zen historia osoan zehar. Erlazio zuzen bat nabari da jarduera turistikoaren artean, sarrera eta gastu turistiko terminoetan, eta lanpostuaren sorrera sektorean. Azken honetan balio absolutuetan 92.435 afiliatu gehiago erregistratu ziren aurreko urtearekin konparatuz, espainiar ekonomiari turismoak egiten dion ekarpen handia islatzen du.

26.IRUDIA: TURISMOAREN SEKTOREAN AFILIATURIKOAK¹¹ URTEKA (2008-2018 URTEAK, URTEKO BATEZ BESTEKO BALIOAK)




Iturria: Turespaña, 2018.

Ekonomia nazionalean afiliatuak %3,2an hazi ziren urte arteko tasan (574.195 afiliatu gehiago) eta zerbitzuen sektorean %3,2. Espainian ekonomiako lanpostuak urte arteko eboluzio positibo bat erakutsi du 2018ko hilabete guztietan, 2014.urtean hasitako bidea jarraituz, eta gainera hazteko ohiturarekin; 2008 eta 2013ko krisi garaiko lanpostuen egoera errekueratuz (Turespaña, 2018).

¹¹ Turismoaren sektorean lan egiten duten pertsona kopurua kalkulatzeko azkeneko datuak 2018ak hartu ditut.

27.IRUDIA: TURISMOAREN SEKTOREAN AFILIATURIKOAK JARDUERA EZBERDINEN ARABERA (EHUNEKOEN BANAKETA ETA URTEZ URTEKO ALDAKETAK BALIO ABSOLUTUTAN, 2018.URTEA)




Iturria: Turespaña, 2018.

Termino absolututan, aurretik aipatu bezala, turismo arloko lanpostuak 92.435 afiliatu gehiagorekin kontatu zuen aurreko urtearekin konparatuz. Igoera hau turismo mota guztietan eman zen: ostalaritzan 52.455 afiliatu izan ziren (39.638 afiliatu gehiago janari eta edarietan eta 12.819 gehiago ostatu zerbitzuetan), bestelako jarduera turistikoetan 36.127 afiliatu gehiago izan ziren eta bidaiaria agentzietan 3.853 langile gehiago (Turespaña, 2018).

2018.urtean afiliatuen %79,8a soldatapeko langile zen eta gainerako %20,2a, autonomoa. Soldatapekoak turismo sektorean urtez urte %4,9an hazi ziren, hazkundera turismo mota guztietan emanik, bereziki gainerako turismo jardueratan (+%6) eta bidaiaria agentzietan (+%5,2), ostalaritzak jarraiturik (+%4,4) eta honen barruan, janari eta edari zerbitzuetan (+%4,5).

Lanpostu autonomoa turismo arloan %0,8 handitu zen. Bidaiaria agentziak (+%10,8) hazkunde handiena izan zuen ehunekotan, baina beste jarduera turistikoetan eman zen hazkunde handiena balio absolututan, 4.158 autonomo gehiago. Ostalaritzan eta bidaiaria agentzietan, Gizarte Segurantzara afiliaturiko altak behera egin zuten urtez urte %0,1ean (Turespaña, 2018)

28.IRUDIA: OSTALARITZAN ETA BIDAIA AGENTZIETAN AFILIATURIKOAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (URTEZ URTEKO ALDAKETAK BALIO ABSOLUTUTAN, 2018.URTEA)



Iturria: Turespaña, 2018.

Autonomia erkidegoak aztertu nahi baditugu, 2018. urtean, ostalaritza eta bidaiaria agentziari lotutako lanpostuei dagokionez, erkidego guztietan hazi ziren. Zifra absolututan, hazkunde handienak Andaluzian, Madrilgo komunitatean, Valentziako komunitatean, Katalunian, Kanarietan eta Balearretan eman ziren. Sei komunitate hauek elkarren artean %78ko urtez urteko hazkunde absolutua erakusten dute. Urtez arteko aldakuntza tasan ehuneko hazkunde

handienak ondoko autonomia erkidegoetan eman ziren: Andaluzia (+%5,3), Murtzia (+%4,6), Nafarroa (+%4,3), Balentziako komunitatea (+4,2), Madrilgo komunitatea (+%4,1) eta Gaztela Mantxa (+%4,1). Soldatapekoetan gehien hazi zen herrialdea Andaluzia izan zen (+%6,5) eta autonomoetan gehien hazi zen herrialdea berriz Kanariak izan ziren (+%1,3) (Turespaña, 2018).

6. LANDA TURISMOA

Espainiako turismoa orokorrean aztertu ondoren, landa turismoa aztertzeari ekingo diot. Urdazubin nagusi den turismo mota landa turismoa da, hortaz herri honetako turismoa aztertzen hasi aurretik landa turismoa aztertuko dut eremu honetan kokatu gaitezten. Turismo mota hau aztertzeko Espainia, Nafarroa, Nafarroako Ipar-mendebaldea eta azkenik Urdazubi aztertuko dira.

6.1. Zer da landa turismoa?

Landa turismoaren fenomenoak 80. hamarkada inguruan sortu zen, eta ordutik definizio ezberdinak eman izan dira turismo mota honen inguruan. Egia esan ez dago munduko zonalde guztietako landa turismoa biltzen duen definizio¹² konkreturik, baina Instituto Nacional de Estadística-k ematen duen definizioa euskaratua honako hau litzateke: “Orokorrean, landa etxe gisa hartuko genuke, prezio baten truke ostatu turistikoaren xedea duen edozein etxebizitza, bestelako zerbitzuak eskainirik edo ez, eta bakoitza bere autonomia erkidegoko Ostatu Turistikoen Erregistroan izena ematen duen hura”. Hauek hurrengo ezaugarriak izaten dituzte: landa ingurunean kokatuak daude, eskualde bakoitzeko etxe tradizionalen itxura izaten dute, toki eta gela mugatuak izaten dituzte eta askok baserriko lanak oraindik aktibo dituzte. Azken hauek “agro-turismo” hitzarekin ere ezagutzen dira.

Landa turismoa, gaur egungo “turismo alternatibo” hitzarekin ezagutzen den multzoan sartuko genuke. Fenomeno honek gorakada nabarmena izan du azken hamarkadetan eta honen bultzatzaile nagusia Administrazio Publikoak izan dira, hauek izan baitira landa eremuetako ekonomia sustatzeko aurrera pausua eman dutenetariko batzuk. Landa turismoaren xede nagusia ondorengoak dira: herritarrentzako aisialdi berri bat sortzea, turismoaren perspektibatik eskualdeen ekonomiaren dinamika sortzea, turismoaren urtaromendekotasunean¹³ eragitea eta turismo jasangarria bultzatzea (*El turismo rural en Galicia*, 2014).

Honez gain, landa turismoa suspertzearen beste helburu nagusia zonalde bakoitzeko ondare turistikoa mantentzea da, zonaldeko ohituren, tradizioen, festen, artisauen eta gastronomiaren biziberritzea bermatuz (*El turismo rural en Galicia*, 2014). Modu honetan turismoaren hazkundera eman eta herri txikietako despopulazioarekin bukatu daiteke, bertako ekonomia eta lana sustatuz. Honela Espainiar estatuaren erdialdeko eremuko turismoari eta orokorrean hondartzarik gabeko eremuei bultzada bat ematen zaie turismoaren arloan eta bide batez aurrerago aipatutako arazo horiek (herri txikien despopulazioa, ingurumenari kasu ez egitea...) ekiditen saiatzen dira.

Egia esan, landa turismoa, abeltzain eta nekazari txiki askorentzako laguntza ekonomiko ere bihurtu daiteke, beraien baserri handiak konpondu eta landa etxe bihurtuta haien errenta hobetu bait dezakete. Hala ere, kontutan hartu behar da normalean landa turismoarekin ezin dela urte guztian zehar lan egin, izan ere, Landa Turismoaren Behatokitik esaten dutenez, langile hauen

¹²http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176963&menu=ultiDatos&idp=1254735576863

¹³ Urtaro edo hilabete zehatz batzuetako turismoaren eskari handiarekin bukatzea. Landa turismoaren laguntzaz urteko gainontzeko hilabeteetako turismoa suspertzen da.

%70k beste lan bat izaten du bere landa etxeaz gain, denboraldien arabera landa turismoaren eskaria gutxitzen baita eta ez da bizitzeko behar adina irabazi ateratzen (Hosteltur¹⁴, 2014).


Ondorioz, esan genezake landa turismoak landa garapena ere bultzatzen duela, lehen sektorean lan egiteari uko egin gabe eta baserri handiak hondatzera utzi gabe beraien errenta igotzeko modu berri bat izan daitekeelako.

6.2. Landa turismoaren garapena

2000. urterako, landa turismoa ezaguna zen Espainiako biztanle gehienentzako eta denek entzuna zuten noizbait kontzeptu hau. Hala ere, nahiz eta ostatu mota berri honek hogeitau baina gehiagoko historia izan, mende hasiera honetan eman duen bidaiari kopuruaren gorakada gero eta handiagoa da. Honen adibide daukagu hurrengo 24. grafikoa, bertan, Instituto Nacional de Estadística-ko (INE) datuen arabera, azken hamabi urteetan Espainiako landa turismoko ostatu ezberdinetara etorri diren bidaiari kopurua ageri baita.

Ondoko grafikoa gaineratik begiratu, hiru denbora tarte bereiz daitezkeela ikus daiteke: 2005-2007ko igoera, 2007-2013ko mantentze eta jaitsiera eta 2013-2017 denbora tarteko igoera. Aipatutako lehenengo tarte horretan, 2005-2007. urteen bitartean eman da hazkunde handiena. Bertan, 2005. urteko datuak oinarritzat harturik, 2007rako, landa turismoko bidaiarien kopurua %18,45a igotzen da. Hala ere, bigarren denbora zati horretan (2007-2013, 2007ko datuak oinarritzat hartuz) jaitsiera %5a da, 2013koa izanik bidaiari gutxien etorri diren urtea. Azken urtean berriz, 2017an, historiako landa turismoaren datu altuenak eman ziren, 4.049.974 bidaiari.

24. GRAFIKOA: ESPAINIAR ESTATUKO LANDA TURISMOAREN GARAPENA 2005-2017 URTEETAN. BIDAIRI KOPURUA (2005ko DATUAK OINARRITZAT HARTURIK)



Iturria: INE, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Gainera, INEko 2018ko azaro arteko datuekin, esan dezakegu grafikoaren hirugarren tarte horretan jarraitzen duela landa turismoak Espainiako estatuan, dagoeneko 2017ko bidaiari kopurua gainditu baitu autonomia erkidego askotan (INE, 2017, neuk kalkulatuak).


¹⁴ Hosteltur: Espainiako turismoaren sektoreko informazioa biltzen eta ondoren txostenak argitaratzen dituen entitate bat da, hala ere ez dira Espainiako ostatu guztien datuak agertzen.

Instituto Nacional de Estadística-ko datuen arabera, orokorrean 2005etik 2017ra bitartean landa turismoko bidaiarien kopurua %104,24 igo da Espainiar estatu osoan. Honen arabera, gero eta landa etxe gehiago daude estatu guztian, izan ere, INEko azken txostenek landa turismoko plaza kopuruetan igoera eman dela diote. Hala ere, autonomia erkidego guztietan eman den hazkundea ez da berdina izan.

6.3 . Landa turismoaren prezioak

Landa turismoaren prezioak aztertu ahal izateko Hosteltur-eko datuez baliatu naiz. Ondoko grafikoa, landa turismoko ostatuaren prezioen indizeak jasaten duen eboluzioa ikusiko dugu eta honez gain, hostalek izan duten prezioen indizeekin konparatuko dugu.


25. GRAFIKOA: LANDA TURISMOKO OSTATUEN PREZIO INDIZEEN EBOLUZIOA (IPTR), VERSUS HOSTALEN PREZIO INDIZEA (IPH), 2010-2016 URTEAK



Iturria: Hosteltur, 2016ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Bi indize hauek konparatzen baditugu ikus dezakegu badirela puntu batzuk indizeak ia berdinak direnak. Hau gertatzen da 2012 eta 2014. urteetan ia bat egiten baitute. 2010. urtean prezioen indize negatibo batekin aurkitzen gara, eta landa turismoaren prezioen indizeak balio negatiboa hartzen du 2013. urtean ere. Gainerako urteetan indize positiboak ikusiko ditugu, 2016. urtean bi indizeen arteko diferentzia nabarmena izanik. INEren arabera, prezioak 20 eta 30 euroren artean ibiltzen dira gaueko eta pertsonako. 2016. urtean, landa etxeek gorakada esanguratsu bat izan zuten prezioa 15 eurokoa izan zelako gutxi gora behera eta 2015. urtean ostatu hauek %4,4a aurkezten zuten bitartean, 2016. urtean zifra honek %11raiko egin zuen gora. (Hosteltur, 2016a)

29. IRUDIA: LANDA TURISMOKO EGONALDIETAN GASTATUTAKOIA



Iturria: Observatorio del turismo rural, 2014¹⁵.

1.MAPA: BATEZ BESTEKO LANDA TURISTAREN GASTUA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA.



Iturria: Observatorio del turismo rural, 2014.

Azken bi urteetan landa turismoa praktikatu zuten turistek bat egin ostean, gehienek 21€ eta 30€ artean gastatzen dutela esan zuten pertsonako eta eguneko (%31,8), hala ere, nazio mailako batez bestekoa hartzen badugu kontutan, 44€raino igotzen da zifra hau pertsonako eta eguneko.


¹⁵ Espainiako landa turismoan gastaturikoa eta turisten bidaiatzeko maiztasuna aztertzerako orduan 2014.urteko datuetan oinarritu naiz.

Turespañako datuen arabera, 2012. urtean, batez besteko eguneko gastua Espainiako egoiliarrentzat beraien herrialdean 31,9€koa izan zen eta aldiz egoiliarrek ez direnentzat 108,4€. Honela ikus dezakegu nola landa turistak eta bere 44€ak batez besteko kontsumo orokorra gainditzen duten eta honetaz aparte ikus dezakegu nola nazioko landa turista, atzerriko bezeroak aurkezten dituen zifretatik oso urruti dagoen.

Adinak ere eragina izan ohi du oporretan gastatzen denarekin, izan ere, 20 urte baino gutxiago dutenek 29,48€/eguneko gastatzen dute batez bestez, baina 20 – 30 urteko bidaiariekin konparatuz gero diferentzia handia sumatuko dugu, 40€/eguneko gastatzen baitute batez bestez. Hortik aurrera diferentzia hauek ez dira hain handiak, 31 – 40 urteko turistek 44,3€/eguneko gastatzen dute batez bestez, 41 – 50 urtekoek 45,83€/eguneko eta zifra altuena 50 urte baino gehiagokoetan aurkituko dugu 52,66€/eguneko gastatzen dutelarik.

Aurretik jarritako mapa erreparatzen badugu, autonomia erkidego gehienetan 36€ eta 45€ tartean gastatu ohi da: Galizian, Gaztela eta Leonen, Nafarroan, Aragoi, Gaztela Mantxan, Balentziako erkidegoan, Murtzian, Andaluzian eta Kanarietan. Bestalde, badira erkidego batzuk non zifra honek 46 – 55€ tarteko balioak hartzen dituela: Asturias, Euskadi, Errioxa, Katalunia, Madril eta Estremadura. Nabarmendu beharra dago Kantabrian gastu hau ez dela 35€ra iristen eta Balearretan gastu honek 56€ak gainditzen dituela (Observatorio del turismo rural, 2014).

2. MAPA: ZENBATEKO MAIZTASUNAREKIN BIDAITZEN DUTEN TURISTEK



Iturria: Observatorio del turismo rural, 2014.

Ikerketa honekin ikus dezakegu turistak zenbat aldiz praktikatu dezakeen landa turismoa urte batean zehar. Mapan aztertu dezakegun bezala, bidaiarien gehiengoak 2-3 aldiz bidaiatzen du urtean zehar (%45,3). Beraz, landa turismoa gehien praktikatzen duten turistak erkidego hauetakoak direla ondoriozta dezakegu: Asturias, Kantabria, Gaztela eta Lehoi, Aragoi, Gaztela eta Mantxa, Estremadura eta Andaluzia. Gainerakoek soilik urtean behin praktikatzen dute.


6.4. Espainiako autonomia erkidegoen garrantzia landa turismoan

Azpiko grafikoan ikus daitekeen bezala, Gaztela eta Lehoi da landa turismoko bidaiari gehien biltzen dituen autonomia erkidegoa, 2014ean esaterako ia 600.000 bidaiari hurbilarazi

baitzitu. Bigarren autonomia erkidego bisitatuena berriz Katalunia litzateke, 332.763 bidaiarirekin 2014ean.

Kasu honetan, 2001. urtean Nafarroa zortzigarren postuan zegoen, baina 2014rako estatu mailako postu hau guztiz galdu zuen. Hala ere, ezin da erkidego bakoitza bidaiari kopuru hutsarekin konparatu, izan ere zonalde bakoitzeko populazioa, elkarre autonomikoaren azalera... ez baitira berdinak. Honengatik ezin ditugu alderatu Gaztela eta Lehoi eta Errioxa, izan ere, lehenengoak eremu askoz zabalagoa eta biztanleria handiagoa duenez landa-etxe gehiago izateko aukerak dauzka.

26.GRAFIKOA: LANDA TURISMOA ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOETAN 2005-2017. BIDAIARI KOPURUA



Iturria: INE, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Horregatik, etortzen diren bidaiarien kopurua autonomia erkidego bakoitzeko biztanleria eta km²ekin daukan erlazioa aztertuko dugu hurrengo taulan agertzen diren datuekin (datu horiek hori koloreko gama batez daude estalirik, honela datu esanguratsuenak hori ilunagoz koloreztaturik egongo dira).

2017ko datu hauei (azpiko taulakoak) begiratuta argi dago landa turismoaren bidaiarien hazkunde handiena Andaluziak, Balear Uhartek, Extremadurak eta Gaztela Mantxak jasan dutela. Kontutan hartu, datu honek autonomia erkidego bakoitzean eman den hazkundea bakarrik erakusten digula (2005eko datuak oinarritzat harturik), honek ez baitu esan nahi datu hoberenak haienak direnik. Hortaz, lehenengo ehuneko horiek ez dute esan nahi turista gehien jaso dituen autonomia erkidegoa Balear Uhartek izan denik, izan ere aurreko grafikoa ikus dezakegu Balear Uhartetako landa turisten kopurua 250.000 ingurukoa dela, Gaztela eta Leonen ia 750.000 bidaiarietatik oso urrun.

4.TAULA: ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGO EZBERDINETAKO BIDAARIEN DATUAK 2005-2017 URTEETAN

	Bidaiarien bilakaera ehunekotan 2005-2017	Bidaiari kopurua per capita (2017)	Bidaiari kopurua km2ko (2017)
Andaluzia	%144,25	0,0404	3,874
Aragoi	%105,55	0,1392	3,839
Asturias	%118,64	0,2761	26,677
Balear Uharteak	%273,07	0,2296	54,12
Kanariar Uharteak	%125,18	0,0414	11,833
Kantabria	%69,92	0,4397	48,014
Gaztela eta Leon	%83,89	0,3158	8,07
Gaztela Mantxa	%173,28	0,1395	3,565
Katalunia	%92,99	0,0586	13,719
Balentzia	%50,51	0,0354	7,535
Extremadura	%197,67	0,1836	4,706
Galizia	%45,11	0,0802	7,321
Madril	%126,92	0,0223	18,268
Murtzia	%41,01	0,0364	4,761
Nafarroa	%107,38	0,2344	14,579
Euskadi	%84,14	0,0763	22,926
Errioxa	%98,17	0,1284	7,959

Iturria: INE, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko taula.

Zonalde bakoitzeko populazioa eta km2ekin alderatutako datuei begiratzen badiegu ordea, argi dago Kantabria dela kilometro karratuekiko eta biztanleekiko bidaiari kopuru gehien hartzen dituen autonomia erkidegoa. Hortaz, proportzionalki, 2017. urtean landa-turista gehien hartu zituen autonomia erkidegoa Kantabria zela esan daiteke.

Nafarroa, erkidego hauek baino postu txarragoan dagoen arren, esan beharra dago ez dituela batere emaitza txarrak jaso. Espainiako 2005etik 2017rako bilakaeraren batz bestekoa baino datu okerragoak dauzka Nafarroak, hala ere gainontzeko bi datuetan estatuko emaitzak baino hobek dauzka. Honek esan nahi duena da 2005erako Nafarroako landa turismoa nahiko garatua zegoela, eta nahiz eta 2017. urte bitartean ez duen gainontzeko zonaldeek bezain hazkunde altua eduki, beste autonomia erkidegoek baino landa turista gehiago ostaturatzen ditu urtero.

7. TURISMOAREN EGOERA NAFARROAN

Eskualdera gerturaten hasteko, batez ere Urdazubiko herrira, Nafarroa aztertzea beharrezkoa izanen dugu, erkidego honetan kokatzen delarik herri hau. Honen bidez, eskualdea ezagutzen joango gara Ipar- mendebalderantz hurbiltzen goazen heinean.

7.1. Nafarroako eskualdeak¹⁶

Nafarroako Foru Erkidegoak, bere hiriburua Iruñea izanik, 10.932 km karratuko azalera du, 160 km iparraldetik hegoaldera eta 120 km ekialdetik mendebaldera gutxi gora behera. 640.000 biztanleri bizi dira bertan eta horietatik 200.000 inguru hiriburuan bizi dira.

Nafarroan hiru eskualde biogeografiko ezberdin aurki ditzakegu, kasu bakarra izanik Espainian: alpinoa ipar-ekialdean, atlantikoa ipar-mendebaldean eta mediterranea hegoaldean. Barietate honek urteetan zehar paisaia eta klima ezberdineko erkidego bat sortu du (Nafarroako Erresuma, 2019)

Bestalde, Nafarroako eremuak azaltzerako orduan, lau eremu pertsonalitate propioarekin bereiziko ditugu:

1. Pirineoak:

Iparaldean kokaturik, eskualde berdea bezala ezagutuko dugu. Ekialdeko gailur handiak, Belagua eta Erronkarin, txikitzen joaten dira Aezkoa, Baztan eta Bidasoara iristen doazen heinean, Kantauri itsasora hurbilduz.

Erronkarin jatorriz glaziarra izan zen Belaguako ibarra aurki daiteke edo Larrako Erreserba Naturala. Mendebaldean, Iratiko oihana, Kintoa edo Bertizeko Parke Naturalak nabarmentzen dute eskualdea.

Baztan aldetik berriz, leku oso enblematikoekin egin daiteke topo, Urdazubi eta Zugarramurdiko leizeak oso ezagunak izanik esate baterako.

Mendebaldera mugituz gero, Urbasako parke naturala eta Aralar mendia dira toki ospetsuenak (Nafarroako Erresuma, 2019)

2. Iruñerria:

Iruñea, Pirinioren azpialdean kokatzen den hiri berde eta gotortua da. Monumentu ospetsuak ezagutu daitezke, hala nola, Santa Maria katedrala, San Saturnino eta San Nikolas eliza-gotorlekuak edo Kontuen Ganbera. Honez gain, monumentu nazional bezala izendatuta dago Erdi Aroko harresia.

San Ferminek jende asko erakartzen dute hirira, mundu guztian ezaguna izanik, uztailaren 7tik 14 ospatuz urtero. San Lorentzo elizan San Fermin kapera aurkitu daiteke.

Bestetik, estilo desberdineko parkeak daude hirian: Yamaguchiko parke japoniarra, Takonerako parke frantsesa, Zitudelako harresia, Media Lunako erromantikoa etab. (Nafarroako Erresuma, 2019)

3. Nafarroako erdialdea:

¹⁶ Nafarroako turismo orriaren arabera, 4 eskualde bereizten dira (Pirineoak, Iruñerria, Nafarroako erdialdea eta Erribera. Hala ere, Landa turismoa aztertzerako orduan, hiru eskualde bereiziko dira: Pirineoak, Ipar-mendebaldea eta Nafarroako gainerako zonaldeak.

Herri gotortuak, harresiak, gazteluak eta jauregiak aurki daitezke lurralde honen ezaugarri diren muino, harresi eta zereal-soroetan. Ekialdetik mendebaldera zeharkatuz gero, Zangotza aurkituko dugu lehenengo eta handik hurbil, oso ezaguna den Leireko monasterioa eta Xabierko gaztelua.

Errioxako bidean zehar Lizarra aurkituko dugu, hiri oso historikoa izanik. Inguru honetan, Iratxe eta Irantzuko monasterioak ezagutu daitezke, azken hau Urbasa mendian egonik. Bestalde, Urederreko ur turkesak protagonista dira eskualde honetan, urtero turista askok bisitatzten dutelarik (Nafarroako Erresuma, 2019).

4. Erribera:

Erribera lurralde laua da, makal, sahats eta txopoz beteriko ibai-ertzak dituena eta Bardeetako Parke Natural ikusgarri bat du, erdi basamortua izanik leku hau. Tuteran du hiriburu, arabiarrek eraiki zuten IX. mendean, eta bertan, poeta eta filosofo garrantzitsuak sortu ziren.


Eskualde honetan oso bisitatuak dira La Olivako monasterioa eta Fiteroko edo Tulebraseko monasterioak. Ezin dugu ahaztu barazkien erresuman gaudela, izan ere, bertako baratzeek nazioartean ospea duten produktuak eskaintzen baitituzte, kukuluak, zainzuriak edo alkatxofak dira horietako batzuk (Nafarroako Erresuma, 2019).

7.2. Nafarroako landa turismoaren garapena

Goiko lerroetan esan bezala, Nafarroan nahiko azkar hasi zen garrantzia hartzen landa turismoa eta esan daiteke estatu mailan landa turismoaren inguruan lan egiten hasi ziren lehenengoetariko bat izan zela. Hala ere, probintziako bestelako turismo motarekin alderatuko dut, landa turismoaren garrantzia nolakoa den aztertzeko. Horretarako kontutan hartu behar da munduko ia leku guztietako ostatuaren inguruan hitz egiten ari garenean normalean hotelei buruz ariko garela. Hortaz, bestelako ostatuaren (kanpinen, pentsioen, hostalen, aterpetxeen, ...) okupazio mailak gora egiten dutenean eta zonalde horretako turismo mota aldatzen ari denean, normalean hotelen bidaiari kopurua murrizten ari garela esan nahiko du, turismo mota berrien mesederako.

Nafarroako Estatistikaren Institutuko (NEI, 2017) azken datuak harturik, 2017an Nafarroak hartu zituen bidaiari mota guztiak honela sailka genitzake.


27. GRAFIKOA: NAFARROAKO OSTATU TURISTIKOETAKO BIDAIARIEN EHUNENKOA



Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutua, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Aurretik esandakoa grafiko honek baieztatzen digu, normalean gehiengoa hotelak direla esaterakoan, Nafarroaren kasuan %74a izanik. Ostatu mota honek hala ere beti izango ditu datu altuenak, hiriburuak pertsona gehiagok bisitatzen dituztelako eta bertako ostatu ohikoena hotelak izaten direlako.


28.GRAFIKOA NAFARROAKO OSTATU TURISTIKOETAKO GAUALDIEN EHUNEKOAK



Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutua, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoak.

Gaualdiei dagokionez, ikusi dezakegu hoteletan direla nagusi argi eta garbi %67a hartzen baitute. Landa turismoa eta kanpinak dauzkagu honen atzetik baino diferentzia handiarekin, %11ko ehunekoak baitute. Ehuneko txikiago batekin %9arekin hain zuzen ere, apartamentua egongo lirarteke eta azkenik oso garrantzi txikiarekin, %2arekin, aterpetxeak.

29.GRAFIKOA: TURISTA MOTA EZBERDINEN EBOLUZIOA NAFARROAN 2005-2017 URTEETAN



Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutua, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoak.

Hazkunde tasa handiena jasan duen ostatu mota "apartamentuak" izan dira. Azken hamabi urte horietan emandako hazkundeak %209,49koa izan baita. Hala ere, NEIko datuen arabera 2017. urteko apartamentuetan lo egin zuten bidaiari kopurua 81.994koa da, eta hotelena berriz


1.021.133 pertsonakoa. Hortaz, nahiz eta hazkundera oso handia izan, konturatu beharra gara apartamentuetan egondako turisten kopurua 2005. urtean oso baxua zela eta hau hainbeste haztea ez dela hain zaila izan, besteekin konparatuz (INE, 2017).

7.3. Landa turismoa Nafarroako zonalde ezberdinetan

NEIko turismoaren inguruko datuak Nafarroaren barruan hiru eskualde handitan banatzen dira: Ipar- mendebaldea, Nafarroako Pirinioak eta gainontzeko Nafarroako zonalde guztiak. Honela, zonalde hauek landa turismoaren inguruan izan dituzten ezberdintasunak aztertu ditzakegu.

Nafarroako zonalde ezberdinek ostatu mota desberdinak dituzte, izan ere mendialdeko eskualde batek proportzionalki landa-etxe gehiago edukiko ditu hotelak baino, eta hiri batean berriz hotelak ugariagoak izango dira. Hurrengo grafikoak azken urteetako Nafarroako zonalde ezberdinetako landa turismoaren eboluzioa nolakoa izan den erakusten digu.

30.GRAFIKOA: 2011-2017an NAFARROAKO LANDA TURISMOAREN BILAKAERA ZONALDEKA (2011ko DATUAK OINARRITZAT HARTURIK)



Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutua, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.


Nahiz eta zonalde ezberdinek bilakaera ezberdina izan, 2013ko emaitzak txarrak izan dira Nafarroako landa turismoarentzat orokorrean, hiru zonaldeek jaitsiera eman baitute. Hala ere, esan beharra dago, Pirinioko eskualdeak ez beste guztiek 2014rako aurreko urteko datuak hobetu zituztela, bilakaera positibo bat emanik. Kontutan hartzekoa da ere, "Gainontzeko Nafarroako zonaldeak" datuek ez dutela informazio zehatzik ematen, orokorregiak baitira, eta ezin da jakin Iruñerriak, Lizarra aldeak edo beste eskualderen batek zer-nolako garapena izan duen urte horietan.

2014. urtetik aurrera ipar-mendebalde eta Piriniotan hazten joan da turismo mota hau. Gainontzeko Nafarroako zonaldeetan berriz 2016. urtetik aurrera hasi da hazten. Horregatik, Nafarroako landa turismoa garapen handiago baten bidean dagoela esan daiteke.

7.4. Ipar-mendebaldearen garrantzia Nafarroa osoarekin konparatuta

Aurreko grafikoetan ikusi dugun bezala, azken hamarkadan landa turismoak gora egiteko joera hartzen ari du, eta Ipar-mendebaldeko eskualdeko gorakada sakonago aztertuko dut hurrengo lerroetan. Nafarroako Ipar-mendebaldeko eskualde hau izan da azken urteetan proportzionalki landa turismoaren alorrean Nafarroa osoak baino portzentaje altuago bat lortu duen zonaldea. Nafarroako eremu hau, Nafarroako aurre-Pirinioko zonaldea ere dei geniezaioke.

31.GRAFIKOA: 2017ko NAFARROA OSOKO ETA IPAR-MENDEBALDEKO BI TURISMO MOTEN ALDEA (%tan)



Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutua, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa¹⁷.

Goiko grafikoan Nafarroa osoko hotel eta landa-etxeetako turismoaren portzentajeak agertzen dira, eta gauza bera Ipar-mendebaldeko eskualdearen kasuan. Ipar mendebaldeko landa turismoaren ehuneko handiagoa da Nafarroa osokoa baino, %42 eta %13 hurrenez hurren.


Arrazoi nagusia, hasieran aipatutako eskualdearen ezaugarriak izan daitezke, izan ere landa eremuetara turismoa egitera hurbiltzen den jendea normalean mendiko eta naturarekiko hurbiltasuna duten opor mota baten bila doazelako izaten da. Hortaz, logikoa den bezala, landa etxeen kontzentrazio maila altuagoa da landa eremuetan, hirira hurbiltzen garenean baino. Hau aztertzeke analisi sozioekonomiko bat egin beharko litzateke, landa eremuetara joaten diren pertsonen ezaugarriak kontuan hartuz.

7.5. Landa turismoko bidaiarien jatorriaren araberako eboluzioa

Nafarroako Ipar-mendebaldeko turistak normalean estatukoak izan arren, gero eta atzerritar gehiago sumatzen da bertako ostatuetan. Hauetariko gehienak Frantsesak izaten dira, Frantziako mugan kokatuta baitago eskualdea.

¹⁷ Ez dira kanpin eta apartamenduen datuak hartu, ez baitira berdin zatitzen Nafarroako zonaldeak turismo ezberdinetan, eta horregatik kanpin eta apartamentuen datuak Nafarroa osokoak bakarrik dauzkagu

32.GRAFIKOA: IPAR- MENDEBALDEKO LANDA TURISMOAREN BIDAIARIAK JATORRIAREN ARABERA 2005-2017an (%)



Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutua, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Datuak portzentajeetan daude azalduta 2005-2017 urteetarako, honela ikus daiteke nahiz eta oraindik oso zenbaki txikia izan, landa etxeetara etortzen diren kanpotarren kopurua gero eta ugariagoa dela. Horren erakusle dugu 2005ean landa turisten %1,13a jatorri atzerritarrekoak zirela, eta 2017ean berriz landa turisten %4,94a. Nahiz eta 2013an hazkunde honek jaitsiera bat izan zuen, orokorrean gora egin du jatorri atzerritarreko turisten kopuruak.

7.6. Nafarroako ipar-mendebaldeko landa turismoaren datu batzuk

Hurrengo datu hauek ere Nafarroako Ipar-mendebaldean landa turismoan eman diren datuak dira: 2005etik 2017ra logelen okupazio maila ehunekotan eta urte tarte berean irekita egon diren landa etxeen kopurua agertzen da bertan.

Informazio hau hobeto ulertzeko, esan beharra dago, normalean udako hilabeteetako landa turismoko okupazio maila %28-50 inguruan ibiltzen dela, eta 3-4 eguneko zubiak izaten direnean berriz (Pilarikako zubia, Aste Santua, Abendu hasierako egunen zubia...) %90era iritxi daitekeela gehienez ere (EFE, 2017¹⁸). Hortaz, landa etxe baten urteko okupazio mailaren batz besteko datuak %20-25 ingurukoak izaten dira normalean.

¹⁸ <http://www.efe.com/efe/espana/economia/la-ocupacion-del-turismo-rural-mejora-en-verano-por-los-viajeros-nacionales/10003-2688802>

5.TAULA: LANDA TURISMOAREN 2005-2014ko IPAR- MENDEBALDEKO DATUAK

	LOGELEN OKUPAZIO MAILA (%TAN)	IREKITA DAUDEN ESTABLEZIMENDU KOPURUA
2005	27,28	218
2006	26,86	203
2007	28,30	201
2008	29,66	248
2009	24,76	258
2010	24,96	256
2011	21,18	299
2012	18,51	305
2013	16,90	304
2014	18,97	284
2015	21,72	284
2016	22,91	273
2017	27,96	275

Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutua, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko taula.

Taula aztertuta argi dago urte bakoitzeko gelen okupazio mailak behera egin duela eta irekita dauden establezimendu kopuruak berriz gora. Ondorioz, honek esan nahi du nahiz eta turismoa gora doan, dauden landa etxe kopuruak gehiegizkoak direla, eta hortaz, geroz eta landa etxe gehiago izan, orduan eta gelen okupazio maila txikiagoa izango dela.


Hala ere 2013tik 2014ra, 20 establezimendu gutxiago daude eskualdean eta landa turismoaren datuak azken hamarkadako onenak direnez, gelen okupazio mailak gora egin du. Hala ere, NEIko azken txostenek diotenez, bidaiarien batz besteko egonaldia 2005. urtean 3,6 egunekoa zen, eta 2017an berriz 3,3 egunekoak. Honek ere adierazten du nola bidaiarien kopuruak gora egin badu ere, haien opor egunak motzagoak direla batz beste.

2017ko gelen okupazioen hazkunde honek 2018an ere jarraituko balu, bertako biztanleen ekonomiarentzako onurak ekarriko lituzke, hobea baita gelen okupazio mailak gora egitea eta hauek irabazi batzuk izatea, landa etxeek gora egitea eta galerak izatea baino.

7.7. Landa turismoaren bilakaera kuantitatiboa eta krisiaren eragina

Landa turismoaren azken urteetako garapena eta 2007an hasi zen krisi ekonomikoaren eragina maila desberdinetan aztertu nahi izan ditut. Horretarako, 2005etik hasita landa turismoaren datuak aztertuko ditugu, ikusteko orokorrean nolakoa izan den azken hamarkadako Espainiako, Nafarroako eta Nafarroako ipar-mendebaldeko garapena. Ondorengo grafikoa egiteko leku bakoitzeko landa turista kopurua hartu da kontuan eta leku bakoitzaren 2005eko datuak hartu dira oinarritzat (100 indizeak).

33.GRAFIKOA: 2005-2017 URTEETAKO LANDA TURISMOAREN EBOLUZIOA ESPAINIA, NAFARROA ETA IPAR - MENDEBALDEAN




Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutu, 2017ko datuetatik abiatuta autoreak eginiko grafikoa.

Grafikoa begiratu eta bi joera mota daude: alde batetik, Espainiako estatu osoarena, eta beste aldetik Nafarroa osoarena eta Nafarroako Ipar-mendebaldearena (azken bi hauen bilakaera nahiko berdintsua denez elkarrekin aztertuko ditugu, Nafarroa hitzarekin izendatuz). Argi ikus dezakegu 2005-2007 urteetan landa turisten kopuruak gora egin duela. Tarte honetan gorakada esanguratsuen estatu mailan ematen da, nahiz eta beste bietan ere gorakada egon den. Hala ere, nahiz eta 2008. urtean Nafarroako datuek gora egin, Espainiako datuei begiratuz beherakada txiki bat ematen da. Momentu honetatik aurrera estatuko datuak ez dira askorik aldatzen 2013ra arte. Baina Nafarroan bestelako aldaketak ematen dira: 2009an bidaiarien jaitsiera bat ematen da, baina hurrengo bi urteetako datuek hobera egiten dute. 2012an berriz, Nafarroako landa turismoak beherakada handia ematen du, baina 2013. urtetik aurrera, Espainian bezala, zifrak handitzen hasten dira gaur egun arte.

Horrela bada, esan daiteke krisia ekonomikoaren hasiera 2008an ematen dela Espainiako landa turismo osoarentzako, eta urtebete beranduago sumatzen dela Nafarroako landa turismoan. Hala ere, bigarren beherakada handia 2013an jasaten du landa turismoak, bai Nafarroan eta baita Espainiar estatu guztian ere. 2014rako berriz datuek gora egiten dute gaur egun arte.

Behin Urdazubiko datuak lortuta, aurreko egoerekin konparazio txiki bat egingo da zer nolako diferentziak egon diren ikusteko. Urdazubiko herriko etxeak 2013. urtetik aurrerako datuak eman dizkigunez, urte horrekiko egingo ditugu konparaketa.

34.GRAFIKOA: 2013 – 2017 URTEETAKO LANDA TURISMOAREN BILAKAERA ESTATU MAILAN ETA ZONALDE EZBERDINETAN



Iturria: Nafarroaren Estatistikaren Institutua, 2017ko eta Urdazubiko udaleko datuekin autoreak eginiko grafikoa.

2013ko datuak oinarritzat harturik, aztertu ditugun lau adierazle hauen bilakaera berdina da, hau da 4ek gora egiteko joera daukate. Espainiak orokorrean gora egiten du urtero gelditu gabe, Nafarroaren kasuan, 2015. urtean pixka bat motelagoa izan da besteetan baino baina hala ere gora eginez. Ipar-mendebaldea eta Urdazubi dira motelen hazten ari direnak 2015. urtean nahiko konstante mantentzen direlarik. Beraz Nafarroa da argi eta garbi hazkunde handiena jasaten ari duena, Espainiak jarraitzen dio hurbil-hurbiletik, Ipar-mendebaldean jada diferentzia pixka bat ikus dezakegu eboluzio honi dagokionez eta azkeneko postuan Urdazubi edukiko genuke eboluzioa positiboa izan arren ez baitu besteek bezain handia.

Urdazubiren kasua aipatu beharra dago biztanle oso gutxiko herria dela eta hortaz eboluzioa ez dela hain nabarmena besteetan bezala. 400 biztanleko herri honek 2017. urtean (Udaletxeak emandako zifra) 40.000 turistatik gora jaso zituen, herriak dituen biztanleekin konparatuta diferentzia ikaragarria da. 2013. urtearekiko %133,33ko hazkundera izan du beraz pozik egoteko moduko balioa dela diote herritarrek. Honez gain, Urdazubin egon den turismo mota landa turismoa izan da betidanik, hortaz honen eboluzioa nahiko konstantea da, jadanik ezaguna baita. Aldiz, Nafarroaren kasuan landa turismoa garatzen ari da zenbait zonaldeetan, hortaz egoera hau berria izanik turisten kuriositatea pizten du, eboluzioa handiagoa izanik.

Fenomeno honek, krisi ekonomikotik ateratzen ari garenaren emaitza izan daitezke, baina baita eskualdeko "momentu moda"-ren ondorio bat ere. Hortaz, ezin dugu esan 400 biztanleko eskualde baten landa-turismoaren hazkundearekin krisiaren bukaera iritsi denik.

7.8. Nafarroako ekonomia beste ekonomiekin alderatuta


7.8.1. Nafarroako Barne Produktu Gordina per capita

2008an, eraikuntzaren sektorearen erorketak hasitako krisiak, finantzen sektorean ere eragin zuen, eta honekin batera gainontzeko sektore guztietan. Honela, 2010etik 2013ra arte Espainiako BPGaren eboluzioa negatiboa izan da (Expansión egunkaria, datosmacro.com), 2014ean buelta eman zion arte, aurreko urtetik %1,4a igoz. Honetaz gain, 2017ko datuak ere %3 inguruko igoera erakusten dute, aurreko urteko datuak kontutan harturik. Hortaz, BPG per capitaren garapenak, turismoaren bidaiari kopuruarekin nahiko erlazio estua duela esan dezakegu, izan ere, azken hamarkadetako bi datu mota hauen bilakaera berdintsua da.

Turismoaren ekonomiak gero eta erlazio estuagoa dauka gainontzeko ekonomiako ekintzekin eta enplegu berriak sortzen ditu, baita errenta altuagoak lortzeko aukera berriak eman ere. Horren adibide bat, lehen sektoreko langileen eta landa etxea dutenen erlazio estua da. Bi lan mota hauen artean errenta on bat lor baitezakete baserritarrek eta ez dute urtaro guztietan berdin kasu egin beharrik haien lanei (neguan aziendei kasu gehiago eginez eta udan berriz landa etxera heldu direnei).

Turismoaren eragin ekonomikoa aztertzeko, zonalde ezberdinetako BPG per capita aztertuko da hurrengo grafikoan.

30.IRUDIA: BPG PER CAPITA 2017 URTERAKO ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGO EZBERDINETAN



Iturria: INE, 2017.

2014ko Espainiako autonomia erkidego bakoitzaren BPG per capita erakusten digun grafiko hau aztertuz, ikus dezakegu Nafarroako Barne Produktu Gordina per capita altuagoa dela Espainiako baino. Honen arabera Nafarroako ekonomia momentu horretan hobeto dago Espainiako beste zonalde batzuekin alderatuta eta gainera, 2012 eta 2013 urteetan emandako bilakaera


negatiboa da eta gero berriz ere %3ko hazkundera eman du 2017ean, aurreko urteari dagokionez (Expansión, datosmacro.com¹⁹).

Hala ere, probintzia, autonomia erkidego edo herrialde bakoitzeko ekonomia faktore desberdin ugarik sortzen dute, eta horregatik turismoari dagokion portzentajeak BPGaren zati bat bakarrik esaten digu, hortaz beste adierazle bat behar da turismoaren eragin ekonomikoa aztertzeko.

7.8.2. Nafarroako Biztanleria Aktiboaren Inkesta²⁰

Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkesta hiruhilero egiten da Espainiar Estatuan, jakiteko zenbat pertsona ari den lanean momentu bakoitzean, eta zenbat dauden langabezia. Inkesta hau probintzia eta eskualdeka ere jakin daiteke, beraz Nafarroako eta Baztango bailarako langabezia tasak aztertuko dira hurrengo lerroetan, bertako ekonomia hobeto ulertzeko.

3.MAPA: ESPAINIAKO 2017KO 4.HIRUHILEKO BAIREN LANGABEZIA TASA



Iturria: Expansión/datosmacro.com, EPA, 2017ko datuez baliatuz.

Goiko mapak erakusten digenez, argi dago Espainiar estatuko iparralderago dauden autonomia erkidegoek langabezia tasa hobeak dituztela (berdez dauden autonomia erkidegoak), estatuaren hegoaldean daudenek baino (gorri kolorez margotutako autonomia erkidegoak). 2017ko laugarren hiruhilabeteko langabezia tasa baxuena duten elkarte autonomoak Nafarroa (%9,6) eta Aragoi (%11,4) dira (BAI, 2017). Honek erakusten digu, lehenago esan bezala, Nafarroak bizi kalitate onenatariko bat duela estatu mailan (datu ekonomikoak kontutan hartuta).

Hala ere, balio hauen (Nafarroako langabezia tasaren) azpitik dago Europako batz besteko langabezia tasa (Expansión, datosmacro.com, 2017), izan ere Espainia da bigarren langabezia tasa altuena (%16,5) duen herrialdea Europa mailan, Greziaren (%20,8) atzetik.

7.8.3. Urdazubiko versus Nafarroako eta Espainiar estatuko langabezia tasa


Testuan zehar aipatzen den bezala, Urdazubiko turismoaren zati handiena edo guztia esatera ausartuko nintzateke landa turismoari dagokio. Honek bertako ekonomiari nola eragiten dion adierazteko bertako azken urteetako langabezia tasa (Expansiónen datosmacro.com

¹⁹ <http://www.datosmacro.com/pib/espana-comunidades-autonomas/navarra>

²⁰ BAI = EPA: Encuesta de Población Activa

departamentuko datuak, EPAko datuez baliatuz) estatuko datuekin eta Nafarroakoekin alderatu dira.

35.GRAFIKOA: 2007-2017 URTEETAKO LANGABEZIA TASAREN (EPA) DATUAK (%), ESPAINIAN, NAFARROAN ETA URDAZUBIN



Iturria: Expansi3n, datosmacro.com, 2017ko datuetatik abiatuz autoreak eginiko grafikoa.

Krisi ekonomikoaren eragina nabaria da hiru zonaldeetako langabezia tasa datuetan: BAIko datuen arabera 2008. urtetik aurrera langabezia tasak leku guztietan egiten du gora. Espainian eta Nafarroan 2013ra arte egiten du gora, hortik aurrera jaisten hasten delarik, baina Urdazubin gora behera handiak egon direla ikusi dezakegu. Bilakaera edo eboluzio hau zonalde hauetan gutxi gora behera proportzionala dela esan dezakegun arren, nabarmena da Urdazubiko portzentajeak askoz txikiagoak (2017ko azaroan %5,98ko langabezia tasarekin) direla Nafarroako batz bestekoarekin baino (Expansi3n, datosmacro.com). Honek ez du esan nahi Urdazubiko eskualdeak ez duenik krisi ekonomikorik sumatzen, baizik eta leku askotan gertatzen den bezala, bertako biztanleetako batzuk hiri handiagoetara joaten direla bizitzera, lana aurkitzeko esperantzarekin, eta beste zenbait atzerrira ere bai. Fenomeno hau argi ikus daiteke Urdazubik 2000. urtetik aurrera biztanle kopurua gutxitzen joan baita gora behera txiki batzuekin. (NEI,2017)

8. IKERKETA ENPIRIKOA

Turismoaren inguruko datu esanguratsuenak aztertu ondoren, zati teoriko hau praktikan abian jartzeko lau elkarrizketek lagunduko digute. Elkarrizketa hauen bidez aurretik aipaturiko datu horiek Urdazubiko turismoan nola eragiten duten ikusten lagunduko digute. Hau aurrera eraman ahal izateko Urdazubiko turismoaz ezagutzak dituzten lau pertsonak lagundu didate nire galderak erantzuten. Landa etxeari buruz hausnartu eta ondorioak atera ahal izateko Urdazubin landa etxea duen pertsona bati egin diot elkarrizketa, elementu edo eremu turistikoari buruz aztertzeko azken hemeretzi urteetan honen inguruan jardun duen Baztango gizonezko bati, herriko tabernara agertzen diren turisteari buruz bizitza osoan taberna batean lan egin duen

emakume bati eta azkenik alderdi orokorra aztertzeo azken zortzi urteetan herriko alkatearen laguntza izan dut.

Galdera hauen erantzunak gaika ordenatuak izan dira eta testu moduan idatziak. Bakoitzaren ikuspuntua eta iritzia adieraziko da eta guzti honen bidez ondorioak aterako dira. Galdera hauek testuan idazten hasi aurretik, elkarrizketatuak izan diren pertsonaiak aurkeztuko ditut:

Ana Mari Almandoz: landa etxearen inguruko erantzunak lortzen lagundu dit Ana Mari. Aspalditik du landa etxe bat Urdazubin eta hortaz galdera hauek erantzuteko pertsona aproposena dela iruditu zait.

Gregorio Hualde (Gollo): Urdazubiko kobazulo eta errotaz arduratzen den langilea da. Urte asko daramazki lanpostu honetan eta oso aditua da arlo honetan. Lezeen inguruan nituen galderei erantzuten lagundu dit, hau izanik herriko leku turistikoena.

Anastasia Vidart: herriko plaza ondoko etxean bizi den emakumea dugu Anaxtaxi, urte askotan taberna bat izan du herrian bertan eta herrira urbildu den jende asko ikusi du. Urdazubiko monasterioaren historiaz aditua da emakume hau eta plazan bertan bizi izanik asko daki turismoaz.

Santiago Villares: herriko alkatea dugu gizonezko hau. Azken zortzi urteetan egon da alkate eta zenbait ekitaldi egin ditu turistak erakartzeko. Turismoaren inguruko herriko datu orokorrak lortzen lagundu dit Santiago.

Elkarrizketatuak izan diren lau pertsonaia hauek ezagutu ondoren, jaso diren erantzunak azaleratzeko aukera izango dugu hemendik aurrera. Galderekin hasteko, pertsona bakoitzari galdera berdin batzuk egitea erabaki dut eta horrela ikusi bakoitzak ze ikuspuntu duen. Hasierako galdera horiek egin eta gero, bakoitzari berari dagokion gaiari buruzko galderak egin zaizkio.

8.1. Sorlekua eta turismoarekiko iritzia

Lehenago pertsona elkarrizketatua Ana Mari izan da; Ana Mari Urdazubin sortua den emakume bat da eta sortu zenetik hemen bizi izan da, 60 urte. Beretako turismoa pertsonen ateraldi bat bezala da, beraien ohiko bizitzatik irtetzeko modu bat, leku berriak ezagutzeko aukera eta deskonektatzeko aukera bat.

Bigarren elkarrizketa abian jartzeko Gollori egin zaio. Elizondon bizi da gizon hau baina 19 urte daramatza Urdazubiko leize eta errotan lanean. Esan dezakegu Urdazubiko turismoaz arduratzen den pertsona dela, izan ere, udaletxeak berari aitortu baitio lanpostu hau. Bere ustez Urdazubi herri oso turistikoa izan da eta da oraindik ere hala izaten jarraitzen du eta Ana Mariren antzera leku berriak ezagutzeko aukera ematen duen jarduera bat da turismoa.

Hirugarren elkarrizketatua Anaxtaxi izan da, emakume hau Ana Mariren antzera Urdazubin sortua da eta bizi guztia darama hemen bizitzen, 69 urte. Bere amak oinordetzan utzitako tabernan lan egin du bizitza osoan zehar, jubilazioan sartu den arte. Hainbeste urtez denetarik ikusi du taberna honetan, mota guztietako turistak, horregatik izan da aukeratua elkarrizketa egiteko. Honez gain, Urdazubin landa etxea eraiki zuen lehengoa izan zen, garai batean ez bait zegoen bat ere ez, ordutik aurrera landa etxeak agertzen hasi ziren bat bestearen atzetik. Turismoa Anaxtaxirentzat pertsona berriak ezagutzeko modu bat izan da eta omen da gaur egun ere. Taberna eta ostatua edukirik turista askorekin harremana izateko aukera izan du eta hain zoragarria iruditu zaionez garrantzi handia ematen dio turismoari emakume honek. Honez gain turismoa, bere definizioak dioen bezala, leku berriak ezagutzeko aukera bat dela dio Anaxtaxik.

Azkeneko elkarrizketatua herriko alkatea izan da hasieran aipatu den bezala. Santitxu, Anamari eta Anaxtaxiren antzera Urdazubin sortua den herritar bat eta 62 urte damatza herri honetan bizitzen. Zortzi urtez alkate izan da hemen, baina aurrean ez du bere burua alkatetzarako aurkeztu, Azkar taldeko seigarren zinegotzi gisa aurkeztua izan da. Hainbeste urte eramanik alkatearen postuan pertsona aiposenetarikoa dela esango nuke Urdazubiko xehetasun guztiei buruz galderak egiteko eta xehetasun horien artean Urdazubiko turismoa. Hasierako galderak aurreko elkarrizketatuei eginiko berdinak izango dira. Santitxurendako turismoak aspektu ezberdinak ditu: alde batetik, bertatik bizi denarentzako bizimodu bat dela pentsatzen du, hau da, turismoari esker lana egiten duten haientzako, (tabernak, turismo bulegoa, leizeetako langileak etab.), familiako ekonomiarentzako laguntza bat. Bestetik, turismoa praktikatzan dutenak egongo lirarteke, hauen helburua modu ezberdinetan mundua ezagutzera izanik, zure burua ireki eta aberasten duelarik. Azkenik, herriari dagokionez, Udaletxearentzako eta herritarrentzako diru-sarrerak lortzeko aukera ematen du turismoak eta honez gain, herria mundu osoan zehar ezagutarazteko. Laburbilduz, hiru aspektu ditu turismoak gizon honentzat, bertatik lana eginez bizi aurrera ateratzen dutenak, mundua ezagutzeko aukera bezala aprobetxatzen dutenak eta herria aberasteko aukera bezala.

8.2. Urdazubi herri turistikoa

Ana Marirentzat Urdazubi leku oso turistikoa da, izan ere, txoko txiki polit asko ditu eta urtean zehar txoko hauek beteta egoten baitira turistez, herriko plazara, leizeetara, monasteriora agertuz gero egunero izango da aukera turistaren bat ikusteko. Urdazubira lehen aldiz etortzen den turista bat izango balitz, hainbat gomendio emango lituzke goitik behera ondo ezagu ahal izateko herria; leizeak ikustea, errota, monasterioa, paisaia ederrak dituen txokoak, Dantxarineako bentak, iparraldeko herriak (Sara, Ainhoa, Senpere, Baiona, Donibane-Loitzune etab.), Baztan aldea, Zugarramurdiko leizeak eta beste zenbait leku turistiko. Hala ere, Ana Marirentzat hoberena turismo bulegora joatea da, bertan jasoko baitute informazio zehatzena.

Golloren ustez, aspalditik hurbiltzen dira turistak herri hontara eta urtez urte gero eta ezagunagoa bihurtzen ari denez turista gehiago ari dira agertzen. Urdazubira agertzen diren turista hauetan eragina du Zugarramurdi ondoan egoteak, herri hau Espainia osoan ezaguna izanik. Asko Zugarramurdi ezagutzeko asmoarekin etortzen dira zonalde honetara eta gero Urdazubiren presentzia ezagutzean azken hau ere bisitatzen dute, dio Gollok. Turista batek bereganatu jotzen duenean kontseilu bila ez dakielako nondik hasi herria ezagutzen Gollok zenbait gomendio ematen dizkie; lehenengo aholkua eta bere ustez garrantzitsuenak Urdazubin ostatu hartzea da gutxienez bi gauz, hotel eta landa etxe andana bat baititu herriak. Ondoren, hemengo gastronomia ezagutzea eta horretarako baserrietako arraultzak, "Etxeleku"-ko gazta, baserrietatik zuzenean saltzen duten esnea etab. Honez gain, gastronomiaz ongi gozatzeko, herrian dauden edozein jatetxeetan geldialdi bat egiteko proposamena egiten du Gollok. Bestetik, herriko leku turistikoak bisitatzen hastea tokatuko litzateke; Urdazubiko "Ikaburu"-ko leizeetatik hasiz, herriko plaza ondoan dagoen errota ikusiko genuke bigarrenik (garai batean artoa nola egiten zuten erakusten dute) eta behin herrian bertan gaudela Urdazubiko Monasterioa, historia oso luze bat duen monastegia izanik. Honez gain, inguruko zenbait ibilaldi egin behar direla dio Gollok, honela paisaia zoragarriak ikusteko aukera izango baitugu eta zenbait txoko pribilegiatu, ibilaldi hauetako batean milurteko zuhaitz bat aurkitu daiteke. Gomendio hauekin bukatzeko inguruko beste herriak bisitatzeko aholkua ematen digu Ana Marik esan zigun bezala, horien artean; iparraldeko herriak (Sara, Ainhoa, Senpere...), Baztan, Malerreka, Bortzirriak etab.

Anaxtaxiren hitzek diotenez, Urdazubi leku turistikoa da bere ustetan, izan ere, herriaren ekonomia, kultura, gastronomia, ingurunea eta orokorrean herri osoa mugitzen duelako. Tabernara egunero agertu zaizkio turistak, hortaz hori baino modu hobegorik ez du justifikatzeko Urdazubi leku turistikoa dela. Anaxtaxi Urdazubira iritsi berri den turista izango balitz lehengo egingo lukeen gauza herriko baten bati gomendioa eskatzea izango litzateke. Turismo bulegora joatea ere gomendatzen du baina lehenik hoberena herriko bati galdetzea omen dela dio, herriko batek bezain hainbeste ez omen baitu inorek ezagutuko herria. Beraz, erran bezala, turismo bulegora joatea bigarren lekuan utziko genuke. Bestetik, herria bisitatzen hasteko lehenik herriaren zati bat inguratzen duen ibilaldia egitea ongi dagoela erraten du Anaxtaxik, ibilbide honek ez baitu ordu bat baino gehiago irauten, modu honetan pixka bat kokatzeko aukera izango dugulako. Ondoren, Dantxarinea ikustea tokatuko litzateke, bertako komertzio erraldoi eta anitzak eta etortzen den jende kopuru ikaragarriaz hausnartzeko. Hau egin ondoren, herriko toki turistikoenak egongo litzateke, hala nola, Ikaburuko leizeak, errota eta monastegia. Hau izango litzateke bere ustez formarik hoberena ongi ezagutzeko eta behin hau dena ikusita, erlaxatzea tokatuko litzateke herriko tabernetako terrazetan exeriz, bertako pintxoak eta tapak dastatuz. Bada zerbait emakume honek herriaz aldatuko lukeena, hala nola, garbitasuna. Ez du esan nahi zikina dagoenik herria, baina esaterako plazan dauden komunak eta basurek garbitasun gehixeago beharko lukete bere ustez. Baina orokorrean oso herri polita dela erran du Anaxtaxik eta ez lukeela beste ezer aldatuko.

Azkenik, Urdazubi herri turistikoa dela dio Santitxuk ere, baina bereizketa batzuk egiten ditu. Turista batzuk ezagutzeko, bidaiatzeko, esperientzia berriak bizitzeko eta leku berriak ezagutzeko intentzioarekin etortzen dira. Baina badira beste turista batzuk, oro har Frantzesak, Dantxarineako komertzioak bisitatzera etortzen direnak. Lehenengo horiek, atseginagoak direla dio eta bigarrenek aldiz ekonomia handia sortzen dutenak. Biak elkartzen baditugu, balio erantsi izugarri bat eskaintzen dutela pentsatzen du eta hori aprobetxatu beharra daukagula herritarrok. Hau dena esanik, herri turistiko bezala irudikatu daiteke Urdazubi, modu batean zein bestean turista asko hurbiltzen baitira herrira.

8.3. Landa etxea

8.3.1. Okupazioa

Lehen aipatu bezala, 2005. urtean egin zuen landa etxe bat du Ana Marik, Landibar auzoan dago kokaturik, Dantxarineako bentetatik oso gertu eta sei pertsonentzako lekua du ostatu honek. Urtean zehar gutxi gora behera 70-80 turista pasatzen dira etxe honetatik batez bestez, badira urte batzuk jende gehiago hurbiltzen dena eta beste batzuk gutxiago, baina orokorrean zifra horretan ibiltzen da. Bestetik, diferentzia handia nabaritzen da denboraldi edo sasoi batetik bestera, izan ere, udako hilabeteetan beteta egoten da egun guztiz baina aldiz beste sasoi batzuetan gutxiago. Abuztuko hilabetea eta aste santua izan ohi dira eskari gehien egoten diren denboraldiak, egun hauetan beteta egoten da Ana Mariren ostatua eta jendeak aurrerapen handiarekin erreserbatzen du lekua. Egunduan okupazioak piko handienak hartzen ditu baina badira denboraldiak piko honek behera egiten duela. Neguan eta udazkenean zailagoa izaten da plazak betetzea, eta honen arrazoia jendea lanean dagoela esaten du gure pertsoniak. Eguberri inguruan eta batez ere urte zaharretan landa etxeak eskari handia hartzen du baita ere, askori beraien herritik kanpo ospatzea gustatzen bait zaio, dio Ana Marik.

8.3.2. Gaualdiak

Gaualdiei dagokionez, hemen ere badira denboraldi ezberdinak; udan aste osoko erreserbatzen dute turistek normalean, aste santuan ere besta egun guztiak okupatzen dira baina aldiz udatik eta besta egun hautatik kanpo asteburutarako erreserbak izaten dira. Aste tartez gutxi eskatzen

dute haien plaza, baina asteburuak ia urte osoan zehar beteta egoten dira. Honen arrazoia, aurretik esan bezala jendearen lan egunak dira. Opor gehienak udan hartzen ditu turismoa egin nahi duen batek, eguraldi ona aurkitu nahi baitu aukeraturiko helmugan. Opor hauek borondatez hartzen direnak dira, turista bakoitzak aukeratzen baitu noiz hartu, baina bestetik Aste Santuan esaterako kalendarioan dauden jaiegunak direnez langile guztiek beste izaten dutenez eskaera kopurua izugarria izaten omen da.

8.3.3. Turisten jatorria eta turista mota

Turisten jatorrian zentratuz gero, baditu jatorri ezberdinetik hurbiltzen zaizkion turistak Ana Marik. Gehienak, eta hortaz lehenengo postuan, Euskal Herriko Bizkaia inguruko turistak izan ohi dira Euskal Herria gehiago ezagutzeko asmotan etortzen dira Urdazubira eta Bilbo hirian bizi diren biztanleak aldiz, lasaitasun bila etortzen dira. Bigarren postuan, Madrilgo, Bartzelonako eta Balentziako turistek hartzen dute ostatu landa etxe honetan, hauen helburua Bilbotarren antzera lasaitasuna izaten da. Landa turismoa bilatzen dute hiriko bizimoduaz deskonektatzeko asmotan; mendia, itsasoa, animaliak, etab. Badira beste turista asko Frantziatik etortzen direnak, hauen helburua ez da guztiz aurrekoen berdina, Dantxarinea ezagutzeko helburuarekin etortzen dira gehienak. Badira zenbait interes honat etortzeko, izan ere, gasolina, tabakoa eta alkohola beraien herrialdean baino asko merkeagoa izaten baita. Hala ere, badira beste frantses batzuk naturagatik edo landa turismoagatik etortzen direnak baita ere, mendiak ibilaldiak egiteko batez ere.

Landa etxe honetara hurbiltzen diren turista mota gehienak familiak izan ohi dira. Hurrekin oporrak pasatzeko helmuga ona dela aitortzen baitiote turistek Ana Mariri. Familiez gain bikoteak dira ostatua hartzen dutenak, hauek bigarren postuan egonik. Asteburu pasatzera etortzen direnak gehienbat bikoteak izaten dira eta aldiz udan eta aste santuan erreserbatzen dutenak familiak batez ere. Aurretik esan bezala Ana Marik azpimarratu nahi izan du turista hauek aisialdirako etortzen direla, hau da turista guzti hauen arrazoia batez ere. Badira gutxi batzuk familia edo lagunak bisitatze arren etortzen direnak eta hemen hartzen dutenak ostatu, baina esaterako lana arrazoiagatik ez du inork momentuz ostatu hartu landa etxean.

8.3.4. Landa etxearen eboluzioa

Eboluzio nabarmena jasaten ari du Urdazubiko ostatu honek, izan ere urtez urte turista gehiago ari baita jasotzen. Aitortu digu hasierako bi urteetan kostatu zitzaioela bere landa etxea okupatzea batez ere ireki eta hortik gutxira krisiaren eragina sumatu baitzen. Baina poliki-poliki handitzen joan zen ostatua hartzen zuten turisten kopurua 90 turista jaso arte 2017. urtean, hau izanik orai arteko urterik hoberena. Egon dira eta badira zenbait beraien egonaldia errepikatu dutenak, urtero ostatu hartzen dutenak landa etxe honetan herria asko gustatu zaiotelako. Data zehatz bat daukate eta urtero data horretan lekua gordetzeko eskatzen diote, hauek turista finkoak bezala kalifikatzen ditu Ana Marik. Eboluzio gorakor honen beste arrazoietako bat maskotak onartzen hasi zenekoa da. Hasiera batean ez zituen maskotak onartzen landa etxean baina geroago onartzea erabaki zuen, momentu horretatik aurrera gorakada handia sumatu zuela adierazi du, izan ere, Urdazubiko landa etxeetatik maskotak onartzen dituen bakarrenetarikoa baita.

8.3.5. Erreserbatzeko modua

Honez gain, turistek lekua erreserbatzerako orduan, telefonoz egiten dute gehienbat. Baina telefonoz deitzeko lehenengo interneten begiratzen dute ostatua eta behin erabakia hartuta Ana Mariri zuzenean deitzen diote. Badira bakar batzuk jadanik ostatu honetatik pasatu direnen

iritzia hartzen dutenak kontutan, hau da, lagun bat edo familiako batek komentatuta. Baina orokorrean esan daiteke interneta dela iturri nagusia landa etxe honetan ostatu hartzeko.

8.3.6. Turisten iritzia

Landa etxeen gaiarekin bukatzeko, turisten egonaldia bukatu ondorengo iritzia garrantzi handia dauka. Orain arte Urdazubitik eta bereziki Ana Mariren landa etxetik pasa diren guztien iritzia oso ona izan da, zonaldea asko gustatu zaiotela aitortzen omen dute eta baita landa etxea ere. Orokorrean erreakzioa oso positiboa izaten da eta berriro itzultzeko interesa erakusten dute. Ana Marik dioenez turisten asebetetzea oso positiboa da, zenbait arlotan gainera; gastronomian, naturan, paisaietan, jende jatorra, Euskal Herri frantsesetik gertu egotea bi alderdi ikusteko etab. Esan beharra dago emakume honi modu positiboan asko eragin diola turismoak, herriko Udalak kopuru hau handitzeko ahalegin guztiak egitea eskatzen du eta orain arte bezala jarraitzea.

8.4. Leku turistikoak

8.4.1. Leizeen berezitasuna

Behin landa etxeen egoerarekin bukatzen badugu Gollori egindako elkarrizketarekin jarraitu dezakegu. Elkarrizketatu dugun pertsonaia hau Urdazubiko leizeetan eta errotan aditua izanik, gai honen inguruko galdeketari ekin diot ondotik. Gollorentzat Ikaburuko leizeak beste leizeengandik ezberdinak dira, leize aktibo bezala kalifikatzen ditu hauek, sorkuntzaren prozesua ikusi daiteke, Urtxume ibaiaren pasaerarekin hasiz, kanpoaldeko ingurumenarekin duen konexioa izanik, esaterako zuhaitzen sustraiak, fauna eta bere formazio aniztun eta guratsuak. Gainera, Urdazubiko leizeak ez dira handiak eta bisitak beti gidatuak izan beharra daukate, "handicap" honek abantaila bat ematen duela dio, izan ere, horrela turista edo bisitari honekin hurbiltasun bat lortzen delako. Herri honetan beste zenbait leize daudela aitortu digu elkarrizketatuak, baina leize hauek urtean behin bakarrik bisitatu daitezke, izan ere urtean behin bakarrik irekitzen baitituzte publikoarentzako. Leize hauen izena "Alkerdi"-ko leizeak dira eta bertan zenbait grabaketa aurki ditzazkegu: bisonte bat, orein bat eta oraindik guztiz aztertu gabeko zaldi bat. Benetan merezi omen du leize hauek bisitatzeak, pintura hauek ikustea ez omen baita batere erreza.

8.4.2. Iritsierak

Zein estazio edo egunetan etortzen diren turista gehienak leizeak edo errota bisitatzera galdeturikoan Gollori, Ana Mariren erantzun berdintsuak eman ditu. Bisitari gehienak abuztuan etortzen dira, leizeak turistaz beteak egoten dira eta langile gehiago kontratatu behar izaten ditu hilabete honetarako, laguntza asko behar baita. Bigarren estazio edo kasu honetan zubia izango litzatekeena, Aste Santua izan ohi da, hemen ere izugarri hazten da turista kopurua egun hauetan eta kasu honetan ere langile gehiago kontratatu behar izaten ditu Gollok, egun hauetan laguntzeko. Hirugarren lekuan uztailleko hilabetea egoten da, hemen ere bisitari dezente agertzen dira baina hala ere, ez abuztuan bezain hainbeste, hilabete honetan piko altuenak lortzen baitira. Azkenik, zubiak eta asteburuak edukiko genituzke, urtean zehar aste tartez ez baita hainbeste turistarik etortzen, honen arrazoia noski jendearen lan egunak dira.

8.4.3. Turisten erreakzioa

Turistek izaten duten erreakzioa leizeetatik edo errotatik irtetean, oso ona izaten omen da. Interneteko sarean ikusi daitezkeen iritzietan, pasatu diren bisitarien gauza oso onak erraten dituzte, horien artea; leize oso bereziak direla, bisitako gidarien azalpenak oso landuak eta oso ongi azalduak, orokorrean oso txoko politak.

8.4.4. Jatorria

Leizeetara eta errotara etortzen biden bisitarien %85a nazionalak izaten dira Gollok erraten duenez, batez ere Euskadik etortzen dira. Euskadiz gain beste erkidego batzuetatik ere etortzen dira, ondokoak izanik erkidego hauek, gehienetik gutxienera ordenatuak: Nafarroa, Katalunia, Madril, eta Balentzia. Penintsulako beste zenbait erkidegoko jendea ere ikusi du askotan Gollok, baina hauen ehunekoa besteena baino txikiagoa da. Atzerritarrei dagokionez, Frantsesak dira turista nagusienak, udan batez ere. Frantziako zona desberdinetatik etortzen dira baina batez ere 64, 40 eta 33 departamentuetatik. Leize hauetara hurbiltzen diren gainontzeko turista atzerritarren ehunekoa oso txikia omen dela aitortu du Gollok.

8.4.5. Turista mota

Elkarrizketatu dugun pertsona honen azken aurreko galdera turista motari buruzkoa izan da. Bisitari gehienak familiak izaten dira, gurasoak haien haurrekin eta hauek askotan beste familia batzuekin etortzen dira, hiru familiakoak oro bat. Hauekin batera ehuneko antzekoarekin, bikoteak izaten dira, adin ertainekoak eta jubilatua, familiek baino ehuneko zertxobait baxuagoa daukate. Urdazubiko leizeetara etortzen diren beste turista mota oso garrantzitsu bat taldeak izaten dira, autobusetan etortzen diren taldeak alegia. Talde hauetan gehienbat jubilatua etortzen dira, ateraldi antolatua izaten dira eta hauen geldialdietako bat Urdazubiko leize eta errotak bisitatzera izaten da askotan. Bestalde, eskoletako haurrak ere aurki ditzazkegu, hauek ere eskolak antolatutako bisitak izaten dira, Urdazubi zein Zugarramurdiko leizeak ezagutzera etortzen direlarik. Ateraldi mota hau eskolako irakasgai batean lotua izaten da normalean, Natur Zientziekin, Gollok esan digunez.

8.4.6. Enplegua

Hainbeste urte turismoaren arloan daramatzen pertsona honek, eta gainera arlo honetako Urdazubiko arduraduna izanik, turismoak sor ditzakeen lanpostuez asko daki. Badira langile batzuk modu zuzenean turismoarentzako lana egiten dutenak, baina beste batzuk omen dira zeharkako modu batean egiten dutenak. Modu zuzenean egiten dutenak urte osoan zehar turistekin edo turismo arloan egiten dute lan eta aldiz zeharkako moduan egiten dutenak urteko data zehatz batzuetan egiten dutenak izaten dira; Aste Santuan, udan, zubietan eta asteburuetan. Baina lanpostu ezberdinak daudela dio Gollok, alde batetik leizeetan, errotan, monastegian eta turismo bulegoan lan egiten dutenak edukiko genituzke, baina gero, badira beste lanpostu batzuk, esaterako, ostalaritzan eta jatetxeetan lan egiten dutenak. Azken hauetan ere turistek eragin asko dute, beraien arabera okupazioa oso desberdina bait delako.

Elkarrizketa honekin bukatzeko, Gollorentzat oso garrantzitsua da turismoa, hortik bizi dela dio berak eta urtetik urtera kopurua handitu ahal izateko ahaleginak egingo dituela aitortu dit.

8.5. Herriko tabernako turismoa

8.5.1. Herriaren berezitasuna

Anaxtaxiri egindako elkarrizketa ostatuan eta orokorrean herrian ikusi duen turismoari buruzko galderak egin dizkiot, bere plaza parean bizi izanik. Emakume honentzat Urdazubik badu beste herriek ez duten zerbait, eta zerbait hori herritartasuna da. Honekin esan nahi duena zera da; herritarrek gogotsu hartzen dituztela turistak beraien herrian eta goxotasun bat ematen diotela bisitari horri. Bertetik Urdazubik beste herriek ez duten xarma berezi bat omen du bere ustez eta xarma hori dituen txoko ederrengatik datorrela aitortu du.

8.5.2. Turista mota

Urte askoz plaza parean kokaturik eduki duen ostatuan mota guztietako turistak ikusi ditu, horien artean gehienak Frantzesak izanik. Frantses hauek erakartzeko zerbait berezia du Anaxtaxiren ostatuak, baina ez daki esplikatzen zer oten den gauza berezi hori atzerritar hauek erakartzen dituen. Turista mota hau bertako produktuak erostera etortzen da (txorizoa, gazta, urdaiazpikoa etab.) eta Frantziako zona desberdinetako jendea etorri izan zaio. Posible da hau izatea Anaxtaxiren tabernak izan duen berezitasuna, izan ere, Dantxarinean hainbeste benta dituzte baina ez bertako produktuekin hornitua, beraz, hau izan daiteke arrazoia hainbeste frantses etortzeko. Bestetik, bigarren lekuan Euskadi eta Nafarroako turistak edukiko genituzke. Turista hauek zerbait edatera etortzen direnak dira, trago bat hartu eta terrazan jartzen diren horietarikoak. Askok mendiko ibilbideak egitera etorri eta ondotik hidratatzeko etortzen direnak direla dio Anaxtaxik. Hirugarren lekuan, nazioko beste erkidegoetatik datozen turistak edukiko genituzke, batez ere, Kataluniakoak, Madrilgoak eta Balentziakoak, ez luke jakingo esaten hauen ordena zein izango litzatekeen. Hauek aurreko bi turista horiek egiten dutena elkartzen dute, hau da, bertako produktuak erostera eta tragoa kontsumitzera etortzen diren bisitariak.

8.5.3. Eboluzioa

Anaxtaxiren ustez eboluzio ezberdinak eduki ditu turismoak Urdazubin, bere tabernari dagokionez. Hainbeste urte daramatzanez tabernarekin denetarik ikusi du emakume honek, garai batean herriko jendea soilik etortzen zitzaion. Lehen pertsona gutxi edukitzen zuen autoa eta ez zen orain bezain beste bidaiatzen, soilik aberatsek egiteko aukera baitzuten, hori dela eta hurbil-hurbileko jendea joaten zen bere tabernara. Ez dago segurua baina, gutxi gora behera 1980. urtetik aurrera turistak agertzen hasi zirela dio Anaxtaxik. Gutxinaka hasi ziren agertzen eta ordutik aurrera beti gora egiten jarraitu du kopuru honek. Beraz erran daiteke eboluzioa positiboa izan dela urtetik urtera. Hala ere, erran digu krisiaren eragina nabaria izan dela beretzako, izan ere, kopuru honek beheraka bat izan zuen. 2008. urtetik hasita 2012. urteraino tabernara eta ostatura etortzen zitzaizkion turistak gutxitu egin ziren, 2012. urtetik aurrera berriro ere igotzen hasi zen, 2017an urte hobereana izanik dio Anaxtaxik.

8.5.4. Iritziak

Tabernara eta ostatura etortzen diren bisitariak ea herria gustatu zaien galdetzea gustatzen zaio elkarrizketatu dugun emakume honi. Oso iritzi onak ematen omen dituzte eta aurretik aipatu den bezala, gehien nabarmentzen dutena herritarrek emandako goxotasuna izaten omen da. Anaxtaxiren urtez, honen arrazoia, hiritik datozen pertsonak ez dutela herri txiki batean egon daitekeen elkartasun hori izaten ahal da, azken finean horrelako herri txiki batean denak ezagutzen bait dira eta turista bat agertzerakoan herritar bat bezala hartzen zaiolako. Honez gain, paisaien edertasuna ere gorai patzen dute askotan, berdetasuna, landareen aniztasuna, animalia ugari egotea etab. Beraz, orokorrean turistak pozik gelditzen dira Urdazubira egindako bisitarekin eta Anaxtaxik dionez askok errepikatu egiten dute, izan ere, baditu bidaiari batzuk urtero bisita egiten diotenak bere tabernara hurbildu.

Hirugarren elkarrizketa honekin bukatzeko, Ana Mari eta Gollorentzat bezala, Anaxtaxirentzat ere oso garrantzitsua turismoa, gaur egungo bere ostatuari eta orain itxita dagoen baina duela urte batzuk eduki zuen tabernari errentagarritasun handia eman baitzion eta turistarik gabek ez lukeelako aurrera aterako ez ostatura ez taberna.

8.6. Urdazubiko turismoa orokorrean

8.6.1. Jatorria

Santitxuri eginiko galderetako bat turisten jatorriari buruzkoa izan da. Herrira eta leizeetara etortzen direnak gehienbat nazioko bisitaria izan ohi da, nahiz eta gero eta Frantses gehiago etortzen ari den. Dantxarinear aldiz, diferentzia oso handiarekin Frantzes turistak ditugu nagusi, etortzen diren turisten %95a jatorri honetakoa izanik. Hala ere, gaur egun frontierako alde honetako jendea gero eta gehiago hasi da komertzio hauetara etortzen. Orain dela gutxi arte, Dantxarinear gauza konkretu batzuk bakarrik eskaintzen ziren, horien artean; alkohola, gasolina, tabakoa eta janaria. Baina gaur egun, komertzio gehiago ireki dituzte, moda, kiroleko materiala eta beste zenbait gauza eskainik. Honek nazioko jende gehiago erakartzea eragin du. Egoera orokortzen badugu ordea, herria eta leizeak ezagutzera etortzen den jendea nazionala izaten da (Euskadi, Nafarroa, Katalunia eta Madriletik gehienbat) eta Dantxarinea ezagutzera etortzen direnak berriz Frantzesak.

8.6.2. Turista mota

Aurreko elkarrizketatuei galdetu zaien bezala Santitxuri ere Urdazubira etortzen den turista mota nolako izan ohi galdetzea egokitu zaio. Alkatearen bisioa aurrekoena baino orokorragoa dela esango nuke, izan ere, Ana Mari, Gollo eta Anaxtaxik esparru jakin batean ikusten dute turista, baina azken honek ordea esparru orokorrago batean. Hala ere, beste hiruek diotenarekin bat egingo luke gizon honen ikuspegiak ere, gehienak familiak izaten dira. Urdazubin landa turismoa da nagusi eta familia asko justu horren bila etortzen dira askotan, hau da, batez ere lasaitasun bila. Ondotik, bigarren postuan, bikoteak edukiko genituzke asteburua landa etxe batean pasatzeko asmotan etortzen direlarik. Gollok lehen esan digu askotan jubilatuen edo haurren autobusak etortzen direla leizeetara, bidaia antolatuak izanik, baina hauek soilik eguna pasatzera etortzen dira, ez dute ostatu hartzen herrian. Beraz Santitxuk, familiak eta bikoteak direla turista mota garrantzitsuenak baieztatu du.

8.6.3. Dantxarinearako turistak

Nahiz eta aurretik Dantxarinear etortzen den jendea turisten zakuan sartu duen Santitxuk, hori ongi zehaztea eskatu diot, zergatik sartzan duen turisten zakuan alegia. Nahiz eta komertzioetara etortzen den jendea egun baterako etortzen den, hau da, eroatera bakarrik, turista bezala hartzea erabaki zuten udaletxean. Azken finean, Urdazubiko beste alderdi bat ezagutzera etortzen baitira, leizeak edo paisaia ez den beste alderdi bat. Beraz hauek ere turista bezala kontsideratzea beharrezkoa dela dio. Gainera gaur egun, turista mota hau gero eta gehiago herria ezagutzera hurbiltzen da, komertzioetara etortzean eta honen existentziaz jakitean, herrikoak dituen beste zona turistikoak ezagutzeko tartea hartzen omen dute dio Santitxuk.

8.6.4. Turistak erakartzeko ekitaldiak

Zortzi urte hauetan zehar zenbait ekitaldi eta festa antolatu ditu herriko alkateak, horien artean; Burdinaren Eguna, tortilla lehiaketa, gaztain jatea, Espainiako Txirrindularien etapa baten amaiera, Nafarroako Burgete zaldi arrazaren erakustaldia etab. Ekitaldi hauek jende izugarria erakarri dute, herriko edo inguruko jendeaz gain, turista asko baita ere. Oso festa preziatuak dira Santitxurendako, herriko bizimodua eta ohiturak erakuste aukera bikaina eskaintzen baita modu honetan. Aitzakia honekin turista asko erakartzen dira eta Urdazubin edo inguruan ostatu hartzen dute. Mota honetako ekitaldiak mantentzea oso garrantzitsua dela dio batez ere inguru hauetan ostatua hartua duten turistentzat. Horregatik, bisitari gehien dagoen estaziotan egiten dira festa hauek, asko aberasten duelako herria eta zenbait turistei bisita errepikatze gogo pizten zaielako.

8.6.5. Turismoa eta ekonomiaren arteko lotura

Turismoa eta ekonomia lotuz gero, konbinazio perfektua dela aitortu du alkateak. Herriarentzako diru-sarrera nagusia da, batez ere Dantxarinateatik lortzen diren diru-sarrerak. Urdazubik duen aberastasuna beraz turismotik dator, Nafarroako herri aberatsena izanik. Pertsonako batez besteko errenta handiena du herri honek 45.123,45koa izanik (Diario de Navarra, 2016). Ikusirik herriko biztanle gehiena turismotik bizi dela zuzenki edo zeharka, turismo eta ekonomiaren arteko lotura Urdazubin oso ona dela ondorioztatu dezakegu. Tabernak, landa etxeak, leizeak, komertzioak eta artisauak turismotik bizi dira eta beraz dena turismoarekin erlazionatuta dagoela ikus dezakegu. Herritarren %70 turismotik bizi dela esatera ausartuko litzateke Santitxu eta oso arro gainera.

Bukatzeko, aurtengo alkatetzarako hauteskundeetarako aurkezten ez den arren, zinegotzi gisa, turismoa sustatzeko ahal duen guztia egitera prest dagoela aitortu du. Urte guzti hauetan turismoaren garrantzia zer nolako handia den ikusirik, honen aldeko inbertsioak egitea izango da bere helburu nagusienetarikoa bat, herriak duen xarmak aurrera jarraitu dezan eta mundu guztian ezaguna izan dadin.

9. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Turismoari buruzko lan honen ondorioak ateratzeko orduan, Espainia, Nafarroa eta Urdazubiri buruzko ondorioak aterako ditut batez ere. Azken finean, Urdazubiko turismoa aztertzen saiatu naiz eta herri honetako datuetara hurbiltzeko, Espainia eta Nafarroarekin egin ditut konparazioak batez ere. Mundu mailarekin edo Europarekin konparatzeak ez luke zentzu askorik izango zenbait arrazoiengatik; tamaina, kultura, herrialde asko, ohitura ezberdinak, distantzia handiak etab.

Mundu osoko turismoari dagokionez, ikusi dugun bezala Europa da nagusi iritsieratan eta baita diru-sarreretan. Irtsieretan Asia eta Pazifikoak baino %108,05 turista gehiago jasotzen ditu Europak eta Amerikak baino %218,48 gehiago. Diferentziak oso esanguratsuak dira, esan dezakegu munduko kontinenteetan liderra dela turismo arloan. Oso gustuko dute kontinente hau bidaiariak, izan ere, zenbait herrialde oso ezagun ditu, bertako monumentu, eliza, kultura, eskultura, pertsonaia ezagun, itsaso, mendi, klima eta beste zenbait berezitasunek egiten dutelako aberats helmuga bezala aukeratzeko orduan. Diru-sarreretan, Asiak eta Pazifikoak baino %33,08ko sarrera handiagoak jasotzen ditu eta Amerikak baino %59,2 gehiago. Ondorioz, iristen diren turistetan diferentzia askoz handiagoa da turismotik jasotzen diren diru-sarreraren balioa baino. Esan daiteke nahiz eta Europara bisitari asko agertu, diru-sarrerak ez direla proportzioan hain handiak, esaterako, Asian eta Pazifikoan 323 milioi turista iristen dira eta diru-sarrerak 390.000 dolarrekoak dira, Amerikan iritsierak 211 milioikoak diren bitartean diru-sarrerak 326.000 dolarrekoak eta European aldiz, 672 turista iristen diren bitartean, diru-sarrerak 519.000 dolarrekoak dira. Ondorioz, proportzioak Asia eta Pazifikoak eta Amerikak jasotzen dituzten turistekiko diru-sarrerak handiagoak dira European baino. Afrika eta Ekialde Ertainak aurreko hiru hauekin konparatuz gero diferentzia izugarriak aterako lirateke, izan ere, turista eta diru-sarrera askoz gutxiago jaso dituzte eta.

Bestalde, Europa hain turistikoa izatearen beste arrazoietakoa bat bere tamainarekiko duen populazioa izan daiteke. Amerika edo Asiarekin konparatuz askoz txikiagoa dugu Europa, baina hala ere, oso populatua dago. Bertako herrialdeen artean komunikabideak oso onak dira, hegazkin asko daude herrialde ezberdinak lotzeko eta honez gain, bizi maila ere orokorrean ona da. Honekin esan nahi dutena da, honelako abantaila hauek edukita ohikoagoa dela gehiago bidaiatzea.

Europako turismoan pixka bat zentratuz gero, badira zenbait herrialde nabarmendu egiten direnak establezimendu kopuruari dagokionez, horien artean: Italia, Erresuma Batua, Espainia, Frantzia eta Alemania. Bestalde, etorritako turista kopuruaren arabera antzeko herrialdeak nabarmentzen dira baita ere, ondoko ordenan: Frantzia, Espainia, Italia, Erresuma Batua, Turkia eta Alemania. Herrialde hauen tamaina Europako beste zenbait herrialdeekin konparatzen badugu askoz handiagoa da, beraz honako hau arrazoi bat izan daiteke herrialde bisitatuenak hauek izateko. Bestetik, klimak ere zer ikusia dauka, Espainian eta Italian nagusiki. Bidaiari asko hondartza eta eguzki bila ateratzen direnez bi herrialde hauek helmuga oso ohikoetan bihurtzen dira. Frantziak, Erresuma Batuak eta Alemaniak betidanik eduki duten famak asko laguntzen dira bisitariak jasotzerako orduan, bertan dauzkate monumentuak ezagunak baitira mundu osoan zehar.

Munduko eta Europako turismoaren inguruan egindako azterketa guzti honen ondoren, Espainia, Nafarroa, Ipar-mendebaldea eta Urdazubiko turismoari buruzko ondorioak aztertzeari ekingo diot. Erran beharra dago urtetik urtera gehiagora doan zerbitzu bat dela eta 2017. urterako turismo ekintzen pisua BPGaren %11,7a zela Espainian (Hosteltur, 2017b). Orain arteko Espainiako turismoaren zati garrantzitsuenak "hondartza eta eguzki" deiturikoa izan bada ere, gero eta entzunagoa den "turismo alternatiboa" aztertu nahi izan dut lan honetan, 2005-2017 urteen artean eman duen gorakada %104,24koa izan baita.

Hala ere, estatu guztiko datuak oso desberdinak direnez eta autonomia erkidego bakoitzak baliabide oso desberdinak dituenaz, ezin dira bidaiari kopuruak zuzenean alderatu. Horretarako bidaiari kopurua autonomia erkidego bakoitzeko km²-ko eta bertako biztanle kopuruko aztertu da, eta Nafarroako emaitzak Espainiar estatuko batz bestekotik gora daudenez, Nafarroako turismoa sakonago aztertzea eraman nau.

Nafarroako datuen arabera, landa turismoak esanguratsuki egin du gora, apartamentuen, aterpetxeen eta kanpinen gorakada gaituz, baina hala ere turismo osoaren %11 bakarrik adierazten du gaur egun (NEI, 2017). Normala denez hirietan landa turismoaren portzentajeak askoz txikiago izaten da landa eremuetan baino eta horregatik, Nafarroako mapa zonalde turistiko ezberdinetan zatitu da, eskualde ezberdinetako landa turismoaren kopurua aztertzeko. Honen arabera, Nafarroako Ipar-mendebaldea da landa turismoan gorakada handien jasan duen eskualdeetako bat.

Sakonago aztertuz gero, eta Urdazubiko Udalaren datuez baliatuz, ikusi ahal izan da Nafarroan, Nafarroako Ipar-mendebaldean, Espainian eta Urdazubin batez besteko landa turismoak gorakada izan duela 2013tik 2017ra bitartean, Urdazubin %33,33ko hazkundera eman zelarik aurreko urteko bidaiariei dagokionez. Orain arteko 2018ko datuek ere bide beretik doazela erakusten dute, izan ere 2018. urteko datuek 2017koen berdintsua izaten jarraitzen baitute. Honek garrantzia du, bertako langabezia tasa %5,98koa baita (Expansión, datosmacro.com, 2017), Espainiakoa %18,6koa den bitartean.

Landa turismoan sakonago zentratuz, Espainiako autonomia erkidegoen artean 2005tik 2017ra diferentzia nabariak egon direla ondorioztatu dezakegu. Balear Uharteak izan dira hazkunde handiena izan duena, izan ere, %273,07ko hazkundera eduki du. Estremadurak eta Gaztelak Mantxak ere hazkunde esanguratsu bat izan dute baina ez aurreko erkidegoak bezain hainbeste (%197,67 eta %173,28). Erran daiteke erkidego hauek inbertsio eta oso ideia onak izan dituztela turistak erakartzeko, honelako hazkunde hauek izatea ez baita hain erraza. Bestalde, turista gehien jaso dituen erkidegoa 2017an Gaztela eta Lehoi izan zen, 761.242 turista jaso zituelarik. Zifra ikaragarria da beste erkidego batzuekin konparatzerako orduan, bigarren erkidegoa

Katalunia izan zelarik 440.562 landa turisten iritsiera izan zutelarik. Ikus dezakegu beraz Gaztela eta Lehoi nagusi dugula landa turismoan, bidaiariak gustuko dutela erkidego hau landa turismoak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokionez. Nafarroaren kasuan, %107,38a erakutsi du 2005tik 2017rako urte guzti hauetan, hazkundea oso ona da baita ere eta balio absolututan 2017. urtean izan zituen bidaiari kopurua 151.490 izan zen. Espainiako autonomia erkidego guztietatik 13. postua hartzen du landa turistei iritsierei dagokionez. Ez da oso postu ona baina kontuan hartu beharra dago gainerako autonomia erkidegoekin konparatuz gero askoz txikiagoa dela, Andaluzia edo Gaztela eta Leonekin konparatzen badugu esaterako azalera askoz txikiagoa da. Inguruan dituen erkidegoekin konparatuz gero, Aragoi eta Euskadik baino bisitari gutxiago izan ditu, alde batetik Aragoirekin konparatzen badugu aurrekoen kasuan tamaina arrazoi nagusietako bat izan daiteke eta honez gain erkidego honek zenbait zona oso turistiko dituelako, horien artean Pirinioak, bere eski estazio handiekin. Bestalde, Euskadirekin alderatuz, tamaina ez litzateke izango arrazoa, baina bai kosta. Kosta ez izateak eragin handia du normalean turistak erakartzerako orduan, azken finean, itsasoa oso erakargarri suertatzen baita askorentzat.

Nafarroako zonaldeetan fijasen bagara, hiru zonetatik Pirinioak ditugu nagusi bidaiarien etorreretan, ondoren Nafarroako gainontzeko lekuak egonik eta azkenik Ipar-Mendebaldea (Urdazubi zona honetan dagoelarik). Nahiz eta beste bien hazkundea azken urte hauetan handiagoa izan den, Ipar-mendebaldearena konstante mantendu da 2011tik 2017ra. Azken finean zona honetan betidanik ezagutu izan dugun turismo mota landa turismoa izan da, beraz ez da harrizkoa hazkunde oso handirik edukitzea, baizik eta urteetan zehar konstante mantentzea. Aldiz, Pirinio eta Nafarroako gainontzeko lekuetan landa turismoa ez da hain landua egon, baina urtez urte arlo honetan inbertitzen joan dira emaitza oso onak lortuz.

Urdazubiko turismoan adituak diren lau pertsona hauekin hitz egin ondoren, esan daiteke landa turismoa oso garrantzitsua dela herriaren ongizatearentzat. Esan diguten bezala, herriko pertsona askok turismoaren arloan egiten dute lan, badira batzuk soilik hortik bizi direnak, baina badira beste asko beste lan mota bat dutenak ere (landa turismoa ez baita urteko hilabete guztietan berdina ematen). Nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizitzea gero eta zailagoa izanik, herritar asko beraien baserriak landa etxeetan bihurtzen dituzte, honen bidez hilabeteko irabaziaz handitzea lortzen baitute. Beraz, hauek ere landa turismoaren lan poltsan sartuko genituzke. Gainera, lau pertsona hauek esan digutenez eboluzio ona erakusten ari du herriak eta askok beraien bisita errepikatzen dute.

Honez gain, turismoak ea ongi edo gaizki funtzionatzen duen argitu nahi baldin badugu bidaiarien iritzietan oinarritu gaituzke. Elkarrizketatuak izan diren lau pertsona hauek iritzi oso onak jasotzen dituztela esan digute, beraz, honekin Urdazubi oso gustukoa dela turisten artean ondoriozta dezakegu. Iritzi ona edo asebetetze ona izateak abantailak ekarri ahal dizkio herriari, izan ere, berriro itzultzeko aukera egon daiteke edo ahoz aho fama ona sortzea eta turista gehiago erakartzea. Ondorioz, orain arte bezala turismoaren alde eginiko ekitaldi, berrikuntza eta orokorrean egindako inbertsioak sustatzen jarraitzea aberasgarria izango da Urdazubirentzat. Oro har, elkarrizketaturiko lau pertsona hauen erantzunek gauza asko izan dituzte amankomunean beraien artean eta gauza guzti hauek positiboak izan direla ondorioztatu dugu.

Ondorioz, Urdazubik beste zonalde askoren landa turismoaren datuak gaintzeko gai dela erakutsi du. Hau mantentzeko, bere kultura zaintzen jarraitu beharko luke, baserri zaharrei etekina ateratzen landa etxe gisa eta modu honetan bertako langabezia tasa txikiagotzen. Modu honetan, bertako biztanleek turismoaz bizitzeko aukerak areagotuko lituzkete eta ez lirateke kanpora lan bila joan beharko.

10. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

Anbustegi, F. eta Ondikol (2018/08/12). *Concurrido Día del Hierro en Urdazubi*. Noticias de Navarra. <https://www.noticiasdenavarra.com/2018/08/12/vecinos/concurrido-dia-del-hierro-en-urdazubi>

Burkart, A. J. eta Medlik, S. (1981). *Introducción al turismo*-n zitatuak. Sancho, A. (2008). [http://www.profesionalesdelturismo.cl/images/libros/manuales/Introduccion al Turismo.pdf](http://www.profesionalesdelturismo.cl/images/libros/manuales/Introduccion_al_Turismo.pdf)

Comisión Europea. (2011). *Turismo costero y marítimo*. https://ec.europa.eu/maritimeaffairs/sites/maritimeaffairs/files/docs/body/coastal-and-maritime-tourism_es.pdf

Diario de Navarra (2019/11/11). *Urdax es el pueblo más rico de Navarra, con una renta media de 45.123 euros por vecino*. https://www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/2016/11/08/urdax_pueblo_mas_rico_navarra_con_una_renta_media_123_euros_por_vecino_497338_300.html

EPA (2019). *Encuesta de Población Activa*. Instituto Nacional de Estadística. https://www.ine.es/prensa/epa_prensa.htm

Errandonea, Sanzberro, J.J. (2019). *Turismo fluxu motak. Geografía eta Historia*. <http://multiblog.educacion.navarra.es/jerrando/2010/03/08/turismo-fluxu-motak>

Eurostat (2017). *Estadísticas sobre turismo*. https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Tourism_statistics/es

Exceltur (2017). *Definición del ISTE*. <http://www.exceltur.org/indice-sintetico-del-pib-turistico-espanol-iste/> <http://www.exceltur.org/pib-y-empleo-turistico-por-c-c-a-a/>

Expansión egunkariaren datu biltzailea: datosmacro.com <http://www.datosmacro.com/pib> <http://www.datosmacro.com/idh/espana>

Ferreiro Seoane, F. J., Camino Santos, M. (2014). *El turismo rural en Galicia. Evolución del sector en la última década*. Revista de pensamiento político y social, (pp. 11-34). Santiago de Compostela, España.

Flores Amador, C., Zizumbo Villarreal, L., Cruz Jiménez, G. eta Vargas Martínez, E. E. (2014). *Economía social, comunalidad: orientación teórica para el turismo rural, como alternativa de desarrollo*. Revista Mexicana de Ciencias Agrícolas, núm. 9 (p. 1645-1658). Toluca, Mexico.

Fuentes, S. (2017). *Turismoa*. <https://prezi.com/diOwfvflryzs/turismoa/>

Gobierno de España. (2013). *Turismo de España*. <http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/ServiciosAlCiudadano/InformacionParaExtranjeros/Paginas/Turismo.aspx>

HabituR (2016). *Encuesta de Hábitos de los Turistas Internacionales en España*. Turespaña. <https://www.tourspain.es/es-es/ConocimientoTuristico/InformesHabitur/Informe%20Habitur%202016%20para%20publicacion.pdf>

Hosteltur (2014/08/07). *El turismo rural da empleo a 21.000 personas*. http://www.hosteltur.com/167150_turismo-rural-da-empleo-21000-personas.html

- Hosteltur (2017a). *El turismo aumenta en cuatro décimas su aportación al PIB, hasta el 11,7%*. https://www.hosteltur.com/110303_la-aportacion-del-turismo-al-pib-sube-cuatro-decimas-hasta-el-117.html
- Hosteltur (2017b/04/10). *Radiografía del turismo rural en España, ¿un sector rentable?*. Espainia. https://www.hosteltur.com/121363_radiografia-turismo-rural-espana-sector-rentable.html
- http://www.profesionalesdelturismo.cl/images/libros/manuales/Introduccion_al_Turismo.pdf
- Hunziker, W eta Krapf, K. (1942). *Introducción al turismo*-n zitatuak. Sancho, A. (2008). http://www.profesionalesdelturismo.cl/images/libros/manuales/Introduccion_al_Turismo.pdf
- Instituto Nacional de Estadística – INE. (2017). *Producto Interior Bruto regional Año 2017*. https://www.ine.es/prensa/cre_2017_1.pdf
- Instituto Nacional de Estadística (INE, 2015) <http://www.ine.es/>
- Instituto Nacional de Estadística (INE, 2017). <http://www.ine.es/>
- Martínez, Thalía R. (2012). *Tipos de turistas que existen*. Entorno turístico. <https://www.entornoturistico.com/tipos-de-turistas-que-existen>
- Mathienson, A. eta Wall, G. (1982). *Introducción al turismo*-n zitatuak. Sancho, A. (2008).
- Nafarroako Estatistikaren Institutua (INE, 2017). <http://www.navarra.es/AppsExt/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=5>
- Observatorio del Turismo Rural (2013). *Las cifras de mercado del Turismo Rural*. <http://www.escapadarural.com/observatorio/cifras-de-mercado-turismo-rural/>
- Organización Mundial del Turismo – OMT. (2018), *Panorama OMT del turismo internacional*. Edición 2018, UNWTO, Madrid. <https://www.e-unwto.org/doi/pdf/10.18111/9789284419890>
- Pérez González, M.P. (2009). *Turismo rural en Castilla y León: delimitación comarcal y análisis espacial*. Tesis doctoral. Universidad de Valladolid. <file:///C:/Users/CALCISOL/Downloads/TESIS370-130928.pdf>
- Sancho, A. (2008). *Introducción al turismo*. Organización Mundial del Turismo. http://www.profesionalesdelturismo.cl/images/libros/manuales/Introduccion_al_Turismo.pdf
- Statista. (2016). *El turismo rural en España. Datos estadísticos*. <https://es.statista.com/temas/3718/turismo-rural-en-espana>
- Turespaña (2018). *Empleo en turismo*. <https://www.tourspain.es/es-es/ConocimientoTuristico/AfiliacionSS/Nota%20EmpleoTurismo%20A%C3%B1o%202018.pdf>
- Turismo Navarra. (2019). Nafarroako Erresuma. <http://www.turismo.navarra.es/esp/home/>
- Urdazubiko Udala (2019). <http://www.urdax.es/ayuntamiento/>
- Wikipedia (2017). *Anexo: Destinos turístico mundiales*. https://es.wikipedia.org/wiki/Anexo:Destinos_tur%C3%ADsticos_mundiales

11. KONTSULTATURIKO BIBLIOGRAFIA

- Agencia EFE. (2019/03/19). *Enoturismo, el impulsor del mundo rural en Europa*. <https://www.efetur.com/noticia/enoturismo-europeo/>
- EL Diario Vasco. (2016). *Sólo en agosto pasaron por Baztan más turistas que en todo el año 2013*. <https://www.diariovasco.com/bidasoa/baztan-bortziriak/201609/14/solo-agosto-pasaron-baztan-20160914000706-v.html>
- Epturismo. (2019). *El turismo mundial crece un 6% en 2018: suma ya 1.400 millones de viajeros dos años antes*. <https://www.europapress.es/turismo/mundo/noticia-turismo-mundial-crecio-2018-sumo-1400-millones-viajeros-todo-mundo-20190121132859.html>
- Escuela Universitaria de Turismo de Murcia. (2012). *El turismo. Conceptos y definiciones e importancia actual*. <https://pdfs.semanticscholar.org/f6aa/680fb4fc328f090d28109098402494e3ccab.pdf>
- Eusko Jaurlaritza. (2001). *Euskal Herriko turismo eredu iraungarria lortzeko jarraibide estrategikoak*. http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/dir_estr_desa_sost_euskadi2001/es_def/adjuntos/Directrices_Estrategicas_Modelo_Developmento_Sostenible_Pais_Vasco.pdf
- Eustat. (2018). <http://www.eustat.eus/indice.html>
- Gara (2015). *Nafarroako turismoak gora egin du uda honetan eta sektorea suspertu da*. https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2015-11-12/hemeroteca_articles/nafarroako-turismoak-gora-egin-du-uda-honetan-eta-sektorea-suspertu-da
- La Vanguardia (2019/04/30). *¿En qué autonomía son más ricos los españoles?* <https://www.lavanguardia.com/economia/20190430/461939508932/en-que-autonomia-son-mas-ricos-los-espanoles.html>
- Lonely planet. (2019). *Las ciudades de Europa más visitadas*. <https://www.lonelyplanet.es/blog/las-ciudades-de-europa-mas-visitadas>
- Nekatur. (2018). <https://www.nekatur.net/Agroturismo-historia.aspx?lang=eu-ES>
- Organización Mundial del Turismo – OMT. (2015). *Recomendaciones de la OMT sobre accesibilidad de la información turística*. <https://www.tur4all.com/documents/1.pdf>
- Serrano del Rey, F. (2018). *El sector turístico en cifras: 2017-2018*. Vacaciones-España.es <https://www.vacaciones-espana.es/rentalbuzz/sector-turistico-cifras>
- Statista. (2019). *El turismo en el mundo – Datos estadísticos*. <https://es.statista.com/temas/3612/el-turismo-en-el-mundo/>
- Turismo en teoría (2012). *Información y los Turistas*. <https://www.tourismtheories.org/?p=809&lang=es>
- Turismo.org. <https://turismo.org/europa/>

Turistum. (2018). *Ranking de principales destinos turísticos del mundo, según la OMT*. <https://www.dinero.com/economia/articulo/ranking-de-principales-destinos-turisticos-del-mundo/254169>

Turistum. (2019). *Turismo en Europa*. <https://www.turistum.com/turismo-en-europa/>